ITXARO BORDA

# Jalgi hadi plazara

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2007 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2007ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Ich wäre gerne auch weise
In den alten Büchern steht, was weise ist:
Sich aus dem Streit der Welt halten und die kurze Zeit
Ohne Furcht verbringen
Auch ohne Gewalt auskommen
Böses mit Gutem vergelten
Seine Wünsche nicht erfüllen, sondern vergessen
Gilt für weise.
Alles das kann ich nicht:
Wirklich, ich lebe in finsteren Zeiten!

**Bertolt Brecht**

Nahi nuke ere zuhurtzia
Liburu zaharrek erraten dute zer den zuhurtzia:
Munduaren kalapitetarik urrun gelditzea eta denbora
Laburra beldurrik gabe pasatzea
Bortizkeriarik gabe ere konpontzea
Txarra onaz sariztatzea
Bere desirak ez betetzea, alderantziz ahanztea
Zuhurtzat hartzen da.
Baina hori guztia ezin dut:
Egiazki, garai ilunetan bizi naiz.

**Bertolt Brecht**

# Introitus

Argia itzali zen.

Hotza nabarituagatik, harpearen beroa nigan isuri zen, odola bailitzan. Besoak gurutzatu nituen eta umekiaren egon moldea bilatu nuen, arrautza kuskuan biltzen balitz bezala. Ongi sentitzen nintzen. Hurbilean, ur xortak erortzen entzuten nituen, beren txikitasunean erraldoi. Beldurra zainetan igotzen sumatzen zuten bisitarien oihuek hausten zuten isiltasuna eta haur bat negarrez lehertu zen.

Esku bat pausatu zitzaidan sorbaldan. Hasieran, harpean aterpetzen zen abere zital batek atzaparkatzen ninduela uste nuen, baina oroitu nintzen Jean d'Amou batekiko hitzordua neukala. Haren partetik, seinale baten aiduru nengoen, Izturitzeko harpearen lehen gela handia miresten ari ginela: irudi zuen gure arbasoek sua egin berri zutela harrizko hormen maldan eta kearen usaina usna nezakeen oraindik. Neanderthala hor bizi zen eta ez nintzen, fisiologiko eta fisikoki, hartarik sobera urrun: ameslaria nintzen era-

bat eta denbora galtzea atsegin zitzaidan. Alabaina Homo Sapiens-aren jazartzearekin, egunerokoan abiadura hilkorra sartu eta dagoeneko denboraren ezabatzea lehiatzen zen.

Jean d'Amouk ez zidan, nonbaitik ere, ezer erran nahi telefonoan.

– Telefonoz ez.

– Zergatik ez?

– Lineak ez dira sekurizatuak. Bihar elkartzen gara Izturitzeko harpeetan, arratsaldeko lauretan.

– Emadazu arrazoi bakar bat hara agertzeko.

– Gaiak interesatuko zaitu, eta misterioa argitzen baldin baduzu, munduak, euskal munduak, sariztaturen zaitu.

– Ez naiz horretaz segur, baina bale, Izturitzera etorriko naiz. Nola ezagutuko zaitut?

– Badakit nor zaren, lasai. Lehen urratsa eginen dut.

Ahotsa urtu zen ene urrutizkin zelularraren bihotzean.

Pentsatzen nuen Izturitzeko harpearen sarrera nagusian kausituko nuela Jean d'Amou. Ez zen horrelakorik gertatu. Pentsatu nuen halaber, ai-

tzina gindoazela, gidak bazterren edertasuna azpimarratzen zigula, Jean d'Amourik ez eta telefonoko boza ene imajinazioaren jokoaren ondorioa baizik ez zela. Hogei mila urte atzerago nenbilen, udatiarren erdian, gidari beha eta harpeko gozotasuna preziatzen. Argi iturria zehaztu genuen, hormen koloreak eta Otsozelaira jaitsi aurretik, zaldi eta orein zizelkatuak zekarzkigun harri peza. Maite nuen Izturitzeko harpeen bisitatzea, urtean behin edo bietan, aspalditik. Amaren sabelerako itzulera hunkigarria zen, eztitasuna eta laguntasuna falta nituelako *bizitza normala* deituriko zer madarikatu horretan.

Eskaileretan behera gindoazela, esku ahurraz balakatzen nituen harriak, eta Otsozelairatzean, ohituraz kasik, estalaktita baten puntan borobiltzen zen ur tanta behatzetan gatibatu eta ahora ekarri nuen: urak zintzurra eta erraiak baketzen zizkidala sinesten nuen. Harrigarriki gidak ez zituen, duela zenbait urte nola, kaltziozko azaloreak, xingar azpiak, talo kauserak edo olentzero bermatuak erakusten. Gaurkoan gidaren hitzak zientifikoagoak ziren, eta egungo izaera historia aurrekoarekiko amildegian kokatzen zuen. Alda-

ketaz ohartu nintzen eta harpea are hunkigarriagoa zitzaidan. Hargatik, mendeak ahitu ahala, harpea etxe ideal gisa kontsideratzen narraikan.

Esperientzia baten egiteko gidak argia itzali zuenean, harpea hatsa hartzen eta pil-pil mugitzen aditzen genuen. Ordu hartan nuen ezezagunaren atzamarra sorbaldan astun nabaritu. Izutu nintzen. Ahantzia nuen. Ilunpean, ahots lakar bat sartu zitzaidan belarrira, mintzalariaren aurpegia iragarrezin naukalarik.

– Jean d'Amou naiz.

– ...

– Segundo gutxi daukat. Ene aita hiru egun hauetan desagertu da. Bere lagunekin Bilbora joan da eta geroztik ez dut haren berririk.

– Hemezortzi urtez gorakoa da? Beraz nahi duena egiten du, ez?

– Ez. Laurogeietara hurbiltzen ari da, bere hiru adiskideak bezala. Euskaltzaina da. Iparraldeko euskaltzaina.

– Erran duzu haren semea zinela? Iparraldeko euskaltzain guztiak apezak direnez, nola daiteke hori?

– Jainkoaren bideak ez dira erraz asmatzen.

– Baiki.

– Amaia Ezpeldoi, ez zaitut anitz begiko, baina orain laguntza eske natorkizu. Aita non dagoen jakin behar dut, bizirik ala hilik den, norbaitek bahiturik edo bere kabuz ihesean.

Kopeta askorik ez nuenez, ezkerreko eri erakusleaz kokotsaren eskubiko zatia karrakatu nuen. Dudaz kiribiltzen nengoelarik keinu horren egiteko usantza nuela aitor dezaket, ahoa arinki zabal eta ezpainak zimur. Ilunpearen esperientziak zirauen. Jean d'Amou ez nuen ikusten, begiak beltzaren beltzari ohitu arren. Eleka ari zen, ahapez eta une batez iruditu zitzaidan malkotan urtzen zela. Bihozberatu nintzen:

– Bai. Ikertuko dut bederen nondik nora ibili diren Bilbon.

– Zoaz Euskaltzaindiaren egoitzara. Ni deika aritu naiz, baina ene euskalkia ez omen du nehork ulertzen.

– Ez dute astirik zure ahozko euskalkiaren ulertzeko –ihardetsi nion irriz–. Alfabetatu behar zenuke, indar bat egin ulergarria izateko, zure euskara zaharra modernizatu, hots.

– Aise mintzo zara zu. Oizu aitak zer gerta ere utzi zidan gutunaren kopia bat. Ez dut irakurri baina menturaz horko hitzek lagunduko zaituztete.

– Mil...

Gidak argia piztu zuen, esperientziaren azkena joaz.

Aldamenera xerrent begira egon nintzen. Errondan bilduak ziren jende horietarik nor zen Jean d'Amou, Gexan Hiriart apez euskaltzainaren semea? Espero nuen galde bat edo beste eginen ziola gidari eta horrela haren boza ezagutuko nuela. Baina debalde: bisitak iraun zueno ez zion inork ezer eskatu, lañoki harpearen berezitasunak azaltzen zizkigun andere gazteari. Zena zela, eder zitzaidan adibidez, lehenagoko jendeek, harpe barneko bide hertsi eta urrunak nola zedarritzen zituzten agertzen zuelarik: buztin kolorezko ttakak tuaz marrazten zituzten hormetan, zutoinen gibelean, nehork, salbu haiek, ez zitzan ikus. Harpearen bake sakratua segurtatuz, ttaka gorriz ttaka gorri heltzen ziren gela sekretuetara eta han otoitzean ari, edo lanean, edo erritual ameslariak errespetatuz elkarri gainka.

Nik ere ttakaz ttaka ibili beharko nuen Jean d'Amouk urrezko ontzi batean oparitzen zidan ikerketaren bururaino eramateko. Ttakak aldion gorri baldin baziren, ez ziren buztin burdintsuzkoak izanen, baizik eta odolezkoak. Gogoetaren hariari tiraka nenbilela, bisita bukatu zen. Udatiarrak banaka harpetik jalgitzen segitu nituen: zein zen Jean d'Amou? Konprenigarria zen funtsean, apez euskaltzain ospetsu baten semearen incognito geratzeko xedea. Nahiz eta eskandaluek ez zuten gehiago euskal herritarraren izpiritua inarrosten, barrabaskeria bakarra borroka armatuaren eta haren errepresio berdin itsuarena zen, ene irudiko, Gexan Hiriartek semea zuela tipustapastean ikasteak bazterrak harrotuko zituzkeen. Agituak agitu, moralak salbu eta sano behar zuela errepikatzen genuen, ahoak beteka.

Gidak zerratu zuen harpeko atearen azantz metalikoa ozen, giltza bortizki inguratuz, sortu zuen harramantzak ametsetarik iratzarrarazi ninduen. Otsozelaiko freskura atenporaletik jalgitzean kanpoko berotasun dorpeak neuronak malgutu zizkidan. Bisitari taldea begiztatzen nuelarik, ostatura igo nintzen, ttaka-ttaka. Ez

neukan neholako presarik eta agian hango mahaian lasai egonez, baso bat uren aitzinean, jendeari so, Jean d’Amou nor zen asma nezakeen, batez ere bozetik. Udatiar taldea, txori txiki herabeen maneran, briu-brau hegaldatu zen, lau postal eta entrebaleko peluxezko ardi bat erosirik, haurrarentzat badakizu!

Laster, ostatuan edo erakuslekuan nehor ez zen.

Ipar Euskal Herriko toki xarmangarriak biltzen zituen bideogailuaren aurrean ttottotu nintzen, erosi nuen izozki erraldoia milikatzen. Batean Mauleko gaztelua, bestean Garaziko zubia edo Donibane Lohizuneko Ravelen etxea begiratu nituen, hara engoitik Holtzarte eta Donapaleuko karrikak. Mihiaz izozkiaren txokolate tximistak lekatzen nituela, Jean d’Amouk behiala harpearen iluntasunean paper bat utzi zidalakoaz oroitu nintzen. Txülülariak aditzen zirela, gutunazala ireki nuen, arrabiaz. Gizon adineko baten izkirionea jauki zitzaidan. Iragan mendeetako idazkera zen, euskara zaharra, gure haur denborako katixima liburuetan haztatzen genuenaren antzekoa: Xren ordez CH zebilen, Zren lekuan C,

adibidez. Euskaltzainak, zirudienez, batua ez zuen meneko.

Dokumentua belaunen gainean pausatu nuen. Bideoari behako bat eta Herri Urratseko arratsaldeak gogorarazten zizkidan izozkiari nakako bat eman nien. Batu mentalez irakurtzeari ekin nion: «Jean, seme kuttuna, zerbait gertatzen baldin bazait, Amaia Ezpeldoi detektibe ruralarekin harremanetan jar zaitez. Anitzek bezala, ez daukat estimu handitan, bere molde pagano eta emaztekoiekin, baina konpetentea ez den arren, efikaza da. Ez dakit zenbat ardi edo zaldi galdu harrapatu dituen, eta zenbat familia afera korapilatsu argitu. Idatzi hau emaiozu eta beherean ezarri dudan enigma honi esker atzemanen du non nagoen, sekula desagertzen baldin banaiz...».

Gexan Hiriart ordukoz erabat galdua zen. Gutuna ene eskuetara heltzea seinale bat zen. Seinale txarra. Harpearen jabea begi luzeekin beha sumatu nuen. Bisitaldi berria hasia zuen gidak eta udatiarren asots alegeren ondotik, isiltasuna egin zen Izturitzeko harpeen harreran. Euskaltzainaren idazkia inguratu nuen, enigmaren bila.

Lehen kolpean ez nuen ezer aurkitu. Baina han zegoen, dokumentuaren zolaren zolan, ifrentzuz eta lapitz arinez izkiriatua, mirail batean leitzeko moduan. Poltsan, mirailik ez neukan, ahurrean urtzen zihoakidan izozkia baino. Ez nituen alabaina ezpainak gorritzen eta matelak erraustatzen emazte planttakoen eran. Bizkitartean, telebistako pantailan gizon-ahots koroak, Oldarra zitekeen, *maitea nun zira* abestia oihartzen zuen, apalek harpearen muinetik ernalduak ziruditela.

Etxeko bainugelako miraila behar nuen beraz enigmaren deszifratzeko. Izozkiaren buztana hortz artean kraskari, zutitu nintzen, nagitasunez asea. Harpearen jabea agurtu nuen mila esker ozenka. Irriz ihardetsi zidan. Elaire nuen. Hurbildu nintzaion.

– Ezagutzen ote duzu Jean d'Amou izeneko bat?

– Bai. Bat bederen. Biduze ertzean Ilarreko eihera eroria konpondu eta publikoari zabaltzen duena.

– Harpearen bisitarietan zen egun enekin batera?

– Ez, ez dut ikusi. Hor izan baldin bazen solasean egonen ginen eta oraindik hemen zatekeen, eleka. Jakintsu bat da. Unibertsitateko irakasle ohia.

– Zein gaietan?

– Ertaroko Historia. Barkatu, denbora labur daukat eta zuk galdera sobera duzu.

– Berdin du, lasai. Banoa. Mertzi biziki.

Amikuzeko ene euskalkiaren erabiltzeak larrutu ninduen. Ez nuen horretarako aitzakia askorik. Etxekoak zenduz geroztik batez ere, jendetasunaren aldetik bezain hizkuntzarenetik, lurraren azalean umezurtz nenbilen, norabide zehatzik gabe loakeen harri borobilaren pare. Arima erratua nintzen. Arima kameleoia, *mertzi biziki* pentsa eta *mila esker* ahoskatzen zuena. Adibideak biderka nitzakeen. Batzuetan herriko hilerrira nindoan eta bakartasun linguistikoz negarrez eta doluz hausten nintzen. Plastikozko liliak antolatzen nituen, gurasoen alde pausatu ziren marmolezko plakei hazten zihoakien goroldioa kentzen nien eta egiazko loreak ureztatzen. Baina gaurkoan ez nuen zainetarik ahultzeko estakururik. Euskalki guztiak, batua barne, erabil

nitzakeen eta menturaz Jean d'Amouk esperantza errearen mugetara bulkatuz, eskaini zidan kasuaren argitzeko ontsa baliatuko zitzaizkidan.

Pozik nengoen behingoz.

Autora nindoala, Amorotzeko Guanes artistak Izturitzeko harpeak jendeari zabaltzearen berrogeita hamargarren urteburua kari lurrean tindatu hatz zuriak jarraitzen nituen. Ipularrean, ez aspaldi moztu eta beroarekin kasik ketan zen belar pulo batetik zetorkidan herots berezia hauteman nuen. Soa azantzaren iturburura plegatzean, ez nintzen gutxi harritu lau suge elkarren artean txirikordatuak ikusi nituenean. Itsezkatzen zirela ziruditan eta lehen larruko ikara protohistorikoa gainditu eta ttattit nindagokien beha: suge bat zut-zuta zegoen, eni begira, eztena sar eta ateraka, beharbada mehatxuka baina oro har baketsuki, balentriaka. Bigarrenaren gorputz mehearen desplegatzeak fazinatzen ninduen liburu bat hostokatzeak bezain, eme, grazios eta nasai zelako. Hirugarrena, ziuntaz joan zen sasietara gordetzera, eta laugarrenak lehenaren espantuen azkena igurikatu zuen osoki desagertzeko. Kulebrinak ziren. Herrestari tran-

kilak. Luzaz egon nintzen oraino belarraren aitzinean, emakumearen amesgaizto arketipiko zaharrenaren oinarrizko sugeak ene neuronen artean zirurika zebiltzala.

Izturitzetik Aiherran zehar, Hazparnera iritsi nintzenean, oraindik ere sugeen ikusgarriaz gogoetatzean, bizkarrezurraren alde biak dar-dar nabaritzen nituen. Jean d'Amou misteriotsuak halaber ikara jaitsarazten zidan eta etxeratzea berantetsia nuen, gutunaren behereko zatiko enigmaren testuaz jabetzeko. Aspaldi zuen ez nuela inkesta baten eramatea onartu. Lanaren eta langabeziaren artean nenbilen kulunka, garai honetako kide frankoren antzera. Justuki, aurreko astean, nagusiak despeditu ninduen. Ene behin-behineko lan-kontratua ebaki zuen, uda zetorrela, noizbehinkako kontratupean gazte hotzak ene ordez hartzeko. Erratzaren kudeantza zen neure destinua. Alor horretan txapelduna nintzen, baina adin eta esperientzia gehiegi neukan, lan finko batean jarduteko. Epe laburreko lanaldiekin tematzen nintzen ondorioz, Baionako Herriko Garbitzaileetan sartzea amets. Lauzpabost aldiz ene kandidatura proposatu

nien, curriculum vitae aberatsa eta motibazio sakonak azalduz. Dagoeneko erantzunik gabe. Baina esperantza ez zitzaidan higatzen.

Zenbait aste libre banituen orduan. Jean d'Amouren arrangura arintzen saiatuko nintzen. Diru apurra baztertua nuen eta ikerketaren aitzakiaz Bilbon egunak pasatzeko xedea gozo zitzaidan. Banuen han adiskide bat. Deus erran gabe hartaz maitemindua nintzen. Laurogeiko hamarkadan, no future no fun, elkarrekin joaten ginen San Mames-era Athletic-en futbol partidaren ikustera, batean Bordeleren aurka, bestean Borussia Dortmund, Europa guztiaren kontra azkenean. Carmeni deituko nion, derrigorrez. Eta ez bakarrik zango-baloiaz hitz egiteko. Carmenek Bilbon gidatuko ninduen, Izturitzeko harpeetakoak ilunpean adina amultsuki.

Baionan bizi nintzen egoitzaren azpian ohiko eskalea gurutzatu nuen. Hamabost asteetako bizarra zeukan eta pobreziaren urrin zizkolatsua.

– Euro bat bazenuke?

– Baahaha... Oizu. Eta ongi ibili.

– Nitaz trufatzen zara ala? Ez al duzu ikusten zein egoeratan naizen? Ni, lau haurren aita eta

hargin enpresa bateko buruzagi ohia? Ongi ibili!!! Bazaizu bai.

– Lasai, gizon. Ez dut zure kolpatzeko xede izpirik. Barkatu.

Asaldatzen zihoakidan. Erasokor plantatu zen. Laidokari. Ez nuen konprenitzen zergatik justifikatu behar nuen. Etxeko atea bultzatu eta damu nuen, haserrekor bermatzen zitzaidanari euro soil bat emanik, hereneguneko seiehun eta berrogeita hamar franko zahar, ez baitzen naski gutxi.

Apartamenduan nintzen. Harpeko bisitaldiak baketua eta Jean d'Amouk manatu lanari ekiteko prest. Leihotik, lainoztatua, Larrunen betikotasuna azpimarratu nuen neurekiko. Ordenadorea piztu eta bainu-gelara zuzendu aitzin, musika-gailuan Michel Portalen *Minneapolis* KDa abiarazi nuen, Mozarten *Requiem*a bere poltsan sakatu ondoan.

# Requiem aeternam

Baionako ene egoitza-bulegoko borta danbarazten nuenean, aldi oroz iruditzen zitzaidan munduaren herots auhentsuari niola pasabidea ukatzen. Ongi nintzen etxean, ordenadorearen aitzinean, musika entzuten, orain Portalen KDko *Solitude* zatia bihikatzen zen lurreko ibairik erraldoiaren xuxurlak biderkatuz, eskuko telefonoa saihetsean, lanean, idazten edo adiskide urrunen gutunei erantzuten. Egia erran, ene urrutizkinak ez zuen maiz jotzen, eta ez nekien Jean d'Amouk nondik lortu zituen zenbakiak, ez bainizkion inori ematen. Misterioz misterio nenbilela onartzekoa nuen.

Durduzatu nintzen odolezko letraz idatzi *ageriko* hitza paper baten gainean atean dilingo begimentzean. Behiala jalgi nintzenean ez zen deus. Hausnarrean higatu nintzen eta esku kexatuaz orrialde zikindua kendu nuen, aspaldian ez zitzaidala horrelakorik agitu erantsuz. Mehatxuak ez nituen onartzen, xantaiak are gutxiago. Agian Jean d'Amouk manatu zidan ikerketarekin

kontuz ibiltzekoa nintzela nahi zidan esku anonimo batek seinalatu. Herri honetako kideen klandestino geratzeko gustuak arrabia hazi zidan. Aspertua nintzen biolentziaz eta gordagiz gordagi herrestatzeaz: *ageriko* zioten guztiek. Hamarkada batez egiaz, hainbat gauza aldatu ziren ene bizitzan, non ez nuen gehiago bilduma zehatzaren moldatzeko indarrik ere.

Alabaina Mauleko Peko Arruako sator-zuloa abandonatzea tokatu zitzaidan. Batzuetan behar nuen gogoa arras ihalozkatu Mauleko behialako bizimoduaren berriz itxuratzeko: Ovidiok hain ederki abestu zituen Tomes hartako egun gris euritsu zerrenda etengabea zetorkidan burura orduan. Itotzear nintzen. Bazterrak grisak ziren, hegatsak arbelez beltz, eta lainoak altxatzen zirenean, muinoen berdetasuna oldartzen zen, eztei deika. Ez nintzen ardura Maulera joaten, ez nuen han zeregin berezirik, ukan eduki nituen maitale apurrek ezabatua ninduketen beraien memoria zokiletarik. Alta, edonon zuberotarra edo Zuberoako dantzen nahiz kantoreen soinuak aditzean, bihotzean zimiko bat nabaritzen nuen. Ekialdearen nostalgiak sutzen ninduen, jakin

arren ez nintzela nehoiz herri hartakoa izaten ausartu. Neure balizko ausardia ez zen barkatuko ere. Arrotz nenbilen sakonki, ez bainuen lagunik, etxerik eta ondasunik bertan betiko errotzeko.

Jean d'Amouk utzi zidan Gexan Hiriarten gutuna eskuetan, burutazio sotiletan murgiltzen nintzen. Musikak ninduena akuilatzen? Ala betekizunaren bitxikeriak? Izturitzeko Neanderthalaren itzalak? Ez nerrakeen. Zena zela dokumentua irakurri nuen arretaz, eta orrialde azpian izkirione xehez idatzitakoak algara gordina bideratu zidan:

*Santa Engraziren giltza*
*Nahi dugu harrapatu,*
*Gu zaharturik gabiltza*
*Baina behar dugu batu.*

Zer da bordela hau?

Ele larriak isurtzen zitzaizkidan ahotik. Esku muturra ezpainetara hupatu nuen, solas likitsen uholdearen erasoak trabatzeko. Itzaina bezain hozki, sakreka lehertzen ahal nintzen, bistan

dena. Badakizu, idi parea lokatzean lupezten delarik, laboraria zainetan jartzen da eta jainko ona bera madarika dezake:

– Ala xokotzia! Katzo haugi hau hau! Deabrua sar balekio!!!

– Gaizo idiak, hire antzeko itzainarekin...

– Auher zikinak...

Zer da bordela hau?

Idien destinutik saihestu nintzen, enigmaren hondoa mirazkatzeko. Irakurri eta irakurri, ez zitzaidan ezer ateratzen. Menturaz, ordu horretan hobeko nukeen idi pare gurintsuaren aurrean hots ematen, enigma udalatzen baino. Baina ez nuen hautatzerik. Idiak ere noiztenka erotzen ziren, ibaira orgak atzean punpatzen zutelarik adibidez, kloskoan oso-osorik urperatzeko. Zutitu nintzen, leihora jo nuen eta Larrun nekusan berriz, eguzkipean, distiraz. Baiki, segitu nuen kolpearekiko hausnarrean, *zaharturik* zirela, ordea zergatik eta zerekin *batu behar* zuten, eta funtsean nor zen *gu* hori osatzen zuen taldeko kide? Galdera gehiegik larrutzen zidan izpiritu aldea. Ez nuen ihardukiko.

Leninen potreta ikusi nuen apalean. A bai Lenin! Tankotx, Mauleko komunista ohiaren hil aitzineko oparia prestuki zaintzen nuen, ez hainbeste Leninekiko errespetuz, baina Tankotxen oroimenez. Mauletik Baionaratzean komunista izateari uko egin nion, ez nuen gehiago partekatzeko xederik, hobe erranik ez nuen gehiago ezer inorekin banatzekorik. Hustua nintzen erabat. Hargatik, deitoratu nuen ene komunismo bereziaren galera intimoa. Asko. Negarrez. Bakartia bilakatu nintzen, bakarti autista eta kongenitala.

Malkotan urtu zitzaidan halaber ene abertzale sentimendua: ez nintzen nehoiz abertzale handi eta puntako gisa kontsideratua izan, baina bozkatzen, abertzale bozkatzen nuen. Presoen eta errefuxiatuen aldeko manifestaldietan parte har nezakeen, kopurua osatzeko baizik ez baldin zen ere, ikastolaren sostenguzko ekintza-bestetan eta lehen mailako ehortzetak ziruditen lantegi hersteen aurkako buru-agerraldi jendetsuetan. Une batetik hara ez nuen aburu politikorik, nik hainbat urtez neure ideiak sutsuki defendatu nituelarik. Lau lematara mugatutakoak.

Hiriratzearekin geriza hau ere zartatu zitzaidan.

Gexan Hiriarten koplak ez ninduen tirriatzen. Zenbait hilabete zuela gertatu zitzaidanaz burla egin nuen bat-batean: euskararen aldeko manifestaldi alimalea antolatu zuten Baionako karriketan, eta hiritik at nindoala, herenegungo kideak hiriaren bihotzera lehiatzen miretsi nituen. Ez nekien non gorde. Hitzordua ahantzia nuen erabat.

– Ser? Es al desu manifarako gogorik?

– Bai, bai, baina Arankuko ene ttantta xaharra hil izan da eta amarekin bisita egin behar diogu arratsalde huntan, hain zuzen.

– Bisitsa da horrela!

– Bahaa... suk errasu.

Iñakik urriki handiz agurtu ninduen. Ez zen konturatu haren mintza moldea zinominokatzen nuela, lotsarik gabe. Gainera, sekulan ez egin bekatuarekin tematu nintzen, gezurra borobiltzean. Arrautza bezain erronda zen baina egiazko gezurra. Ez neukan izebarik Arankun, justu euskararen aldeko manifestaldi erraldoiaren egunean zendu zenik gainera. Amak bai, joan

den aspaldian lekuak hustuak zituela, mundu krudel honetarik. Alta itxuraz ene burua salbatu nuen. Nola salatuko nion Iñakiri hitzordua burutik erabat ezabatu zitzaidala? Halatan, nioen nirekiko Larruni begira, errazago zen gezurrean ihalozkatzea, Gexan Hiriarten papaita argitzea baino.

Mailka ekitea erabaki nuen. Gogoeta barreiatzearen tentalditik urrunduz. Hau halaber ene defaut nagusia zen, izpiritua zimiztaren pare brentsatzen zitzaidan, hitz batek mila zekarzkidan, perpausak perpausen ondotik tipulak edo Ezpeletako piperrak nola kordelatuz, ideia baten hegitik beste baten holtz artera jauzi egiten nuen, erorketa mendratuko lukeen deus gabe. Halaz, bizitzaren hiru-laurdenak ametsetan higatuak nituen. Harritzen nintzen ordea, batetik, beti bizirik izateaz, eta bestetik, oraino zutik aitzinatzeaz. Ez nituen segur gutiziatzen, den mendrenik ere, karriketan gurutzatzen nituen jende aferatu estresatuak.

Bargo ezin aseen gisara jarduten zuten. Gose ziren. Diru, ohore, errespetu, larderia, nahikunde gose. Intimitatea herriko plazetan hedatzen

zuten eredugarria bailitzan. Denbora eskasaz pleinitzen ziren eta guztiz gehienek espantuka astean laurogei ordu baino gehiago egiten zutela aldarrikatzen zuten, espantuka, hogeita hamabost ordurentzat ordainduak izanez. Ez ziren ohartzen esplotatuak zirela, lihoaren zainetaraino. Harro ziren. Edo haiek ere, nik Iñakirekin hala, gezurretan jokatzen zuten nirekin, garbitzaile erratzarekin hogeita hamabost ordu ttanko egiten nituela errepikatzen nielarik. Zernahikeria itsuaren heroiak ziren. Alta, auhertzat kontsideratzen ninduten, langetua edo laguntza-soziala erdiesten banu bezala. Urrikal eta mespretxugarria nintzela ahoskatzearekin, konturatu nintzen, eni ere biktima planta sobera gustatzen zitzaidala.

Ez zuten desirarik, ez zuten pentsamendurik telebistetako aurkezleek edukiz beraien aurka formatatua salbu, Brasilen kontra (kauensos!) Zinedine Zidaneren ostiko bati esker irabazitako futbol partida bat aski zuten moralaren suspertzeko eta gobernu-buru trufakorrak begi onez berrikusteko, hauek ebasleak, manipulatzaileak eta erakaspen-emaile faltsuak zirela, denda-ja-

beek espero zuten Zinedine Zidaneren ttanttoa zela medio merkealdietan ikaragarriko sosa metatuko zutela, eta denek *la montée en puissance de l'équipe nationale* goraipatzen zuten. Saltzaile eta ostalarien diktaturapean genbiltzan. Baina Gexan Hiriarten enigmatik aldentzen ari nintzen beste behin. Burutazio zozoen ildotik nenbilen erantzunik kausitzen ez niolako euskaltzainaren semearen eskutik erdietsi kopla alta zuzen idatziari.

*Santa Engraziren giltza*
*Nahi dugu harrapatu,*
*Gu zaharturik gabiltza*
*Baina behar dugu batu.*

Zer da bordela hau?

Michel Portalen KDari bultzada bat eman nion. Entzuna nuen Baionan Kepa Junkerarekin batera jotzen, eta graziazko unea dastatu nuela sinestera heldua nintzen. Portalek lagunduko ninduen. Jadanik lagundu ninduen, tristezia sakonaren atzaparretarik eskapatzen, beraz, orain-dik ere lagunduko ninduen. Lelotzen ari nintzen.

Hiztegiaren pobretzeaz damutzen nindoan. Paris-Texas. Minneapolis. Midnight Train. Non neukan Thelonius Monken album zaharra? Maule eta Baiona artean galdu nuen. Bilbon, beharbada, Monken konpaktua eros nezakeen, euria jaits ahala irudikatzen nuen musikaren aditzeko, ohe zokoan kuzkur.

Program. Repeat. Play.

Ordenadorea piztu eta soinu dildirariak sosegatu ninduen. Euskaltzaindiaren gunea nuen helburu. Enigma iluna baztertu eta Iparraldeko lau euskaltzainez guztia ikasiko nuen denbora laburrez, biharamunean Bilbora abiatzea xede nuelako. Ez ote zidan Jean d'Amou misteriotsuak erran egoera larria zela uste zuela, aitaren eta bere adiskideen osagarria ez baitzen hoberenetarik. Alabaina, ehun urte hurbiletan ez zen mirakulurik, erantsi nuen neurekiko www.euskaltzaindia.com deitzean OK klikatzen nuela.

Hau ere aipagarria zen. Sei-zazpi urte barne jakitateaz eta beste hainbat debaldeko gauzez jabetzeko gure moldea arras aldatu zen, internetaren bidez. Ordurarte ogitartekoa genuen klikatzen, orain aldiz orrialde baten irekitzeko *search-*

*bilatu-suchen* koadrotxoen gainean klikatu eta munduan sartzen gara, etxetik kantitu gabe. Nik ere ordenadorea erosi nuen eta erraietan zeukan *adsl* izeneko Arianaren haria. Egunkariak *online* irakurtzen genituen jagoitik, liburuak manatzen, filmak ikusten eta musikak deskargatzen. Sarrera eskubideak, hilabetean hogei euro bakarrik kostatzen zuen. Hargatik Mozarten, Beethovenen eta Portalen diskoak diru idorrez eskuratzen narraikan.

Euskaltzaindiaren atarian nengoen. Ongi etorri hitzean gelditu nintzen. Xerkatzen nuen euskaltzainen zerrenda eta, aldi berdinean, Iparraldeko euskaltzain urgazleena. Asteko berriak baizik ez nituen aurkitu, eta onomastika, etnolinguistika, gramatika eta arautegirako leihotxoetan ez nuela ezer aurkituko susmatzen nuen. Saiatu nintzen behin eta bietan, aldion Gexan Hiriarten izenarekin. Ez zegoen erantzunik. Euskaltzaindiko gune zibernetikoan ez nukeen zorionik. Orduan ideia argitsua jazarri zitzaidan: behar nuen Euskaltzaindiak Baionan zeukan egoitzara lehiatu. Arratsaldeko sei t’erdiak ziren.

Karrikan nintzen, kasik lasterka, Pannecau zubitik merkatuaren saihetsera, Orbe zabaletik, Thiers-eraino abian. Euskaltzaindiaren etxe zolan, txilintxa jo nuen. Atea ireki zen. Lehen estaira heldu nintzen, zanpa-zanpa. Borta bulkatu eta berehala emazte bat ikusi nuen:

– Hau al da Iparraldeko Euskaltzaindiaren bulegoa?

– Bai. Hala da.

– Idazkaria zara?

– Ez, garbitzailea. Badakizu seietan badoaz hemen lanean ari direnak, lana deitzen ahal baldin bazaio egun osoa jarririk eta paperez inguratua ekiteari.

Irri gordinaz lehertu zen garbitzailea. Amalia Rodriguezen abesti adituegi bat oihukatuz lanari bihurtu zitzaion. Ez nintzen biziki harro eta ez nuen kantatzeko den mendreneko gutiziarik. Ametsetan higatzeko ordez, Izturitzetik segidan hona zuzendu baldin banintz, norbait atzemanen nuen. Liburutegiko apalen artetik paseatu nintzen, deus ez bailitzan, aldizkari bat edo beste hostokatuz, garbitzailea zelatari zegokidala.

– Hobe zenuke bihar etortzea. Bulegoa bederatzietan irekitzen dute. Eta aski goiz baldin bazatoz, kafea eskainiko dizute.

– Bihar, gaixoa, ez nizate hemen gaindi.

– Ez duzu eskubiderik leku honetan kutzukan ibiltzeko. Zato bihar.

– Bihar ezin dudala erran dizut. Justu bizpalau xehetasun behar ditut.

– Kanpora, bestela polizia deituko dut.

Emaztea kexatzen ari zen. Farra gogoa neukan. Poliziari telefonatzen baldin bazion, zein heinetaraino sinesgarria zatekeen galdezka nengoen. Alabaina zer zen ebastekorik Euskaltzaindiaren egoitzan, ez zen dirurik, ez zen urrezko girgilik, salbu errautsez emokatu eta desagertzen zihoan mintzaira bateko hiztegi eta gramatika zaharkituak. Desagertuak desagertu aharrausikatuko zukeen beilako poliziak:

– Hizkuntza bat galdu, hamar mila aurkitu.

– Agian norbaitek ETA erakundearen agiri likitsetako perpaus sibilino zenbaiten ulertzeko Lhanderena premiazkoa zuen. Arta berezia emanen diogu afera horri. Igor ditzagun gure gizonik hoberenak Thiers karrikara...

Elkarrizketa asmatzen nenbilen. Potentziala erabiltzen nuen, baldintza eta subjuntiboa bezain aise. Imajinazioa zalu zebilkidala aitor dut, alor honetan eta demagun sentimenduen alorrean ere. Emaztea, erratza gorarik, atzetik neukan eta ez zuen hark txantxetarako potretik. Telefonoari hurbildu zitzaion eta garatzen zihoan tentsioa jabaltzen saiatu nintzen:

– Ez naiz ohoina. Xehetasun bat nahi dut. Iparraldeko lau euskaltzainez.

– Berdin zait. Bulegoa hertsia denean, hertsia da.

Telefonoaren besagia belarrira eraman zuen.

Ilki nintzen, buztana besapean, anaia txikiak lerrakeen eran.

Kaskoa apal, soa ezkel eta bihotza hilik Pannecauko neure etxera nindoala, mugikorrak jo zuen. Jean d'Amou zitekeen. Zenbaki gordea zen. Zer mila deabru zen hainbeste sekretu! Haserrea nigan igotzen nabaritzen nuen, telefonoaren foltsu berdea zapatzen nuelarik.

– Baai.

– Jean d'Amou naiz. Mintzatu gara Izturitzen duela zenbait ordu. Enigma argitu ote duzu?

– Ez. Suerterik ez dut.

– Ideiarik ez daukat nik ere. Santa Engrazia kapera anitz bada Euskal Herrian. Ikertu beharko dira. Edo bahitu dituzte.

– Bahitu? –trufakor asaldatu nintzaion–. Dirugalderik ukan al duzu?

– Oraindik ez.

– Eta uste duzu diru-galde bat ukanen duzula? Hasteko eta bat, zergatik zuk? Bahitzaileek ezagutzen zaituztete? Ala konplizeetarik zara?

– Arren, arren, isil zaitez. Ez dakit ezer. Soilik neure aita ez dela Bilbotik itzuli iragan ostegunean. Geroztik ez dut berririk. Bere hiru kideez are gutxiago.

– Zein dira hiru horiek?

– Ez dakizu nor diren Iparraldeko euskaltzainak ala?

– Nola nakike? Politika ez zait asko interesatzen.

– Ez dut ulertzen aitak, zeozer gertatzen baldin bazitzaion, derrigorrez zuk ikerketa eramatea zergatik nahi zuen.

Hitz-multzoa bortizki mailukatu zuen Jean d'Amouk. Benetako axolagabea nintzen. Euskal-

dun zintzo-plantako behar-bezalako-sano batek gauza horiek jakitekoak zituen. Kotxinos. Redios. Gizona larritzen zihoan. Kaguenlaletxe marmarikatu ondoan, hira bulta jabaldu zitzaion. Agertu zidan Gexan Hiriarten 4Lan bazebiltzala Bilbora hilabetean behin, Pierre d'Oihenart, Albert Labruquere eta Manex Bergeret jaun apezak.

– Zerbait baldin baduzu, iepako bat egidazu. Bihartik aitzina Bilbon izanen naiz. Ene urrutizkinak nazioarterako ere balio du.

Bi-bi-bi-bi...

Errumaniatik etorri familia bateko hiru gizonek ahaire tziganak airarazten zituztela, aurpegiak gaztain garbotsak bezain huts lanetik zetozen jendeak bozkariatu asmoz, Orbe karrikatik hits lerratzean, hondar aukera irudikatu nuen. Torrealdairen 1977 eta 1997ko *Euskal Kultura Gaur* liburu marduletan ager zitezkeen lau euskaltzain horien argazkiak eta biografiarekiko argitasunak. Etxea berantetsia nuen bat-batean, eta ez nintzen nehoiz aski laster tematzen.

Bost Kantoien plaza zeharkatzean, gogoa hegalari zebilkidala, nonbaitetik ezagutzen nuen ahotsak lur harrarazi zidan. Marengo zubiaren

norabidera begiratzean, Erika ikusi nuen, ile beltzak haizean eta matelak amodiozko arrosa gorri:

– Nora hoa Amaia?

– Barka ezan, presatua nun egun.

– Arren, haugi garagardo baten edatera. Ordaintzen denat. Bazekina maite hautala orain-dik?

– Abandonatu eta erraz maitatzen ahal naun, segurki eta halere.

Haserrea sabelpetik zintzurrean gora igotzen sentitzen nuen. Erika konturatu zen uholdearen mehatxuaz, eta sumendiaren burbuilen geldiarazteko musu luze eta hezea eman zidan ezpainetan. Eskutik heltzen ninduen. Jendearen txutxumutxuak itxuratu nituen eta ezinegonaren ezpata zorrotzak larrantzi ninduen:

– Otoi, Erika, ez karrikaren erdian.

– Zergatik ez guk? So egizan hantxetako bikote hura, badun oren erdi bat elkarri musuka ari direla.

– Ez dun berdin.

– Gizon eta emaztea direlako?

– Bai.

– Lesbiana haiz, ni erdi naizen moduan...

– Baiki, baina hobe isildurik, ez?

– Egiazko euskalduna haiz: pilota bota eta xixtera kuku. Egin eta ez erran. Ezkuta eta guztia ilunpetik kudea.

Txapa botatzen zidan Erikak. Begietara so nengokion. Irri samurra zeukan. Zur gelditu nintzen. Kafea partekatu genuen. Biharamunean Bilbora nindoala erran nion, denbora gutxi neukala, Torrealdairen liburuak araka, Carmeni telefona eta zakua apailatzeko. Buruona kurruskatzen zidan kasua azaltzean, aferaren tragikomikotasuna azpimarratu nion. Eta enigma? Erikak burlarako tirria zuen:

– Hi haiz bai benetako enigma.

– Ni? Eta non dun gizona?

– Stanley? Lekua hustu zinan aspalditik. Bi urteko alaba bat badinat, nihaurk altxatzen dudana. Duela bi hilabete Baionara etorri gaitun bizitzera, amarengana. Espero ninan nonbait hire ikustea. Eta hara.

– Eta hara.

Arrazoi zuen Emir Kusturicak: bizitza mirakulu bat zen, eta enigma bat aldi berean: katu bel-

tzak eta katu zuriak *Underground* dantzan zebiltzan, denak nahas. Funtsean, nioen, gure historiaren harpe misteriotsuenetik, gizonekin aspertzen zenean emazteekin ibiltzea laket zitzaion Erika maita nezakeela ohartzen nintzen. Baina Erika jeloskorregia zen. Urte bi zuela, bere amante surflari baten atzetik ibilarazi ninduen, neskatxak, berarekin ez zegoenean mutikoak zer egiten zuen jakin nahi zuelako. Orduan zelako amanteak nabala ukaldi batez larrutu ninduen eta geroztik daramat seduzitzea debekatzen didan ezpain aldean urrakoaren hatz itsusi bat.

Etxera nindoala, orbaina ferekatuz, bihotza burua bezain arin, Gexan Hiriart eta koadrila alegera batekiko argitasunik gabe ordea, mantra ahantzia bailitzan errepikatzen:

– Ez dut ene ametsetako anderea gurutzatu arteraino etsiko.

– Ageriko –ihardesten zidan oihartzunak.

# Kyrie

Tunel luzearen puntan, begiak itsutu zizkidan argiak. Bilbora heltzen ari ginen. Autobuseko jendea higitzen hasi zen, nork bere liburua plegatzen zuela edo walkmanaren hariak belarritik kentzen. Harrigarria zitzaidan ilunpetik jaukitze hori. Ez nuen bat ere gogoko tunelaren azpian pasatzea, zer nahi gerta zitekeen eta, egia erran, klaustrofoboa nintzen. Autobidea utzi genuen eta han, askaren zolan, Bilbo hedatzen zitzaigun. Tupinari beha egon nintzaion: noiztenka zartatzen zen sumendi baten ahoa ematen zuen Hirian nindaikeen laster.

Artean, Pesako autobusak Basurtun utzi nindu en eta, istant batez bazterrak aztertzen egonik, tranbia berdea geldoan sumatu bezain laster hara lehiatu nintzen, baserritar arruntaren antzera txartela hartu nuen, txartelik gabe bidaiatzeko ene xedea hoztu baitzuen larderiatsu ondoratu zitzaidan txoferrak:

– Es fácil...

– ¿Cómo que es fácil?

– Así.

– Ah, sí... Perdona.

Tranbiaren linea zoragarri zitzaidan eta eskertzen nuen Jean d'Amou, Bilboratzeko aitzakia eskaini zidalako. Halaz, Nerbioi ibaiaren ertzetik gindoazela, garai batean eztabaidatutako Guggenheim eraikuntza miretsi nuen eguzki arraioekin jostari, eta hondarrean Arriaga plazara heldu nintzen.

Carmen aiduru neukan El Tilo ostatuan.

Bazuen mende laurdena ez nuela Carmen ikusi. Gexan Hiriart desagertzearen enigmak ninduen berriro Bilbora haiatzen; bihotza plazerez hantzen zitzaidan. Jada iragan izoztua ziruditen denboretan, elkarrekin San Mamesera gindoazen futbol partidetara eta, ondotik, Bilbo by night aztalkatzen genuen, hordimenaren mugetan. Ez dakit zergatik hain Athletic-zalea nintzen orduan: eder aurkitzen nuen bilbotarren jokoa, batzuetan eskualdeko burdinoletako langileen antzera bortitza zen arren. Zuri-gorriak zelaiaren berdetasunean lehiatzen ziren, xinaurri, baloiaren atzetik, eta azkenean, irabazi edo gal, jostalarien kemena ohargarria zen. Dena ematen

zuten, faltsukeriarik gabe. Gaurkoan, taldeak ez zuen aurrekoen distirarik: hor ziren egundaino sailkapenen sabel malguetan.

Carmenek behin, Parisko txinatar auzoan nengoela, ohe kantoian ezarri nuen Julen Guerreroren argazki izenpetua bidali zidan. Eta telebistaren bidez jakin nuen Goikoetxeak hanka nola hautsi zion Maradona gaizoari. Iribarrek ez zuen irribarrerik eta Lizarazuk ez zuen Athleticen iraun, Bayern-era deitua izan zelako, D-Mark ozentsuen truke. Futbolarien destinua zen: milioiak sakelaratzen zituzten, karrera laburra zutelako aitzakiaz. Justifikazioa bidegabekoa zitzaidan, langile arrunten fabriketako ekina motza bilakatua zen garaietan eta nehork ez zielako futbolarien edo goi-mailako kirolarien soldatarik zilegitzen.

Burutazioz burutazio akitzen nintzen. Tranbia barneko ikasle gazteen arramantza handiak adinekoak dudarazi zituen. Zakua bizkarreratu nuen eta ene aldian jaitsi nintzen Arriagan. Bilboko airearen usainak sudurra kilikatu zidan. Airearen garbitasun freskoak ukitu ninduen. Lantzerra ari zuen emeki. Uda hasiera izanagatik ez

zen zeru urdin izpirik ageri. Menturaz tupinaren hondoan kausitzeak zuen irudipena hazten. Beharbada egiazki zerua grisa zen Bilbon. Ez nintzen oroit sekula ortzi garbirik hemen dastaturik. Alde guztiak mirazkatu nituen: non zegoen Carmen? Nolakoa zen? Mende latzek eraginik ukan ote zuten emaztearen edertasunarekiko? Iparraldeko euskaltzainen aztarnarik atzemanen nuena Bilbon? Nondik nintzen abiatzekoa?

Eskakizunek kaskoa iraultzen zidaten. Poltsatik ateratzen zitzaizkidan paperak ozkan jarri nituen. Antzokiaren aurreko plaza zeharkatu nuen, eta karrikaz bestaldeko El Tilo-n aterpetu nintzen. Herabe. Mozarten *Requiema* aditzen zen. Zerbitzariak, itsu bailitzan begiratu zidan. Carmen han zegoen, ostatu zokoan, barrez eta batbatean haren presentziak munduaren ausentzia bete zuen. Carmenengana presatu nintzenean, sosegatu zen pixka bat jabe miopea. Carmen arras formalki agurtu nuen, bostekoak hamar, soak herrestatu ziren, elkarren besoetara erortzen ginela. Carmenen soin epelak neurea berotu zuen. Minutu apurrak egon ginen, horrela, besarka eta tinko.

– Bihotz!

– Carmen, ez haiz aldatu.

– Urteak pasatu ditun. Uste ninan betiko arroztuak ginela.

– Nola bada? Egunero hitaz pentsatu dinat. Horrek salbatu nauela iruditzen zaidan. Ez haiz aldatu.

– Oporretan haiz?

– Bai eta ez. Inkesta bitxi bat argitzeko dinat, Iparraldeko lau euskaltzain desagertu omen direlako, hatzik utzi gabe.

– Bilbon?

Neskak kafea ordaindu zuen eta oldetu berri zen gizon aferagile kokolo talde baten erditik zulatuz jalgi ginen. Karrikan, berriz ere, eskuak eskuz bete ziren. Autoak zirurikan zebiltzan eta Arriaga antzokiko plazan jendeak multzoan zeuden. Arratsaldeko lauretan ez ziren arauz afixetan aipaturiko *Hamlet* antzerkirako etorriak, agian soilik billeteak hartzera, edo hor juntatzen ziren gazteak, ama familiakoak, erretretatuak, Kasko Zaharrean barreiatu baino lehen.

Plazako eskaileretan, argitzen ez zuen zaiola baten azpian ttottotu ginen eta ene zereginaren

nondik norakoak azaldu nizkion Carmeni. Entzuten ninduen eztiki. Galde bat egiten zidan noiztenka. Pozik ihardesten nion, gaiaz orain arte ikasia neuretako ere laburbilduz: goizean hartu nuen trena Baionan, gero Hendaian topoa eta Donostian Transeuskadiexpress konpainiako autobusean sartu nintzen. Irizar markakoa zen, debaldezkoak zirela jakin arren detaileak estimatzen nituen, Peloponesoa trabeskatzeko KTEL greziar enpresak erabiltzen zituenak bezalakoa. Beratasunaren ausikiak min egin zidan orduan. Eguna bidaia zitzaidan. Iparraldeko Getaria aldean, treneko leihotik itsasoa nekusala, zakuan zinpurtu notak berriz irakurtzea erabaki nuen, Hendaian Eusko Trenak partitzen ziren kaiertzera jauzi egin baino lehen. Txartela eskuratu nuenean sentituriko bidaiariaren bozkario arraroaz mintzatu nintzaion Carmeni.

Aingeru aireaz so egiten zidan.

Halaz Gexan Hiriarten 4L zaharkituan hiru apez gehiago bazebiltzan. Manex Bergeret famaz ezagutzen nuen. Teologian lizentziatua eta zenbait urtez Erroman egona zen, dogmaren zaindari. Bi liburuxka publikatu zituen, bata eus-

kal aditzaren ahoskeraz eta bestea ipuin herrikoiez osatua. Ipuinei eta euskarari beraien lizunkeria karga kendu zieten. Sarako Liburuen Bazkoko Ferian omenaldi bat egin zitzaion, Larrungo harri peza alimalea oparituz. Ezin eramanez ari zela, ahaaa, ahaaa, euskaldun gazteen borrokara animatzeko diskurtso sutsua eskaini zuen, gerla oihuak are bitxiago zirela, hilabete eskasean, erakunde armatuak tregoa permanentea iragarria zuelarik.

Albert Labruquere eta Pierre d'Oihenartek ez zuten deus argitaratu, ez zuten deus idatzi, salbu igandeetako mezetako predikuak. Azken urteotan, predikuak erdaraz izkiriatzen eta oihukatzen zituztela azpimarra dezaket. Baina berdin zitzaidan, eliza ez baitzen nehoiz izan batzuek aldarrikatzen zuten Euskararen Etxea. Hendaiako Nazioarteko Zubia pasatzean irriz karkailaka lehertu nintzen. *Gara* hostokatzen ari zen gizon batek burua altxatu zuen. Zerk zidan irri gogo gehien ematen? Nazioarteko Zubitik incognito lerratzeak ala bi euskaltzain hauen obragabekeriak? Egiaz, Lafitteren seme kuttunak ziren biak, eta aita sinbolikoak Euskaltzaindiaren bi ttotto-

gia aske atxiki zizkien, aitaren segida hartzea eder zelako Euskal Herrian, benetako edo alegiazko aita, berdin zen.

Carmen bermatu zen. Behatzaz Arriaga haraindian zegoen Lapiko kafetegia erakutsi zidan.

– Zeozer atsegin huke?

– Hire potentzialaz zoratzen naun. Zergatik ez.

– Arren, goazen...

Carmenen itzaletik, arratsalde pasa zebiltzan bilbaina panpoxen artetik sigi-sagaz, libre zen mahai batean plantatu ginen. Kafetegi hertsia zen eta menturaz bizkar zakuaz andere zenbait kuskatu nituzkeen. Nehork ez zuen, ezpainen plegu sumaezinaz aparte, haserre marrakarik zinominokatu, Iparraldean den mendreneko nahigabeko joaldiaren ondotik laido-erauntsia zetorrelarik. Herriaren iparra eta hegoa erkatzen nituelarik, ondorioztapenak abandonatu behar izan nituen, ene eskuko madarikatuak jo zuelako. Punpa bat egin nuen:

– Bilbon zarela badakit.

Jean d’Amouren ahotsa zen.

– Utz nazazu bakean istant bat. Zure aitaren urratsetarik nabil baratx-baratxa, eta zuk deiez dei gaitzeko presioa jartzen didazu. Ez noa aski laster ala?

– Ez dut horrelakorik ez erran eta ez pentsatu, lasai.

– Orduan zer?

– Zure aingeru begiralea naiz...

– Zu?

Plexus eguzkitsuaren barrenetik hatsa hartu nuen: relax. Hegoaldean ginen. Ez ninduen arauz euskaltzain baten ondorengo totelak trabatuko, Carmen amainatzen ari nintzenean. Bizkitartean, jendeak goraki elekatzen ziren karriketan, orroaz, irudi zuen libreago Hegoaldean bizi zirela, itxuraz baizik ez baldin bazen ere. Hemen, etxeak goizetik arratsera eraikitzen ziren eta bideak urratzen. Hiriak biztanleentzat moldatzen ziren plaza eta baratze zabalekin, haurrak ohoratzen ziren, aski zen portura irekitzen zen Bermeoko plazari so egotea: ama familiako gazteek eta gerla guztiak pairatutako amona zainartek umeak karroza erraldoietan paseatzen zituzten, zarataz eta jendarteko nahaspila izerditsuaz

arranguratzeke. Hendaian muga pasatu bezain laster, Iparraldeko isiltasun karroinduak gohaina sortzen zidan, airea eta hatsa bahitzen bailigun, urrats oroz. Carmen, gogoetari antzu nenbilelakoaz aprobetxatu zen galdatzeko:

– Eta Gexan Hiriat nor zen?

– Gexan Hiriart apezaren semeak deitu nindinan. Izturitzeko harpean geninan junta. Ilunpeaz baliatu zunan bere aferaren azaltzeko. Uste dinat, laurak iragan ostegunean Bilbora jin eta ez zirela sekula Iparraldera itzuli. Beharbada ordu honetan Benidormen ditun, bakoitza emagaldu bederarekin ohean, larrua edo txülüla jotzen.

– Zein izan da Gexan Hiriarten ekarpena Euskal Literaturari?

– Handia. Jesus eta erlijio ezberdinetako profetek bezala, ez din ezer izkiriatu. Bere gaia ahozkotasuna zunan. Ahozkoa idatzizkoa ez dela kontuan edukiz, normala dun bere izenarekiko libururik ez harrapatzea Euskal Herriko bost hiriburuetako megadendetan. Mischkatonic-eko unibertsitateko honoris causa titulu ohoretsua erdietsi zinan bi urte zuela eta, bizkaitar batek

gainditu ez balu, gaur Euskaltzaindiko lehendakari zukenan.

Carmenek kafe katilua ezpainetaratu zuen. Keinuaren sentsualtasuna uhin zitzaidan. Begiak ezpainetarik lepora bultzatu nituen eta agerian zeuzkan bular uren banaguneak irentsi ninduen, itsasoak bezain segur. Ustez aspaldian zendutako ene Carmenenganako desirak zitzikatu ninduen. Zer ari nintzen zaharkeria harrotzen, ustel usaina zerien aditz maingukariak haiatzen, laster batean behin betiko ezabatuko zen euskalki baten geroaz axolatzen, amodioa hor neukalarik, eskumenean, aitzinean, aiduru, menturaz, agian, lau euskaltzainak pikutara joan daitezela, oro bat zitzaidan, Carmen nahi nuen. Haren ohezokoan zentzea amets neukan bat-batean. Adiskidearen ahotsak iltzatu ninduen.

– Goazen.

– Non bizi haiz orain?

– Barrenkalen.

Munduak jasan zuen permiar aroko laugarren suntsiketaren aurrekoa zirudien garaian ere Barrenkalen kokatzen zen Carmen. Etxean izanen nintzen beraz. Ez nuen leku askoren beharrik eta

ez nintzen asetzeko zaila: gauaren minean 666 taldearen soinu kolpekatuak hautematean ginkas godalet bat aski zitzaidan eta, goizean jaikitzean, kafea, belea bezain beltz. Amodio inkau bat eta egunkariak, egunero, horoskopoaren irakurtzeko. *Egunkaria* preseski itxi eta umezurztu ginen. Bide nabar *Egunkaria*ren denboran zinez pena ukan nuen Ines Intxaustiren kronikak geldi-tu zirenean, Inesen bitriolezko komentarioekin ez bait zen telebista beharrik, alajainkoa! Carmenek ere Ines Intxaustiren zutabeak irensten zituen, idazlearen ohar mikatz bezain ausartak eta ondotik barkamen eta damuak. Gure irudikoa zen Ines: ez zekien zer nahi zuen eta duda salbagarrian bermatzen zitzaion ele-sail maitagarria.

Baina ezer ez zen gaur herenegun bezala.

Puskak sofaren gainean pausatu nituen eta dokumentuekilako poltsa Carmenen laneko mahaiaren izkinan. KD irakurgailuan behin adituriko musika bat ezarri zuen: gaztelerazko hitzek gela ito zuten eta hitz bakoitzak malko bat jauzarazten zidan, *piensa en mí cuando sufras, cuando llores también piensa en mí, cuando quieras qui-*

*tarme la vida, no la quiero para nada, para nada me sirve sin ti...* Uretan bukatu nuen. Carmenen besoetan nintzen ondikotz, negarrez hipaka, elkar ikusi gabe mortu higatu mende laurdena deitoratzen, bizitzako zulo zitzaidala errepikatzen. Eta hala zen, zirkuitu-ebaketak iraunen zuen oraino Jean d'Amouk ez balit bere aita apezaren xerkatzea manatu.

Barkaezina nintzela sentitzen nuen. Carmen ere hala zen. Egun batez Carmenek ene telefono deiak hozki eta gutunak erantzunez huts hartzen zituela konturatu nintzenean, harremanaren moztea erabaki nuen, ez idatzi eta ez deituz. Alta une zoriontsu anitz bihikatuak genituen batera, han edo hemen, eztitasun franko, desertuetarako bidaia zenbait, zinema gaualdiak eta noizbait haria hautsi zen. Zergatik eta nola ezin jakin. Banekien hein batetik aitzina jendeak aspertzen eta nardatzen nituela, zafla zein ostikoka neure inarrosteko gutizia biolentoa sortzen zitzaien, isila eta itxuraz lasaia nintzelako, apatia leporatzen baitzidaten, alabaina, bizitza hau gerla bat zela deiadarkatzen zuten beraien gaiztakeria eta enekiko mespretxu errazaren justifi-

katzeko, eta orobat Baionan Erikari nioenez, ez nintzen ederra, ez behintzat Nicole Kidman bezainbat. Orduan erabaki nuen, ez gizonek eta are gutxiago emazteek ez nindezaketela maita. Lagun bat bilatzeko ekina bertan behera laga eta hondar urteetan neure gustuko bizitza ideal bat eraman nuela iruditzen zitzaidala murmuratu nion Carmeni.

– Oroitzen naun Luz Casalen abestia nongo juke-boxean entzuten genuen.

– Arrosapen. Bulegoak eraiki ditizten bertan. Ontziolarik ez dun gehiago. Iraganaz mahai-arrasa egin diten. Luz Casal ezartzen dudanean hitaz pentsatzen dinat. Atzo arte, esperantzarik gabe.

– Mentsak gaitun, beldur eroa pairatzen dinagu, kanpoko faktore zozoak sartzen ditun gure harremanen nahastera, eta horrela galtzen gaitun. Ba ote dun ordenadorerik?

– Noskiren noski. Nola nahi dun idatz dezadan bestela, lapitzaz eta tuaz Izturitzeko harpeetako freelance artista haien gisara?

Carmen biluzi zen, eleka eta izpiritua alha narraikan artean. Ordenadorearen aldameneko ohar-taulan bilatzen nituen lau euskaltzainen po-

tretak ixkilimatu nituen. Derrepentean Jack Malone pottoloa nintzena? Ala Eva Maria Prohacek? Agian Lili Rush? Ez, soilik Amaia Ezpeldoi nintzen, Gexan Hiriart apezaren semeak ikertze-traholetara aurtikia eta laster gormandizaz Carmenekin oheratuko zena, munduaren tristezia izugarriaren ahanzteko.

– Plaza Barrian dun, ez, Euskaltzaindiaren egoitza nagusia?

– Bai. Joanen gaitun gero. Haugi. Haugi laster ez hadila luza. Nahi haut berehala.

– Eta zer ordutan hersten da?

– Badinagu astia. Haugi. Sutan niagon.

Ganbarako atearen betean zegoen Carmen. Irri xehea zeukan ezpainetan. Bularrak kulunka zebilzkion, sabela borobil bezain lauz eta sabelpeko oihaneko ileak plazerez zut, aterpetzen zuten harpearen gerizatzeko. Protojendea nintzen oraino. Betazalak apaldu eta itsu mandoka Carmenengana lehiatu nintzen. Ezpainak iledi ilunaren alde gainean pausatu nituen. Jaisten eta jaisten ari zitzaidan mihia, kolore berdineko kukurusta zoratua kausitu zueneraino. Besoetan tinkatzen nuen emaztea auhen, hasperen eta es-

tiraz husten zihoan. Kendu nuen nik ere arropa soberakina eta Carmenen burua ahurrean atxikiz, belaunikarazi nuen, neure harri zuloak halaber airea eskatzen zuelako.

Bitxiki loak eraman gintuen. Pausatuak, barkatuak eta bizitzarako animatuak sentitzen ginen. Kasik gaua zen amodio-ondoaren aztoramendutik iratzarri ginenean.

– Carmen, zer ordu da?

– Arratsaldeko zortziak. Ona zela gure saltsa! Hi haiz neurea. Eta ni, hirea. Betiko.

– Zer betiko? Biharko. Etziko. Datorren asteko. Baina betiko?

– Amets egin dezakenat ez?

– Uste duna amets erromantikoen tenorean garela? Euskaltzaindia zerratua dukeen eta xehetasun baliosak galduko ditinat.

– Arrats honetan mintzaldi bat badun. Beraz egoitza zabalik izanen dun. Arren, dutxara eta alde hamendik!

Barrenkaletik Plaza Barria ez zen urrun. Michel Labeguerie karrikatxotik herrestatu ginen, arkupez hornitu enparantza karratura. Erdiguneko baratzetxoen artetik paseatzen ziren jendeak,

ostatu batetik bestera, pipa azalak tuka lurrera botaz, laido eta karkara ozenka. Lan eguna bukatua zuten gehienek, eta afaldu aitzin pintxoak eta basoak hartzen zituzten. Carmenek zuzenka Euskaltzaindiaren aixolbeko bortara gidatu ninduen. Marmolezko ezkaratz batean aurkitu ginen eta, zutoin baten itzalaz profitatuz, arrats hartako gure azken musua zatekeena oparitu genion elkarri. Euskal munduan arrazoizko heina atxikitzen jakitekoa zen, batez ere *cuando llores cuando sufras*...

Igandez jantzitako jende aberatsak, bakarka, taldean edo bikotean azaltzen segitzen genituen. Denek kartoizko paper puxinka zuria zeramaten eskuan. Gonbidapen ofiziala. Mutiko kasko gorri bati buruz lasterka abiatu zen Carmen. Belarrira mintzo zitzaion. Bihotzean zimiko bat nabaritu nuen Carmenen ezpainen eta gizon gaztearen belarriak hain hurbil susmatzean. Jeloskor nintzen ala? Emazte adiskidea itzuli zitzaidan, jukutria eder bat lortu bailuan:

– Prontxok iragan osteguneko bilkurako oharren bilduma utziko zidan. Ez din eskubiderik, baina guztiak beste ausagailuetan dabiltzanez,

horra giltza! Jendea konferentzia gelan plantatuko denean joanen gaitun.

– Süper, genial, prima, ejerra haiz enetako.

– Eskerrak Prontxori...

Carmenen ahotsa ezti zitzaidan. Iparraldeko Euskaltzaindiko ordezkaritza gorputz-zaindari batez inguratua Jean Martin Gorringo ahurtiar apeza aitzinatzen jarraitu genuen, atzetik Bilboko Udaletxeko Kultura Zerbitzuko arduraduna eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua zeuzkala. Ohore handia egiten zioten. Agian, ez zuen izkiriatuz euskara sobera higatu eta, horregatik zuen ohorea merezi. Carmenen papoaldean kuzkurtu nintzen, Kultura sailburua eriaz erakusten niola.

– Eroa haiz ala? Apal ezan behatz hori. Zer dela eta?

– Behin ETB1en kalakari batzuk independentzia gaiaz ari ziren emankizun batean, independentzian sinesten zuenez galdeari erantzunez, Kultura sailburuaren irri osasuntsuaren ozenaz gozaturik gogoratzen naun. Behar ote zionat zuzenka erran haren agerpena gustatu zitzaidala?

– Amaia! Hago lasai. Ez ezanala kalapitarik pitz. Tregoa dinagu. Nor da Jean Martin Gorringo hori?

– Hau baiki, egiazko jakintsua dela! Ez din nehoiz perpaus bakar bat euskaraz papereratu, baina beti erdaraz ari izan dun euskararen gainean, enfin, azpian edo saihetsean, nahi dunanean. Euskaldunak ez ditun alfabetatuak, euskaldun zaharrak dionat, eta tetele-herrestontzat euskaraz idaztea bargoei gaxura ematea dela deklaratu zinan noizbait gure astekari abertzaleren batean. Eta euskaldun berriek, hizkuntza doi-doia astokatzen dutenez, ez lukete, beti jaun honen aburuz, bere ikerketen funtsaren funtsa behar den sakontasunarekin estimatuko.

– Gorringo ez dun beste laurekin desagertu? Zergatik?

– Eskatuko zionagu gero.

Prontxo hurbildu zitzaigun. Buruaz eskaileretan gora igotzeko keinua egin zigun. Oren bat eta laurdeneko epea genuen han zeuden dokumentuetan bilatzen genituenen karrakatzeko. Begi kliska batez sosegatu nuen Prontxo. Zanpazanpa jo genuen. Behereko gelatik esku zarta

nasaien oiharra zetorkigun. Jean Martin Gorringok mintzaldia frantsesez bastatzen zuen, publikoak, aulki bakoitzean berehalako itzulpena segurtatzen zion kaskotxoak atzematen zituela. Euskaltzain zaharrenek frantsesa ikasia zuten eskoletan, baina gazteagoek, baziren bakarrak eiki, ingelesa zuten erabiltzen, harroki. Idazkaritzaren bulegotik konferentzia hauteman genezakeen, leihoa zabalik zelako. Kanpoko zurrunbiloak ahantzi genituen, Prontxok seinalaturiko iranja koloreko karpetaren azala altxatzeko.

Carmenek argizaiola txikia ekarria zuen, eta osteguneko bileran zeudenen izenak zekarzkigun orrialde bat argiztatu zidan. Hogeita lau kide bildu ziren, eta gure lau errekituak bertan zirelakoaz poztu ginen. Harritu nintzen Gorringoren izena kausitzeaz. Jean d'Amouk ez baitzidan horrelakorik aipatu. Txostenean euskaltzain urgazle lagun berrien zerrenda zegoen, eta mende ahituak zirela San Ferminetan arraiki mozkortutako lagun bat edo besteren deiturak sumatu nituen. Iparraldekoak halaber. Carmen Bizkaiakoez interesatzen zen eta, oraina bihar bihurtzen luze zatekeen arren, etziko Euskaltzaindiaren

osaketa irudikatzen ahal genuen. Sekulan gaurko apez bizihaztuak hiltzen baldin baziren, ez zena batere gauza segura, gero hobeen itxaropena zukeen euskarak eta euskal kulturak.

Amen, erran zuen Carmenek.

Karpeta berean, bilkura denboran kideek hartzen zituzten apunteekiko hostoak biltzen zituen idazkariak, eta bilduma egiteko zegoela, hor ziren nahas-mahas izkirione daldaratiz eta batzuetan lizunez marraztu oharrak. 13, 14, 15 eta 16 zenbakia zuten desagertutako euskaltzainenek. Talde alegera zitekeen, itxuraz beti elkarrekin eta elkarren ondoan ibiltzen zirelako. Bat atzeman eta laurak atxikiko nituela, espantuka lehertu nintzenean, Carmenek ene iunfa jabalarazi zuen:

– So egizan 14 zenbakiko hostoak dakarren planoari. Gauza batzuk baditun idatziak. Zer da idatzera hori? Armeniarra ala?

– Erakuts!

Ulertzen nuen. Enigma bezala, notak mirailaz irakurtzeko ifrentzuz idatziak ziren. Carmenek, emazte prestua baitzen, esku-zakuan ezpainen gorritzeko eta matelak errautsez perdukatzeko

baliatzen zuen mirailtxoa eskaini zidan. Ez ginen gutxi harritu Euskal Herriko sei hiriburuen izenak jauki zitzaizkigunean. Lehenik Bilbo, gero Gasteiz eta Donostia, ondotik Iruñea eta bururatzeko Garazi eta Maule. Baiona eskas zen. Guggenheim ere agertzen zen. Eta berriz, jada leitzea lortua nuen enigma:

*Santa Engraziren giltza*
*Nahi dugu harrapatu,*
*Gu zaharturik gabiltza*
*Baina behar dugu batu*.

Karkara gordinaz askatu zen Carmen. Isilago nintzen ni. Ene karnet txikia plegatzen ari nintzen, atean joaldi xeheak hauteman genituenean. Deus ez bailitzan, Carmenek zigarreta itzali zuen, eta bulegoaren gainetik zangoak kenduz, marmara zebilen:

– Bilbon izan dira. Guggenheimen. Santa Engrazia: zer da? Giltza bat da harrapatu nahi dutena edo Gexan Hiriartek hik harrapatzea desiratzen duena, berak bere burua ez zikintzeko. Ez

dinat ezer ulertzen. Ixo. Norbait dator. Non dun gakoa? Sakelan?

– Goazen gordetzera. Armairu horretara!

Bi punpaz kukutuak ginen. Borta zabaldu zen. Urrats astunaz aitzinatu zena bertan ohartu zen karpeta iranja ireki eta barreiatu zela. Nor dago hemen oihuka ari zen, laguntza, norbait sartu da idazkaritzan, otoi, deitu polizia. Paper zaharkituen errautsak urtzainka ariarazten gintuen. Ordu latza zen. Urrats lodi haserretuak gelatik kanpora zuzendu zirenekoaz profitatu genuen karpeta iranja Carmenen esku-poltsan ezarririk, gelatik eskapatzeko.

Behereko ezkaratzean ments baten moldean orroaz zebilen gizona ez zen edonor, Jean Martin Gorringo baino.

# Dies irae

## Redios!

Zer ari zen Jean Martin Gorringo euskaltzaina, bosgarren gizon gisa, urrats trabatzen eta ene arrabia harrotzen? Euskaltzaindiaren egoitzatik atera ginen Carmen eta biok. Euskararen iragana ederki kontserbatzen zen aixolbearen aitzineko ostatuko eguteran jarri ginen, Gorringo atera zain. Jaun haren haserrearen heinaz jabetzean, iruditzen zitzaigun, idazkariaren bulegoan harrapatu bagintu zitzifrikatuko gintuela. Eta ez gintuen gizon pruntaren argazkietako irri seduzitzaileak engainatzen. Behialako kide errespetatu eta maitatuaren itxura galdua zuen, salbaia eta hiltzeko prest agertu zen Prontxoren gelan, abere.

– Segituko dinagu.

– Habil hoa hi, nik badinat kapitulu bat bukatzeko. Etxean egongo natzain aiduru. Ez hadila beranduegi sar.

Carmenek, irri xehea ezpainetan, tabernako terrazan abandonatu ninduen. Papo aldea kras-

katu zitzaidan. Iluna zen jadanik eta argizpien azpian jendeak ibili bazebiltzan, nora ez, doidoia karrikan elkarrekin izateko atseginez. Artetik, ekialdetik etorri musikariak oihartzen ziren eta arrosak saltzen zituzten buhameek xendra bihurdikatzen zuten, mahaiz mahai. Ez zuten arrakasta handirik. Esker kasik ahalketuz urruntzen ziren ondoko bikoteari loreak etengabe eskaintzeko. Gehienak buhameak ziren eiki, baina haietarik franko pakistan edo indiar ozeanoko uharteetarik zetozela ziruditan.

Mugikorrak jo zuen.

Makinari so nengokion, zenbaki gordea azaltzen zitzaidala. Jean D'Amou zela igarri nuen.

– Bai!

– Bilbon zaudela badakit –erran zidan Jean d'Amouk–. Ba al duzu berririk? Minutu bakoitza garrantzitsua da, aita eta bere lagunak bizirik atzemateko.

– Ez, ez dut gauza askorik. Euskaltzaindiaren egoitzan Euskal Herriko hiriburuak idatzirik zekartzan paper bat kausitu dugu...

– Dugu?

– Baha... Bilbon badut maite dudan adiskide bat.

– Euskaltzaindikoa?

– Ez. Barrenkalekoa. Gaira itzuliz, ez al duzu uste oporretara joan direla? Gasteiz eta Iruñea bisitatu nahi zituzten beharbada?

– Gizon langile horien bizitzan, zurean ez bezala, ez dago oporrentzat lekurik. Jakin ezazu hori.

– Baiki. Nor da Jean Martin Gorringo?

Isildu zen ahotsa linearen puntan. Zintzur karraka bat hauteman nuen. Euskaltzaindiaren egoitza nagusiko ateari begira nengoen. Jean d'Amouk hitza berreskuratu zuenean, Jean Martin Gorringo bortatik ziztuan jalgitzen begiztatu nuen: Irakeko bigarren gerlaren lehen egunetan saldoan eta lerroan Bagdadera urratzen zuten amerikar tanke erraldoia ematen zuen. Puskak bildu nituen eta euskaltzain tapalaren itzaletik abiatu nintzen, telefonoan Jean d'Amou mintzo zitzaidala.

– Gorringo jauna, hala erran behar baita, duela hirurogeita zazpi urte Bordelen sortu zen, gurasoak euskaldunak zituelarik. Barnealdeko-

ak. Ez dakit zein eskualdeetakoak ordea. Ahurtin bizi den apez hori hizkuntzalaritzan doktore egin zen Parisen, eta karrera osoa euskararen egiturak irakasten higatu zuen, sekula euskara jakin beharrik gabe.

– Nola da posible hori?

– Inuxenta zara Amaia. Ez inuxent erdia. Baizik eta osoa. Ez dakizu nola bizi diren beren buruak euskaltzaletzat dauzkaten horiek? Moralki guri manatzeko ez dute euskararen premiarik. Aitagatik ez balitz, enetako ere pikutara bihoa gure hizkuntza zaharra, *ez baitu dirurik emanen*...

– Rock'n'rolla dun orduan.

Oroitzen nintzen, Arriaga antzokiaren plazara heltzen nintzela, Hertzainak taldeak taulaz taula oihukatzen zuela *rokanrolak ez du dirurik ematen* euripean garagardoz blai Julio Iglesias *un canto a galicia e* lerdoak eulixa najak etab. Carmenekin ene rock talde kuttunaren azken kontzertura joan ginen eta, egia erran, gure hondar hitzordu berezia ere izan zen. Carmen eta bion amodio platonikoa Hertzainak bandari hain estu

uztartua zela ez nezakeen sinets, Jean d'Amouk garai izoztu haiek gogora ekarri ez balizkit.

– Badu zenbait hilabete Gorringok aita kitzikatzen duela, aitak duen zerbait erdietsi nahiz. Zer liteke aitak zuena eta Gorringok ez zuena?

– Seme bat beharbada?

– Ez, harentzat haurrak ondasun irensleak dira. Eta enigmari buruz?

Jean Martin Gorringo zanpa-zanpa bazihoan Areatzako zubitik, poltsa besapean tink eta esku ezkerraz haizeak bulkatzen zion txapela kasko gainean bermaraziz. Berrehun bat metro gibelago nengoen. Gizona potoloa zen eta ni nahikoa entrenatua, sekula lasterka atrebitzen baldin bazen. Jean d'Amouri aitortu nion beti sasitzar zegokidala iker-ipularra, eta menturaz, sarri, Carmenekin Prontxo idazkariaren Euskaltzaindiko bulegoan lapurtu ohar orrialdeekin enigma gurutzatuz, zerbaitetara helduko nintzela. Gorringo oinetan trebes ez zitzaidala lerratuko esperatuz.

Gazteak multzoan jaisten ziren Areatzako zubian behera, Arriagan metatzeko eta gero Parte Zaharrean barrena txori txiolari barreiatzeko.

Bizkaia guztitik zetozen autobusak Abandoko geltokian husten ziren, arratsa zetorren ber Bilbo bestarako apailatzen zelako, asteguna ala asteburua izan. Tupina ez zen nehoiz irakitetik etsitzen. Gizon ahotsak oraindik finkatu gabeko mutiko turrunpilotsuak gizurdeen moldean ari ziren oihuka, zintzur-sokak ihausteri ozenaraziz. Algarak eta marrumak nahasten ziren. Neska batzuen barre uhargiek ilunpea desorekatzen zuten. Eta ene aurrean Gorringo, zubiaren puntan gelditu zen.

Balizko ibilbideak marraztu ziren neure izpirituan: eskuin hartzen baldin bazuen, kaiertzez kaiertz agian Guggenheimeraino lehiatuko zen, edo zuzen-zuzena jarraituz Lauaxeta plaza borobilera. Dudak iraun zion. Gizona urrunetik otserbatzen nuen: zer ari zen famaz eta ospez hantua zen Jean Martin Gorringoren trakako bat, gauez gau, ebasle baten maneran, Bilbon, batez ere Jean d'Amou Gexan Hiriart apezaren semeak Euskaltzaindiko lau adineko kide desagertuak zirela ziolarik? Kointzidenzia bat zena? Ala hasarta, Zuberoan lerraketen eran? Bidenabar, autobusean irakurri nuen *Berria*n desagerpen horie-

kiko artikulurik ez zetorrela zitzaidan bitxi. Ala Euskal Herriari berdin zitzaion Iparraldeko lau euskaltzainen eratorri ankerra? Euskal Herriak funtsean, Iparralde ekilearen mapetarik ezabatzeaz hamazazpi axola zuen. Ez zen segurki eta halere politika linguistiko bat obratzen ahal jendetzaren ehuneko hamar apur batentzat?

Ezta?

Baita?

Azkenean, gizonak Nafarroa etorbidetik segitu zuen. Haren hatzetarik ibiliko nintzen gauak eta jaun haren kemenak zirauteno. Zerbait berri deskubrituko nuen, edo eskuts etxeratuko nintzen, Carmenen baitan lo egitera. Begian netxikan Gorringo eta hausnarrean narraikan: bazen aspaldi Iparraldeak ez ziola zaharkeria anakroniko zenbait salbu ezer ekarri Euskal Herriari, ulertu bedi Hegoaldeari. Kultura alorrean zerbait botere zuten franko zinkurinka aditzen ziren, baina ez zuten indar askorik egiten zirkulu orokorretan itotzeko, idatziz, sortuz, arriskuak hartuz edo soilik Iparraldeko ereduetarik aldenduz. Egunero lan egin behar zen horretarako. Bilatzen nituen lau euskaltzainen euskarazko lana ehun orrialde-

ko bilduma batean jos zitekeen, alta euskaltzainak ziren, hamalau liburu kometitu balituzte bezala ohoratuak eta maitatuak. Asko idazten zutenez mesfidatzen zen Iparraldeko egitura kulturala, sobera izkiriatzen zuenak hizkuntzarekiko umiltasun falta bailuan. Hizkuntza, aita, senarra, semea eta anaiaren pare, errespetatzekoa zen.

Athletic futbol taldeko kamiseta zuri-gorriak saltzen zituen denda baten erakusleihoari so geratu zen Gorringo. Lasterka egiteko zapata ederrak ere bazirela konturatu nintzen, handik denbora labur barne, bitrinaren aitzinetik lerratzean: bihar goizean Nerbioi hegian footing eginen nuela hitz eman nion neure buruari, opari. Bizkitartean, erreus nenbilen, Iparraldearen geldotasun mutuaren truke, dirua burrustan isurtzen zuen hango kultura ekimenak sustatzeko. Konbenio publiko zein pribatuak izenpetzen ziren noizean behin, presentzia mediatikoa ausarki segurtatuz. Bestalde, liburuak milaka zetozen, baina nehork ez zuen pazientziarik edo mintzaira ezagupenik, ataletan liburuak balioski aurkezteko. Sotoetan mutxitzen zihoan euskarazko literaturaren altxorra. Noski astia behar zen: egun-

karietan Iparraldeko idazleen elkarrizketen ohiko leitmotiva denbora eskasa zen. Gainera, denbora auherren luxua zen. Egia zen hondarrean, denbora gutxiago gastatzen zela diru-laguntza paper baten betetzen, nobela edo ipuin edo olerki baten orrazten baino. Lehiak kikildu gizarte honetan kontuan edukitzeko elementua zen hau.

Gorringok jadanik trebeskatua zuen Lauaxeta plaza erraldoia. Erdian zeukan zutoina ez zen baitezpada ederra, baina autoak, motoak eta autobusak haren inguruan txirikordatzen ziren alaiki, benetako axis mundi bailitzan. Sua berdetu zenean ausartu nintzen. Ernatu eta karrikaz bestalderatzean uff salbatua askatu nuen. Ene baserritar herabe ibileraz irriz ari zen emazte feliniarrari behatu nion. Besorik gabeko atorra arrosaz bezti zen, alimaleko bularrak airean zebilzkion eta likrazko gona labur beltzak, hanka eta azpi gurintsuak agerian uzten zizkion. Irria itzuli nion, interesez emendaturik. Bat-batean seriostu eta aztalak klaskaraziz bere bidetik joan zen: ez, ez zen puta, are gutxiago alhatzailetarik. Nafarroa kalean behera kulunka jaisten miretsi nuen orai-

no, Gorringoren atzetik nenbilela gogoratu nintzen arte.

Gauerdi zen kasik.

Lopez de Haro abenidara irekitzen zen Axular hotelaren argi iturripean distiratzen ikusi nuen Jean Martin Gorringoren pantzoila handia. Atea bultzatu zuen. Ez nintzen urrun. Harreran giltzak eskatu zituen eta igogailuan urtu zen. Artean, sakelatik zikinontzira zerbait botatzen kukuzkatu nuen: zer ote zen? Harrerako mutikoak burua apaldu zuen uneaz baliatu nintzen punpan Axular hotelean sartzeko eta zikinontzian metatzen zen paper eskutara baten ahurreratzeko. Kanpora jo nuen ahalik lasterren eta han, argi iturri berdinaren azpian, paper purtzilikatuak desplegatu nituen. Erosketa taloiak baziren, aparkaleku ordain-agiriak, metro eta autobusetako txartelak eta, haien artean, bat berezia, hitzordu baten aipamena zekarrena: Iturriza parkean goizeko 11etan. Urtea, hilabetea, eguna? Noizkoa zen?

Indize bat banuen, baina Bilboko gaua bezain iluna.

Abenidako beribilek airea zorrozten zuten. Barrenkalera beharra nintzen, agudo. Bide bertsutik itzultzea erabaki nuen. Nafarroa. Areatzako zubia. Arriaga plaza. Zalu-zalu nenbilen, Carmenen ondoan izatea berantetsia nuelako jadanik. Parte Zaharrean sartzean, kukurusta berdea buru gain pelatuan zekarren mutil gazte batek sua eskatu zidan eta euro bateko amoina. Ez nuen, ez bata, ez bestea. Madarikatuz urrundu zitzaidan eta karriketan galdu nintzen. Itoiz talde ohiaren kanta bat neraman neuronetan zabalik, mapa baten antzera: *erdiko kale iturribide atxukaletik bilboraino... nananananananana...* Hasperen bat libratu nuen:

– Gure gaztaroa!

Alabaina gaztaroa musikaz eta noraezez blai isuri zitzaigun. Eta hor ginen, denak, harremanak zergatik hautsi ziren galdezka. Erantzunik ez. Elkorkeriaz higaturiko mendeez gogoratzen nintzen, ostatuetarik saldoan ilkitzen ziren jendeen erditik uhertzen, tabernetarik ozen zetorren tekno soinuaz hantzen eta hizkuntza arrotzen doinu lakarrak jasaten. Arrotza nintzen ni ere eta gustatzen zitzaidan Euskal Herrian ber-

tan, neurea zen Herrian, arrotz gisa jardutea. Aldi oroz begi berriekin nekusan Lurraldea, maitale zohituen pare. Bilbon aztoratzen nindoan: hasieran bikote konbentzionala zela uste nuena, hurbildu eta bi gizon ziren: kalearen minean zeuden, elkarri musuka. Katedralaren saihetsetik iragatean, bospasei buhame metatzen ziren, lo zurrungaz. Barrenkale bilatzen nuen. Neska koadrila batek lagundu ninduen. Bilboko Parte Zaharrak labirintoa zirudien, labirinto gosetia, bakartasunaz asetzen zen horietarik.

Barrenkaleko 18. zenbakian nintzen.

Behereko txirrina jo nuen eta Carmenek atea ireki zidan, aurkeztearen beharrik gabe. Ene aiduru zen ala? Eskaileretan gora lehiatu eta Carmenen beso artera jauzi egin nuen: bihotza kolpeka ari zitzaidan, hatsanka eta heze nintzen, *can you be loved* murmuratzen nion belarrira, belarriaren erronda samurkiro ausikiz.

– Ez dinat gauza askorik atzeman. Paper puska hau, hitzordu batekin. Eta ikasi dinat Gorringo Axular hotelean egoten dela.

– Taxia hartu dun etxeratzeko?

– Eeez... Zergatik? Oinez etorri naun. Gauak ezti ditun Bilbon. Hi bezain.

– Ja. Ni bezain.

Ordenadorearen ondora bulkatu ninduen. Eskuak gerrian pausatuz, ahotsa harrotasunez xixtaka sumatzen niola, erran zidan:

– Eta ni lanean ari izan naun. Ene hamabosgarren nobela arrosaren zazpigarren kapitulua bukatu dinat.

– Nobela arrosa? Ez hintzena beltzean ari lehenago?

– Bai, argitaltxeak kaputt egin zinan eta beltza utzirik arrosari lotu natzaion. Arrosa eta burgesa. Burgesa eta heterosexuala.

– Heterosexuala? Hik? Ez denat sekula maitale arrik ezagutu... Ez eta emerik ere funtsean...

– Salbu hi...

– Ja, salbu ni.

Iruditzen zitzaidan Paris-Texas filmeko berina itsuaren pasarteko elkarrizketaren doinua errepikatzen genuela. Carmenek zintzurra karrakatu zuen Travisen antzera eta nik, Nastassja Kinski buruan, hasperen bat askatu nuen: ja, salbu ni *jo ezak Ry*... Carmen hara-hona zebilen, kafe kika-

ra eskuan eta sukaldetik koñak baso bederarekin jin zenean, sofan jarri zen, desiragarri, deigarri, maitagarri.

– Amaia, urtean sei nobela behar ditinat idatzi. Erran nahi baitu bi hilabeteetarik bat. Orduan, bizitza idazteari dedikatua dinat eta ametsetarako denbora gutxi. Ene bizitza sexualaz axolatzeko betarik ere ez zeukeanat. Erridikulua ematen din, ezta? Bueno, goi mailako kirolari bat naun, egunean zortzi ordu izkiriatzen, beste lau entrenatzen edo oharrak metatzen eta musika entzuten.

– Musika?

– Bai, musika. Gure gaztarokoa. Hertzainak. Itoiz. Clash. Marianne Faithfull. Oroitzen haiz *as soon as you're born they make you feel small* eta *the ballad of Lucy Jordan* biak nola aditzen genituen Bizkaia eta Nafarroa autoz zeharkatzean Bardeetara gindoazela eta egunero *broken euskara* ezpainetaratzen genuela?

– *Why do you fight for?* deiadartzen ninan ahoak eman ahala.

– Baina hik gure alor kuttun guztientzat eskatzen huen *why*. Agian *why* sobera horiengatik

noizbait galdu gintunan. Hargatik idatzi dudan nobela bakoitzean hireganako amodioa eta begirunea haztu dinat.

– Mila esker. Ukitzen naun. Euskaraz ditun hire nobela arrosak?

– Euskaraz...

Ulertzen nuen. Publikorik ez zen. Literatura seriorako doia bazen eta, noski, ez ziren gustuak desbideratu behar. Carmen tinkatu nuen besoetan eta musua eman nion. Begiak hertsi zituen.

– Aspaldiko ene betikoa.

– Hitaz maitemindua naun.

– Haugi. Bihar, hirekin jinen naun Iturriza parkera. Bizpahiru egun pausa hartuko dizkinat, hirekin eta higaz egoteko. Hator. Sorpresa bat badinat hiretako.

Ohean etzan ginen. Protokolorik gabe eta presaka malgutu genuen sabelpeetarik irakiten zetorren amodioaren burdin-mihi sutsua. Batak bestearen gorputza bisitatu zuen astiro, Gallartako erakustetxea itxuratuz. Arotz trebeak ginen. Labe hezeak milikatu genituen aldizka, batera, eta haragi hegiko altzairu ekaiak oro, minutu laburrak barne, AHVko *último lingote*-a bai-

liran, gogortu ziren atseginez. Bekoz beko bermatu ginenean, karkara ari ginen, meategi ahantzietan gehiegi herrestatzearen ondorioz aurpegiak ikatz eta eskuetan argi bako tuneletan aitzinatzeko eskuargiak tinkatzen genituela. Ile kuskurtu bat kendu nuen Carmenen ezpainetarik.

– Ongi naun. Bizitzan urrakorik ez dun gertatu.

– Larrua jo dezagun berriz!

Ez nuen besterik erran.

Carmen ohetik jaikia zen jadanik eta *bezti hadi* erregutu zidan, *oraintxe neure sorpresa! Zer sorpresa morpresa ordu honetan* asaldatu nintzaion. Akitua nintzen.

– Baionan edo Maulen nekatua izaten ahal haiz, baina ez Bilbon. Hiri hau gauez eta egunez etengabe dindari zagon.

– Nora eraman nahi naun? Iturrizako hitzordua sarriko dinagu, eta Euskaltzaindian ez duken nehor.

– Goazen bada. Ikusgarria bukatzeko behar dinagu han.

– Zer da misterio berri hau?

Musu bat eman zidan. Eskutik lotu eta laster karrikan ginen, esnatu berrian. Jendea bazen oraino. Edonoiz Jean Martin Gorringo edo beste lau euskaltzainak gurutzatzen ahal genituen, mundua arras nahasia baitzen. Gerritik heltzen genion elkarri. Eztiki. Goizeko biak baizik ez ziren. Bat-batean *Engelblau* izena neonez distira-razten zuen ostatu baten bisean bis ginen.

– Hemen dun.

– Hemen dun zer?

– Ene sorpresa. Sar gaitezen.

Taula gainean melodia tekno batez apaindua, blues higatuaren maneran *maitia nun zira* auhenkatzen zuen norbaiten pareko mahaian ttottotu ginen. Gizona ala emaztea zen? Jantzi doiez estali zerbitzaria hurbildu zitzaigun. Ar-tean, nor zelakoari Carmenek keinu konplizea lu-zatu zion.

– Haizemin. Abeslaria. Ez dea ederra?

– Bahai. Beha ezan nola bukatzen duen kanta zahar hau: *desertüala juran nahi bazira arren zoaza bena berehala*... Azkarregi. Nor da Haize-min?

– Argi denez, ez dun Jean Martin Gorringo eta hire euskaltzainen ezpal berdinekoa. David zunan. Unibertsitateko lagun bat. Garai batean drogari eta gizonei emana, drogaren ordaintzeko batez ere. Lagun batzuk dirua aurreztu geninan, sexuz aldatzeko operazioa egin zezan Bartzelonan. Egin eta Maia deitzen dun orain, taulagaineko izena Haizemin duelarik. Ikusten dun hantxe, txapelarekiko beltz erraldoi hura? Abudiop maitalea din. Eta bizkartzaina.

– Transeuskadiexpress.

Haizemin miazkatzen nuen xeheki. Medikuak ez zizkion silikonaz mukurutu bularrak huts egin eta ipurdi faltsuarekin jendeen gutizia pizten jolas zitekeen erraz. Gizona zelako aztarna gutxi zeukan, non ez zen igitaiz angelu zuzenetan ebaki begitartea. Ahotsa nahikoa apal zeukan ordea, baina biloen beltz, larruaren zuria eta bozaren harpetasuna zoragarriki ezkontzen ziren *maitia nun zira*-ren abesteko bederen. Zuberoan ez zen horrelako kantaririk. Leku ziurretik ari nintzen, bertan hamar urte iragan nituelako. Carmenen seinaleaz baliatu zen Haizemin gure mahairatzeko.

– Gau on. Pozten naiz zure agurtzeaz Carmen.

– Amaia Ezpeldoi, nire amodio bakarra, arratsaldean itzuli eta irudi zait denbora dil-dil dabilkidala.

– Iparraldekoa zara? Espero dut ez dudala zuen altxorra masakratu!!!

Korrok erlastuz amildu zen Haizemin, bularrak ahurrez azpitik atxikitzen zituela. Buruaz ezetz erran nion. Tua irensten saiatzen nintzen. Carmenek ere begiak euri zituen. Artistak eleustasuna hautsi zuen:

– Engelblau ostatua ireki dut duela hamar urte, operaziotik landa. Gay, lesbiana, trabesti, drag queen eta trans guztiek Bilbon toki lasai, libre eta alaia ukan zezaten.

– Aingeru Urdina.... –artekatu nuen, estiraz.

– Hortxe duzu Marlenen argazki handitua, zigarreta ezpainetan. Berlin-Bilbo tren zuzena nahi dut.

– Haizemin, arren, kanta ezazu gu biontzat *itsasoa laño dago* ezti hura.

Carmenen desira ordena zen Haizeminentzat. Carmenen desiraz edonora nindoakeen ni

ere, aditzak trinkotuz. Carmenen desira: *ilargiak gaua baino... nananananana.... nik zu zaitut.... nananana.... maiteago.... erdikokale iturribide atxukaletik bilboraino...*

# Tuba mirum

Arte Ederren aitzinean aurkitu nintzen bitxiki. Txillida Platz-en. Lelo zaharraren arabera *eguzkirik gabeko goiz tentel* bat zen. Carmen ondoan neukan eta Iturriza baratzeko bidexketarik abiatuak ginen, besoak korapilo. Ez nekien nola etxeratu ginen Engelblau tabernatik, zein ordu eta zein egoeratan. Ez nintzen deusez oroit. Haizemin artista totalak zoratu eta zorabiatu ninduen: Iparraldeko ohiturazko kantak eskaintzeko haren molde postmodernoak ukitu ninduen barne-barnetik. Haizemin izar bat zen. Edan genuen eiki, gin-kas eta erre, salbaiki. Ahotsa harrobi neukan eta aurrean nuen Carmenen itxura ez zen hobea.

Zer ari ginen Iturriza baratzean?

Memoria ordenatzen saiatu nintzen, galtzen atzeko sakelan bezperan Axular hoteleko harrera gelako zikinontzian atzeman paper puska purtzilikatua behatzez ferekatu bezain laster. Carmen zehaztu nuen. Buruan min nuen eta ez neukan amodio gutiziarik. Ordu hartan berdin zitzaidan maitatua ala ez maitatua izana, baina eiki

maitatua nintzen, neska-lagunaren larru azaleko eremu leunak bost axola zitzaizkidan, egarri nintzen, urez. Kopeta hegiak ahurretan tinkatzen nituen.

– Etorriko dea Jean Martin Gorringo? Hamaiketan?

– Igurika dezagun, ageriko.

– Kafe azkar baten premia dinat nik. Alkoholean gehiegi igerikatu naun barda. Barda eta goizeko ordu txikituetan.

– Kafea, gero, maitea. Nor jinen da Gorringorengana?

– Zenbat galde debalde, bijotz.

Isildu ginen. Begiak apaldu nituen. Urrunean, Nerbioi ertzean, autoen abiadura biziko ibilera herotsak aditzen nituen, ama-alaba pare bat, baloi batekin jostatzen deika eta noiztenka bele biren kroako bihurriak. Ibaian gora zetozen kaitxoriak miretsi nituen betazalak altxatzean. Ala behera zebiltzan? *Let it be: let it bleed?* Itsas usaina usaintzen nuen. Airearen gazitasunak Bakioko bestetarik landa Bermeoko badian arrantzara joan ginen argi zirrinta gogorarazi zidan: *txiripitxeruek* jauzika ari ziren, gure nardatzeko,

eta nik ez nuen itsasturi-jaidurarik, ontzian kulunka egon ginen bi ordu haietan Bakion gozatu txakoli ondu berria bota nuelako urera. Baina egunsentia, Bermeoko hiria eta eguzkiaren jazarpena, hirurak batera eder zirela berrets dezaket oraindik.

Xendretarik nagitzen genbiltzan. Haizeminek izpiritua kilikatu zidan. Ez nuen nehoiz aski eskertuko Carmenek Engelblau sator-zulora eraman ninduelako.

– Haizeminek nolaz ezagutzen ditu Zuberoako eta Iparraldeko auhenak oro?

– David eta biok –hasi zen azalpen brodatzen Carmen– unibertsitatean ginenean ez gintunan euskaradunak. Abizena euskalduna dudan arren, Lerga nafar jatorrikoa eta idazle izengoitia halaber Enrique Artazu, ez naun euskaradun hazi...

– Mila aldiz errepikaturiko istorioa, han eta hemen.

– Bai. Davidek emaztetzea erabaki zuenean, deliberatu zinan bizitzaz eta hizkuntzaz aldatzea. Bere urratsetan galdu nindunan eta Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko ohiko abes-

larien urratsetarik kontzertuz kontzertu ibili gintunan. Bidenabar nik hi hindudan bilatzen...

Mutu nengoen. Ez nekien mintzatzea egokitzen zitzaidan ala ez. Hala ere, ele hustasuna hautsi nuen, Carmenen azken perpausaren aditzak zekarren damuzko zartagailuaren mehatxutik urruntzeko:

– Bilbon aurkitzen dun Iparraldeko kultura altxorra zaintzen den altzoa.

– Zer da poesia xoxola hori?

– Alabaina, Iparraldean euskara arras desagertuko denean, Bilbon elkartuko ditun zubereraz eta baxenafarreraz ariko diren apurrak. Batzuek amikuztarra ere mintzatuko diten... Bazauna?

– Eta ordu latz hartan nola hitz eginen dute Iparraldekoek?

– Gaur Bilbon bezala. Edo Donostian. Edo Gasteizen. Edo Iruñean.

– Zergatik ez Baionan?

– Baionan oso gutxi hautematen baita euskara.

Zerebroan Larrun mazelako bi harri peza arrosa elkarri joka nabaritzen nituen. Kafea

behar nuen. Astia bagenuen. Ez nuen ulertzen zergatik ez ginen ostatura abiatzen. Gogorra zen Carmen. Ene ikerketa barrutik hartzen zuen. Haur talde bat sartu zen baratzean: erregepettitten antzera denetan barreiatu ziren. Berdez tindatu jargia batean etzan nintzen, eta gorputzaren uhinkarekin arima uskailtzen zitzaidala sentitzen nuen: zergatik bada desagertuko zen Iparraldeko euskalkia? Hizkuntza alorrean katastrofea genuena sekretuki espero? Gure Historia taigabeko katastrofe zerrenda bat zen eta geroa halaber, katastrofiko asmatzen genuen. Hizkuntza ikastea eta erabiltzea baino erosoagoa zen alainan, iragarpen linguistikoak ordenadorez marraztea eta hemendik hamar, hogei edo berrogei urterako ondorioak ateratzea. Dena antolatzen zen hizkuntzaren beharrik gabe jarduteko, ekonomian purruxka batzuk, politikan lauzpabost lema eta kulturan tipikotasunaren hornigailu ttanttatsua zen mintzaira, eta negarrez higatzen ginen ama mintzoa gaizoa ama ama ama ama amama...

Bi eztul eta urrats herresta bat entzun nuen.

Ama zena?

Katastrofearen aurreikusteak ederki laguntzen gintuen. Batetik hizkuntza ezpainetarik ezabatuko zitzaien bizidun-biktimak ginen, biktima negarroiak, eta bestetik lanjeraren hurbiltasun hotzaren estakuruz, apurkerian irauten genuen: idazleek berek hiltzera zihoan hizkuntzarekiko errespetuz ez zuten izkiriatzen eta ahapez mintzatzen ginen, etsaia hor zegoelako, etsaia bai afera galanta zela, etsaia non zen eska zezakeen Dragok tartaroen basamortuan begiak zabal zabalik bazterrak mirazkatzen zituenean, eskubideak zein genituen jakin gabe, euskaldun izanez eskubidez biluziak ginela uste genuelako. Populu zaharrak oinarrian katastrofistak ginen eta, adibidez, 1915ekoa gogoratuz, armeniarrei katastrofeak etortzen zitzaizkien, trumilka, odoltsu, zauri ahantzezin.

Zepo mental burbuilatsuan ihalozka nenbilen norbaitek bortizki astintzen ninduela sumatu nuenean.

– Amaia! Otoi. Jean Martin Gorringo.

– Zer derasan? Zein gorringo eta zuringo?

– Katxis! Altxa hadi jargia hortarik!

– Lo egin dinat ez?

– Bai, bistan dena.

Begiak torratu nituen. Bezperan Axular hoteleraino segitu gizona hantxe zegoen, kukuskari, barranda, behari, aitzina ari. Segurtasun distantzia mantenduz haren gibeletik lerratzekoak ginen. Baratzeko eremu belartsuen erditik sugetzen ginen, kuzkur eta lurrari kasik itsatsiak. Haur talde batek imitatzen gintuen eta jarraitzaile inuxente haien haizatzea neke zitzaigun. Gorringok edonoiz ume mukizuen algarak adi zitzakeen eta gure legez kanpoko segipena sumatuko zen. Ez genuen horrelakorik nahi. Carmenek, ez nekien nondik jalgitzen zuen bere irakasle gaizto ahotsaz, haurrak erasiatu zituen handizki eta bihi batek ez gintuen gero, zinominokatu.

Zuhaitz multzo baten maldako jargia batean plantatu zen Gorringo. Pareko sasiko hostoak higitzen ikusi genituen. Jonki bat zena handik punpan ilkiko? Kabala bat? Auñamendietan ez hain aspaldi libratu Malba hartza, agian Bilboko tupina eztira geriza eske Ariegetik eskapatua? Edo Berlingoa. Imajinazioaren kraxturuak aske neuzkan eta ez nintzen gutxi harritu, gorputza itseskatuz eta hostoak banaka kenduz, argazkitan

neukan Gexan Hiriart jaukitzen begiztatu nuelarik. Carmen ere ttattit zegoen:

– Lauretarik bat?

– Dirudienez.

– Bilatzen dunana.

– Bitxi.

– Bitxi... –errepikatu zuen ene ondotik Carmenek.

Errazegi zen. Bat harrapa eta laurak zakura, nerasan herenegun Donostiatik Bilborako autobusean nintzenean. Hala zen. Hari pilotaren erdira iristeko puntta atzemana genuen. Itxuraz pataskan ari ziren bi gizonengana lasterkatzea erabaki genuen. Belardi debekatuak ausarki tapalakatzen genituela ohartu zen baratze-zaina eta oihuka jauzi egin zigun, tigre kexatua bailitzan: ez ginen ikusezinak, alajainkoa! Carmen lehen heldu zen Gorringo eta Hiriartek mugatzen zuten erresumara. Gizonak so zegozkion, bortitz, bekatu lizunean atzeman gaztetxoak bailiran.

Atzetik tinkatu nuen Gorringo, ez zen gozo baina, Carmenek Gexan Hiriart gerritik hertsatzen zuela. Hezur zaharrak kurrinka hauteman genizkien, haustear, kaltzioa purruxkatzear. Sa-

murtasun izpirik gabeko besarkadak iraun zuen une laburraz baliatu nintzen galde biren pausatzeko:

– Zer da bordela hau?

– Ez zara argiago izaten ahal?

Gorringoren ihardespena trufariegi zitzaidan.

Pantzoilan ukabilkada bat eman nion, dohainik. Intzirika plegatu zen. Baina ni baino indar gehiago zeukan eta nire beso artetik ihes egitea lortu zuen. Bizkitartean, Hiriartek *Santa Engrazian dago giltza* orroatzen zuela Carmenen aurpegira gas negargileak bota zituen, edozein dendatan eros zitekeen bonbatxoari esker. Neska-laguna eztul eta negarrez ari zen. Gorringo nuen helburu: trinkili-trankala zihoan, haur taldeak, ama alabak, udatiarrak kuskatuz. Eskuan maleta bat zeramala ohartu nintzen eta ideia bakarra bermatu zen nigan: maleta hori zen behar nuena, Hiriarten enigma, lau euskaltzaleen desagerpena eta Gorringoren misterioaren zulatzeko. Gizon adindua baino lasterrago ari nintzen eta, belardiak moztuz bezain xendrak aztalkatuz, Arte Ederren atarian igurikatu nuen. Hatsanka

zebilen. Tripa airean. Ez zuen orduan euskaltzain ohoratuaren jarrerarik, alajainkoa!

Alimaleko zakurra azaldu zen bat-batean. Txakurren beldur nintzen, herrian auzoko moloza zakarrak ipurdi mazelan ausiki ninduenez geroztik. Uspel borobila ukan nuen zenbait egunez eta laneko lagunek arrabiaren aurkako txertoaren egitera lehiatzea erregutzen zidaten. Izatekoz, eta adiskide hurbilenek baimen zezaketen, zakurraren ordez, ni nintzen arrabiatua sortu. Erremediorik ez zen. Kondenatua nintzen. Halaz aberea ikustean urrats bat gibelera egin nuen, teeeizi, teeeizi, Bilboko zakur batek ene Iparraldeko txakurrera ulertuko zuela esperoan. Piztia izugarria nitarik urrundu zen eta Jean Martin Gorringoren ondotik erotu: haragia bazuen hor, freskoa, odoltsua, nasaia. Menturaz zakurrak ez zuen nehoiz beste ametsik eduki.

Gizon trapu trapatua karrikan zen jadanik, boz lakar batek zakurra deitu zuelarik. Suposatzen nuen Gorringo Elkano etorbidean urtu zela. Azkenekoz begimendu nuelarik, maletarik ez zeraman eskuan. Nori eman zion? Non zen? Zikinontziak mirazkatu beharko nituen. Bederazka.

Betekizunak gohaintzen ninduen. Baina aurretik neure bihotzaren erdiaz arduratzekoa nintzen. Han zegoen Carmen, lurrean etzanik, itsu eta begiak ibai, bere burua ihesean asmatzen zuen gizon kankail batek kolpatua.

– Maitea? Bizirik haiz bederen?

– Ez dinat deus ikusten. Mokanesik baduna?

– Zorigaitzez, ez.

– Eta Gorringo?

Carmenek ez zuen iparra galtzen, eiki. Zakur astapito zikin baten erruz, egoeraren latza kontuan edukiz lerdoki mintza nindaikeen alabaina Maripetipier ala Nakosaren antzera deabrua sar balakio, Gorringo eskapatu zitzaidala aitortu nion, gizona ere zakur ustelak zaintsuki haiatu zuela eta Elkano abenidan lurrindu zela. Baratzean maletarekin zebilen baina ateratzean, eskuak huts zituen. Carmenek hasperena borobildu zuen:

– Eta orain? Non atzemanen dugu gizon hori? Eta maleta?

– Maleta baratzearen aixolbean dun, nonbait zikinontzi batean edo sasi baten azpian.

– Beharbada jadanik baratzera itzuli dun, gu hemen estiraz estira gabiltzalarik. Zotüka gaitezen. Non gurutzatu duzue zakurra? Zein bide egin du gero Gorringok baratzetik jalgitzeko?

Haztamuka zutitu zen Carmen. Ibiltzen lagundu nuen. Ez zuen deus ikusten. Edo gutxi. Arte Ederren museorantz zuzendu ginen. Baratzeko umeak eskola zein etxeetara joanak ziren. Autoen azantza salbu ez zen deus entzuten. Isilik aitzinatzen ginen, Carmenek noiztenka oihutxo bat aurtikitzen zuela. Ondoren, zikinontziak eta sasi zolak arakatu genituen, metodikoki.

Aurkikuntzak pozez bete gintuen: bussinesman maleta han zegoen, erakustokiaren laugarren sarreraren maldan, Gorringok, zakurra atzetik zuela, abandonatua. Carmenek zera paporatu zuen, inkesta zailaren garapenean, irabazpen-trofeo.

– Hau gure badinagu hondarrean.

– Urrats batek beste bat deitzen din.

Filosofatzeko ohitura uholdetu zitzaidan. Filosofoa baino sofistagoa nintzela iruditu zitzaion Carmeni, sorbaldan keinu arinaz sariztatzen ninduela. Erranahiz hutsak ziren perpausak lerroka-

tzen nituen, zer ahoska ez nekielarik. Laneko kolegek ere usantza arin hori azpimarratzen zidaten.

– Bai, filosofia ongi da, baina praktikan zer?

– Filosofia pixka bat ere behar da ez?

– Ez dugu denborarik. Negarrez ari gara, greban jartzeko ordez.

– Greban?

Ene harridurak lankideak zur eta lur uzten zituen. Gaurkoan, maleta papondoan zeraman Carmenen antzera. Funtsean, euskaldun zahar frankoren moldean, erran zaharrez hazten nintzen: ezintasuna irri eta ironia zozoaz apaintzen nuen.

– Eta giltza.

– Nora jo zuen Gexan Hiriartek?

– Hortik.

– Segur hiza?

– Nola ez?

Soa ibaira ezkeldu nuen. Doña Casilda parkea Bilbotik Santurtzira zihoan burdinbidearen aldamenean zegoen. Hiriart hortik pasatu zena, kaiertzez kaiertz hiri erdiratzeko? Halatan, maletaren jabe, filmetako espioien pare eskuburdinez

lotzen ahal genion ukaraiari, zuzen-zuzen Nerbioi aldera abiatu ginen, lehenik burdinbidea zeharkatuz, gero kaiertzeko barraka eta egoitza doien erditik pasatuz, azkenik Deustuko zubiaren itzalera heltzeko. Carmenek karta bat erakutsi zidan:

– Ebaristo Txurrukaren kaia.

– Eta Deustuko zubia. Bilboko zubirik bereziena. Ordulari bat, uraren gainean. Ez ote ziren hemen biltzen Euskaldunako langileak, nagusiek altzairu eta ontziolak hertsi zituztenean?

– Bai naski. Garai hartako arduradun politikoek Europa guztia burdinaz biluz utzi zitenan. Vigon ere ez zunan astelehen eguzkitsurik ernatu.

– Eta ikazkinen urte beteko greba Ingalaterran. Decazeville zein Longwyko burdinezko ihardukiak: debalde.

– Euskalduna jauregia hor dinagu orain.

Zubiaren azpitik iragatean, Nerbioiko urak hogei urte lehenago baino garbiago zitzaizkidala salatu nion Carmeni. Hiriak ordea behialako altzairu, kedar eta ikatz usainaren aztarna nostalgikoak gatibatzen zituen, hats hartzen genuen

airearen aberasgarri. Haizea eurira edo hegora makurtzen zenean adibidez. Carmenen aita nafarra Euskaldunan ari izan zen lanean, biriketako minbiziak eraman zuen arte. Ama andaluzak garbiketa egiten zuelarik lantokiko ingeniari baten familiaren zerbitzuko. Gizona alderdi jeltzalekoa zen, burgesa, manatzailea baina, Carmenek agertzen zuenez, gisakoa. Bilboko adiskidearen jatorriarekin kontrestan, ni hari zoharrekoa nintzen: aita eta ama, biak, herri berekoak ziren, elkarren auzo ez izan arren. Jean Martin Gorringo eta Gexan Hiriart halaber. Gogoan nuen karia horretara, sare zibernetikoan artikuluak berriz irakurri nituelako menturaz, Gexan Hiriart apezak *ye-ye* belaunaldiko euskaldun gazteei nola gomendatzen zien odola garbi atxikitzea, ez nahastea, ez zikintzea, ez beltzatzea, ez arroztea.

Kaiaren erdian, bat-batean, arropa higatu meta bat begiztatu genuen. Ur hegian. Hurbildu gintzaion: palto grisa eta txapela hor zeuden. Norenak ziren? Paltoko sakelak karrakatu genituen, eta barnean dirurik eta nortasun paperik ez zeukan poltsa aurkitu genuen. Idazki labur

bat bazen ordea. Desplegatzera lehiatu ginen, eta leitu genuenak bide onean ginelakoa berretsi zigun: *Santa Engrazian dago giltza*. Hitz horiek oihukatuz urrundu zen Gexan Hiriart Doña Casildako baratzetik, gas negargileak Carmenen muturrera botaz. Jantziak, beraz, Hiriartenak ziren.

Aurrean Guggenheim eraikuntzaren handitasuna zegoen, argiarekin ortzadar. Agian bilatzen genuena han zen, Kleinen tinta urdinezko margoen aitzinean, belauniko. Hala espero genuen behintzat. Eguzkia hedoi astunen artetik ziztatzen saiatzen zen. Salveko zubiaren parean ginauden. Erraldoia zen, autoak burrunbaz iragaten zitzaizkion gainetik eta bihi bat ez zen Nerbioira erortzen, jainkoari esker euskaldun zintzoak lerrakeenez. Lehen aldikoz ikusiko bagenu genion zubiari so egin. Begiak altxatuz oraino Matiko auzoa baino gorago, Artxanda mirets genezakeen. Buruko mina arindu zitzaidala ohartu nintzen, baina egarriak erretzen ninduen:

– Kafea har dezagun nonbait, laztana.

– Ez dinagu denborarik.

Carmen ene ikerketan belarrietaraino zebilen. Ez zuen pausarik onartzen. Zinezko bilbotarren moduan, bazekien burdina bero zeno lantzen zela. Jeff Koons-en Puppik errezebitu gintuen Guggenheimeko sarreran. Zakur honek ez ninduen den-mendrenik kikiltzen. Bazterrei barranda ginaudela, Turismo Bulego zeregina zeukan egoitza prefabrikatuaren saihetsean, beste beribilen erdian, 4L lohizu bat bazen. Txistuka hasi nintzen:

– Ez da posible, ezin liteke...

– Iparraldeko matrikularekin. Gure lagun berriena balitz?

– Aztertu behar dinagu...

– ...eta indizeak bihikatu.

Bizkarrean zeraman zakutik Carmenek eskularru zehargiak jalgi zituen. Pare bat eskaini zidan. Kotxea hunkitzean, behatz hatzik ez uzteko alabaina. Pentsalari zuhurra zen Carmen. Gidariaren aldeko atea irekitzeari ekin genion. Arrakastarik gabe. Eskuinekoa gero. Berdin. Atzekoarekin suerte gehiago ukan genuen. Hargatik, barnean, euritako beltza salbu, ez zegoen deus. Matrikula apuntatu nuen karnet txiki ba-

tean, deituko ninduenean Jean d'Amouri galdatzeko.

– Adiskide bat badinat Bilbon ertzain, Estevez, jatorriz galegoa.

– Telefonatu beharko dion bertan, jakiteko zer agitzen den auto honekin. Ebatsia seinalatua denez. Adibidez.

– Arrunt.

Arratsaldean egitekoen zerrenda osatu nuen, Carmenek Guggenheimen sarrerako hegi batean jarririk, laguna heiatzen zuela: kafe bat, Santa Engrazia non den xerka, bazkaldu eta siesta txiki bat, zainetan zebilkidan *haizearen elektrizitateaz* hustea helburu. Bilbok voltez hanpatu zutoin moldatzen ninduen. Gorputz barneko hariak tximista eta pindarka ari zitzaizkidan, elkar joaz gurutzatzen zuten ber. Elektrika hizkuntza baino errazkiago transmititzen nien, esku ahurraz ukitzen nituen jende, gauza eta kabala guztiei. Alor magnetikoak ginen, Bilbo hala zen, amodioa hala zen, arroztasun salbagarria hala zen.

Guggenheimen sartzean ostatura eramaten gintuzten geziak segitu genituen. Kleinen erakusketa kafetik landa ikusiko genuen. Mintzairak

mustupilkatzen zirela, bisitarien arramantzak burtzoratu ninduen, gosari epel usainek bezainbat. Goragale une bat jasan nuen eta Carmenen besoari lotu nintzaion. Carmenek besarkatu egin ninduen eta oinak lurrean itsatsi zitzaizkidan, errealitateak bere atzamarretan lardaskatua.

Mugikor batek jo zuen.

# Rex tremendae

Neurea zen alatxilintxoia!

Paltoko sakela zolan zegoen eta, zerbitzariak kafeak ekartzen zizkigula, bila eta bila ari nintzen, mahai gaineko puska guztiak itzulipurdikatuz. Azkenean botoi berdea zapatu nion:

– Bai?

– Jean d'Amou naiz. Aitzinatzen zara ala turista alfer zabiltza Bilbon?

– Ez. Bai. Ezbai. Zure aita ikusi dugu Doña Casilda parkean. Jean Martin Gorringorekin.

– Gorringo urde zikin horrekin?

– Zein dira Gorringo eta zure aitaren harremanak?

Isiltasun uneak bahitu zuen linea. Zintzur karraka baten ondotik, mintzatzen hasi zen Jean d'Amou:

– Lehia handia daramate biek. Batak euskararik ez daki baina linguista ospetsua da, eta besteak euskara jakinki ez du teologiako diplomarik baizik. Garai batean ene aitak hiztun autoktonoarena egiten zuen Gorringorentzat. Halaz

bere teoriak frogatzen zituen. Sinesten du oraindik ere, hizkuntza, gurea bederen, instintoaren alorrean egiaztatzen dela.

– Eta zer gertatu zen gero?

– Et bien, aitak Bilboko ikerlari baten ezagutza egin zuen. Bere lau adiskideekin Bilbora zihoan astean behin, Euskaltzaindiko hilabete oroko bilkurez gain, ez dakit zuzen zergatik. Badakit ordea pozik eta egoa sosegaturik itzultzen zela. Ongi bazkaltzen ziren. Jende famatuak gurutzatzen zituzten. Gorringo tratamendu berezi hortaz jeloskortu zen, ohorea osoki beretzat nahi zuelako.

– Goiz honetan –Jean d'Amouren perpausaldia moztu nuen– biek hitzordua zuten hemen Bilbon, eta nondik mila deabru ezin asma, Gorringo parketik jalgi da maleta batekin. Alta Gexan Hiriart maletarik gabe etorria zen. Edo zerbait huts egin dugu.

– Menturaz... Erran behar dizut enigmari buruz, aitak Santa Engrazia izeneko tokiak izugarri maite zituela. Badakizu zergatik?

– Nola nakike?

– Apeztu aitzineko urteetan Graziana deituriko herriko neskatxa batez maitemindu zen. Seminarioan sartzean abandonatu zuen, haurdun zela. Etxekoek zazpi umeetarik hirugarrena elizarentzat zuten eta ez zuen oldartzerik.

– Graziana hori zure ama da?

– Zen, aspaldian eman zuelako azken hatsa. Umezurtz gelditu nintzen hamalau bedatsetan.

Ez nintzen asko aurreratzen. Etsipen keinua libratu nuen kafe goporra ezpainetaratzean, parean neukan Carmeni begiratzean. Jean d'Amou entzutean iruditzen zitzaidan, gaztetan arretaz irakurri Emile Zolaren nobela baten bihotzean murgiltzen nintzela, destinuaren hitsa, borondate trabatua eta, azkenean, *j'accuse* oihukatzear nengoen. Bizitzak tristeak ziren. Dira, batzuetan. Dirateke, bihar ere. Carmenek ahurra neure esku bizkarrean pausatu zuen. Gozo zitzaidan. Estira menderatuz, segitu nuen:

– Uste duzu, orain errekuperatu baitugu hondarrean, guk dugun maletaren zabaltzeko giltza Santa Engrazia kapera horietarik batean atzeman dezakegula? Non aurkituko ditugu?

– Euskal Herriko mapa har ezazue eta han dituzkezue.

– Santa Grazi izan daiteke?

– Beharbada.

Desesperatzekoa zen. Carmenek zehazki gerizatzen zuen maletari behatu nion tematsuki. Eta briu-brau, solasaldiak bat-batean ebakitzen ziren Jean d'Amouk erabakitzen zuenean. Telefono zelularra plegatu nuen. Eta 4Laren matrikulaz zer? Gerokoak geroko zioen Axularrek, gerokoikeria aldi berean gaitzetsiz. Bizkitartean, Guggenheimeko kafetegian jendea hara-hona zihoan, hizkuntzak elkar joka ari zirela.

Euskal kulturaren ezkerreko abarra ihardoki zitzaion Guggenheim proiektuari, diru guztia luxuzko xede horretan gastatuko eta eguneroko kulturarentzat pilixkarik ere ez zela gelldituko deitoratuz. Nik halaber, besteen antzera, salatu nuen Guggenheimen eraikuntza, baina urteak joan ahala gustatzen zitzaidan, noiztenka bertan erakusketa baten mirestera etortzea ene Iparralde zulotik. Halaz, otsail euritsu batez, Pier Paul Rubensen margoak ikusi nituen, astiro, eta berehala, kafea edanik Yves Kleinena irentsiko nuen

edo Yves Kleinen taula urdinek ninduten irentsiko. Frank Gerhyren titaniozko egoitzak salbatu zuen Bilbo industria egituren erraustearen zepoan behera erortzetik: arrakastatsua suertatu zen, eta Gasteiz ondoan, Errioxako ardotegi erraldoiak arkitekto berari prestigiozko hotel futurista baten marraztea manatu zion.

Zer lotura zen Jean d'Amouk aipatzen zidan Santa Engrazia kapera pobrearen eta Guggenheimen modernoaren artean? Jokoa agian: kaperak soil eta biluz ziren, bakoitzak beraien basamortuen erdian eta Guggenheimeko bastiza argiarekin, eguraldiarekin eta ikusleen begiekin jostatzen zen, itsu eta zoramena haziz. Denborak aldatu ziren, kamarada! Itxura nagusi zen garaietan ginauden jadanik. Ninikak mukuru beteak desiratzen genituen, ekintzak, geldiune gabetasunak, bestela dirua gibelera itzultzea bortizki exijitzen genien espektakulu bizidunen antolatzaileei.

Carmenen mugikorra daldaratu zen. Estevez! murmuratu zuen.

– Orduan?

– Izen bako hilotz bat daukat. Hiltegian.

– Gure lau euskaltzainetarik bat?

– Ez dakit. Ikustera beharko zenukete!

– Txapela buruan dauka?

– Ez, hiltegian hilotzak larru gorritan datxizkagu.

Irri gordinaz lehertu zen Estevez, eta Carmenek telefonoa belarritik urrundu zuen, lagunaren oharra jasanezin baitzitzaion. Hitzari berrekin zion:

– Ez du inork hil horren gorputzik eskatu?

– Badu hiru egun hemen dugula. Ertzaintzako patruila batek bildu zuen Kasko Zaharreko katedralaren kalostrapearen maldan. Ez dakigu nor den, nondik datorren, bakarrik adin bat baduela... eta ez dela labana ukaldika zendu.

– Ez da gaizki, Estevez. Bere buruaz beste egin du?

– Egin badu lortu duela ziurta diezazuket, maitea. Zer ordu da? Arratsaldeko biak. Kotxe batekin bila natorkizue. Lauretarako, demagun.

– Guggenheimeko kafetegian gaude.

– Hitzordua beraz Puppiren azpian.

Astia bagenuen. Saihetseko mahaian bikote frantziar batek agerroi irekitzen zuen egunkaria-

ren tituluak presaka irakurri nituen: Bombayn zazpi bonbek trenean berrehun jende hil zituzten, Israelek Libano hegoaldea eraso zuen, eta frantziarrak harro ziren Zinedine Zidanek Materazzi italiar kesoari eman zion buru-kolpeaz, aburukien arabera, ehunez hiru hogeiek txalotzen omen zuten futboleko izarraren jestu larria. Zidane gizagaizoa iraindu zuen italiar salbaiaren aurka zeuden denak, bi hamarkada zuela guztiek Schumacher atezain alemana laidoztatu zuten eran. Bitxiki nehork ez zuen Lance Armstrong amerikarra gorrotatzen, asto odol oxijenatua zainetan txertatuz zazpi Tour segidan «ebatsi» zituela egotziz.

Carmenek kafea bukatu zuen. Kikara baztertu nuen nik ere. Frantziako berriak eta edari beltza hurrupaturik, hobe nintzela aitor nezakeen:

– Goazen Kleinen erakusketara, badinagu denbora.

Ikerketa, Hiriart, Gorringo eta Euskaltzaindiko aferak buruetarik baztertu genituen. Mugikorra eho nuen eta zakuaren zolaren zolara bota. Ez nuen nahi Jean d’Amouk bere dei zakarrekin, ene plazera egoista kutsa zezan: Kleinen margo

eta zizelkiak hor zeuden, metatuak izan gabe txukunki seinalatuak, eder eta hunkigarri. Behereko gela handian, lurrean pausatu Richard Serraren altzairuzko bi peza astunen erditik pasatzean, ilunperik ilunenean, musukoi, ezpainak juntatu zitzaizkigun.

– Burdin-zizelki berdina badun Berlinen, Filarmonikoaren egoitzaren aitzinean. Potsdamer Platzen gibelean.

– Izan haiz Berlinen?

– Berlinen, Vienan, Parisen, Atenasen, Erroman, Madrilen, Reykjaviken eta Baionan. Hire atzetik beti.

– Ene atzetik? Eta ez naun sekula atzeman...

– Ez, baina Berlinen Murrua jo dinat. Hiri siamesa erdizkatzen zuen Murruaz baratzen diren zatiak hain zuzen. Negar egin ninan East Side Gallerien, begi-bistan nuenak, hire eta neure arteko horma hautsezina zirudielako.

– Patetikoa.

– Europan barna ibili eta tipustapastean, ustekabetarik, nire sor hiriaren minean aurkitzen haut. Ez dinagu nehoiz gehiago elkar utzi behar!

– Nehoiz ez gehiago.

Yves Kleinek tinta urdina purruxkaz purruxka osatzen zuen, urrea eta neguko hotzek setiatu baserri guneetan bildu arbola abar, hosto eta beste lore hirotuak baliatzen zituen arren. Sua erabiltzen zuen, pintatu taulen koloreak sepiarazteko, eta emazteak margo antropomorfikoetarako. Hiriarten enigmatik limits batez urruntzeak on zegidan eta barne-monologoa harilkatzen segitu nuen: Yves Klein, artista askoren antzera eroa zen, bere arteaz baino ez zen bizi eta tindatzeko baliatzen zituen ekai kimikoek kiskailirik hil zela ikasi genuen. Carmeni erran nion, Kleinen urdin sakonak mihia akuilatzen zidan alainan, arte garaikidea maite nuela, irria eta gogoetaren bozkarioa sustatzen zizkidalako, Anselme Kiefer-en altzairuzko liburutegi erraldoia, Jenny Holzer-en hizki-uharrak, Blincky Palermino eta On Kawararen marra minimalistak John Cageren olerki bertikalen lagungarri, John Baldessarriren Art Desaster bideo luzea eta Elke Krystufer austriarraren bere gorputz propioarekiko diskurtso pornoargazkigrafikoa.

Carmenek elea lapurtu zidan:

– Eta italiar primitiboen hiruko taulak.

– Giotto, Hokusai eta Caspar David Friedrich.

– Arteak zoriontsu egiten gaituela egia dun. Ez ote dinagu aterantz hurbiltzeko tenorea?

Hala zen.

– Eta gure ikerketa?

Bi orduko pausaz gozatu genuen. Hargatik, erakusketako ibilbide, gordegune eta sagu-pasaiak aztertu genituen, alegia deus ez, Gorringo ez zela bertan segurtatzeko. Gizon lodikotearen hatzik ez zegoela errepikatzen genuela Puppiren maldara presatu ginen.

– Agian Axular hotelera itzuli dun.

– Baliteke. Hiltegitik bueltan bisitatxo bat eginen zionagu.

– Hara, hantxe Ertzaintzaren kotxea. Ez dun biziki diskretua, baina...

– Baina zer?

Carmeni ene ohar zozoa ez zitzaion belarriko.

Estevez agurtu genuen, Carmenek nik baino samurkiago, egiaz. Aurkezpenak egin zituen. Autoko musika entzungailuan gaitak ozen zebiltzan, Bilbo bazterkatzen genuelarik: Bizkaiko golkoaren beste puntan ginauden araz eta moldez. Estevez elekaria zen:

– Noiztenka, krima bat edo agitzen denean Bilbon, Carmen deitzen dut. Eskubiderik ez dut, baina badakit beharrezkoak dituela nere xehetasunak bere nobela arrosa-beltzentzat. Carmenek hiltegia ongi ezagutzen du eta Ertzaintzaren Errekaldeberriko komisaldegi txikia. Noiztenka ere, sekula itzulikatzetik gelditzen ez den Bilbo honetan barna, patruila autoan hartzen dut neurekin, gauez. Aldi berdinean, miseria ikusten dugu eta jende aberatsen lehia gosea. Ez dabiltza elkarren aurka, baizik eta bata-bestearen asetzaile. Ingelesek beraien gida-liburuetan *pink zone* izendatzen duten kartierrean, Kasko Zaharra eta Merced zubiaren artean hedatzen den horretan, argi da mutilak txortarako bilatzen dituztenak klase ertainekoak direla, eta mutilak droga eskuratzeko prostituziora bortxatuak. Ez beti, baina ardura. Sistemak tristatzen ahal gaitu, ilunpearen atzapar likitsetarik Carmen hautsia jazartzen da, gauzak bortxazkoak izan arren, hein handian norberak bere borondatez egiten ditu, destinuaren bilakaera kontrolaezina baita, gurea krimaren hedatze bidegabekoa ekiditean

datzalarik. Pobreziari ez diogu hilketaren sarraskia eransten utziko ezta?

– Ez noski.

Basurtuko ospitalearen ondoan zegoen hiltegia. Estevez gidari, Carmen eta biok atzean ginauden. Kanpoan zerua apaltzen ari zen eta laino beltzak Artxanda gainean galernatzear zihoatzila iruditu zitzaidan. Karrika hertsietarik abenida handietara pasatzen ginen, plaza borobilak ziztu bizian trebeskatzen, are lasterrago joateko Estevezek girofaro ubel karrankaria baliatzen zuela. Bat-batean, *Taxi Driver*-en ginen, edo *Dragoiaren Urtea*-n, nork nola nahi. Hiriak jendeak hiltzaile gisa itxuraldatzen zituen, hiltzaile sinbolikoz, bistan dena. Kideari aurrea hartu behar zitzaion, berdin zen nora heltzeko. Bihotz Sakratuaren errotondan ezker hartu zuen Estevezek, Erakusketa Areto berria eta gaztaroan *dastatu* genuen San Mames kiroldegia saihestuz. Egoitza zurbail baten aitzinean, motorra eho zuen Estevezek, guregana bihurtzen zela, kokin:

– Iritsi gara neskak! Denak oro jaits daitezela.

– Kalbarioa haste –erran nuen–, hilotzak ez ditzaket jasan.

– Carmen, badakizu zer egin beraz –erantsi zuen Estevezek–: erakuts iezaiozu benetan maite duzula! Elkarrekin zarete ezta?

– Bai, ihardetsi zuen Carmenek, duela hogei urte arras hurbil ibili eta ez dakit zergatik, beldurrez agian, edo norberaren baitako dudaz, edo bakoitzak ustez bizitza hobea merezi zuelako arroztu ginen. Barda egin dugu amodioa biek lehen aldikoz eta zinez. Ukitzen ginen elkar baiki, baina zer eta nor ginen zinez aitortu gabe...

– Damuak?

– Erantzunik gabeko galdeen mamuak baizik ez.

Jadanik eter eta jabela urrin zerizkion etxean sartzen ari ginen. Estevezek harrera bulegoko andereari luzatu zizkion nortasun agiriak. Baimen-kartoitxoak zintzilikatu genituen papoan. Kuluar hotzetarik genbiltzan, isilik, herrokan, Estevez buru. Ez nintzen sobera fida. Carmen ene trenpu txarraz ohartu zen. Aire sostengakorrez lurrean iltzatu ninduen, aitzina behar nuen, ez atzera, ohikoan nola. Baiki, ulertua nuela irakaspena, barneratua, ez zuen balio errepikatzea.

Berina zehargiak, hodiak, tresna zibernetikoak eta jantzi zuritan apaindu kideak zebiltzan gela zabal bateko atea bultzatu zuen Estevezek.

– Egun on. Hara, Altamira medikua. Miren Altamira. Hiltegia kudeatzen eta zuzentzen duena.

– Ongi etorri, hilik ere norbait izan dela orain-dik berrets daitekeen ezerezaren gela gelbera honetara!

– Herenegun ertzainek ekarri diguten hilotza ikusi nahi dute bi neska xarmant hauek.

– XPI265 zenbakikoa?

Miren Altamiraren profesionalismoak ez zion lekuak sor zezakeen gohainari bide izpirik zilegitzen. Hemen ari zen lanean, supermerkatu batean bailitzan. Emazte ederra zen gainera, egiazko euskalduna ene irudiko, bizkaitarra menturaz, mendi eta itsaso erdizka, ez biziki handia, aitzurraz ezpalkatu aurpegi eta ikatza bezain beltz ziren ile luzeekin. Irri egiten zuenean, hortz guztiak agertzen zitzaizkion, irriari poza gehitzen zitzaiola, debaldeko arrangurak, bereak eta besterenak, oro ezabatuz.

Gela karroindu batera eraman gintuen. Murru zuriek eta beira itsuek tokiari hil hobi kutsua

ematen zioten. Bazterretan aluminiozko taulak ageri ziren, inguruaren hotza neurtzen zutela. Hozkailutxoz hanpatu horma baten aitzinean plantatu zen gure taldea. Miren Altamirak XPI265 zenbakia bilatu zuen, Estevez eta Carmen eguneroko bizitzaz mintzo zirela lasaiki. Lasai ez zihoan bakarra nintzen. Sabelaren barnea iraultzan nabaritzen nuen. Nahasi zen oraino, medikuak aipatu hersturatik ohe bat jalgiarazi zuenean.

– Hau al da xerkatzen duzuenetarik bat?

– Amaia, atera itzan argazkiak!!!

Erabat ahantzia nuen zertarako hor nintzen, disgustuak kateztatzen ninduelako. Bizkarreko zaku txikia ireki nuen, argazkiak lehen xixtan atzeman gabe. Ene saihetseko kideak berantets zirela ohartzen nintzen alainan:

– Hara. Ez da Gexan Hiriart. Ez eta Pierre d'Oihenart. Are gutxiago Albert Labruquere. Manex Bergeret izan daiteke?

– Hori hik erranen dun laztana –ebatzi zuen Carmenek argazkia nik baino xehekiago aztertzen zuela.

– Begira, Bergeret-ek kokotsean halako turrunpilo bat bazinan eta honek ezer ez.

– Turrunpiloa ala kalitxa?

Miren Altamiraren galdea zen. Estevezek segitu zuen:

– Zure irudiko Miren?

Eskakizunak hegaldatzen ziren. Hilotzari xerrent beha nengoen. Larru-has zen eta gorputzak zahartasunaren akiduraren marka guztiak zeuzkan: azal zimurtua, hezurrak haragi pleguen asaldagarri eta kopetan zauri bat. Miren Altamirak, labana distiratsuaz, gorputza marrazten zuen, edozein zitziren maneran. Carmenek soa ezkeltzen zuen. Estevez huxtuka aditzen zen, atzeko leihoaren maldan.

– Ez dut uste Manex Bergeret denik –ahoskatu nuen azkenean, baina gero–: baliteke argazkia duela zenbait urtekoa dela eta gaurkoan gizona anitzez higatuagoa izatea.

– Izenik gabe gelldituko da beraz hilotz hau ere –erantsi zuen barre eztiz Miren Altamirak.

– Menturaz.

Irakurri edo entzun bagenu bederen desagerturiko lau Iparraldeko euskaltzainen berri egun-

kari eta irratietan! Apez erretiratuak izanez, ez zuten beraien makurrez kezkatuko zen familiarik, salbu Gexan Hiriartek Jean d'Amou bere semea. Galdutzat ematen ziren, arima eta gorputz, mugaz haraindiko euskara galtzen zihoan bezala, nehor arranguratu gabe, indiferentziarik handienean. Miren Altamirak Estevezen erranak baieztatu zituen: XPI265 hila Kasko Zaharreko katedralaren kalostrapean aurkitu zuten ertzainek, goiz batez. Ez zuen paperik. Ez zuen puskarik. Identifikazioa erraztuko zuen ezer. Inguru haietako eskale eta buhameei xehetasunak eskatu zizkieten, eta jakin zuten soilik, bazela hiru egun leku horretara azaldu zela, ez zuela inorekin traturik eta heriotza zirudienez naturalki etorri zitzaiola, sinpleki, ordua zelakoan.

Oka egiteko kinkan nengoen. Gorputz hormatuaren ustel bilakaera irudikatzen nuen. Imajinazioaren eragina zen, prefosta, habia giltzatu horietan hilotzak luzekiro kontserbatzen zirelako. Miren Altamira ene pairamen fisiologikoaz ohartu zen:

– Galtzetako sakelan paper puxinka hau atzeman diogu. Beharbada interesatuko zaizu, Amaia.

– Mila esker –murmuratu nuen, paperari itsu eta gor.

Erraiak plaka tektonikoen antzera higikor sumatu nituen, lur ikara, tsunami eta sumendi bortitz. Hilotzari pentsatzenago eta goiti egiteko indarra kontrolaezinago zitzaidan. Lagunak bertan abandonatuz, lasterka atera nintzen, etengabeko kuluarretan barna, bukaerarik ez zuten, esku bat ahoan eta bestea sabelean, airea behar nuela errepikan. Bidean, bizpahiru jende harritu kuzkatu nituen. Hondarrean, hiltegiaren sarrerako atean kausitu nintzen eta bota nituen egun hartan jan apurrak, eta gehiago dena, bezperan edanak oro. Estomakaren kontrakzioak gogorrak ziren. Bedamina nuen botatzen, bedamin kiratsa, bizitzan metatu bedamin guztia.

Hiltegiaren aurreko eskaileretan jarri nintzen, hatsanka, aho-sabaia sutan eta arras akitua. Burua apaltzen eta hatsa hartzen nuen. Egiazki, ez zitzaizkidan hilotzak gustatzen. Horregatik ene inkestak egundainokoan, baserriko gertaka-

rien alorretara mugatu ziren, ardi, zaldi, haur, zahar edo ohaide eratuak bilatuz, hain zuzen. Hiritarrentzat aspergarriak ziren, baina niretzat jasangarrienak. Sabeleko uhinak jabaldu ziren. Ahotsak hauteman nituen. Estevez, Miren Altamira eta Carmen zetozen.

– Haugi bihotz, ahoa garbitu eta ura behar dun.

– Baiki. Munduko miseria aurtiki eta kafe azkar eta usaintsu baten premia dinat.

– Ondo saus?

Miren Altamira mintzo zitzaidan. Papereko idazkia Iparraldeko euskaraz izkiriatua zela azpimarratu zidan, berak ez zuela fitsik ulertzen, badakizu Iparraldeko euskara guretzat hizkuntza arrotz bat da, gaineratzen zuela. Ohar horien ohitura neukan. Ahots ahulez erantzun nion:

– Orduan, hozkailuan daukazun hilotz hori Manex Bergeret daiteke.

# Recordare

Basurtuko hiltegitik atera ginen. Estevezek agurtu gintuen, eguna ez zuelakoan oraino bukatua. Hargatik, hirurok elkartzeko hitza Engelblau ostatuan finkatu genuen, gauerditan. Artean, Carmen eta biok bagenuen mila gauza egiteko, hala nola Axular hotelera joatea eta ahalaz Gorringoren logelaren mirazkatzea, eta Joseba, Carmenen lagun batengana jotzea, maleta irekitzen ahalko zuelakoan. Joseba *bank robber* bat izan zen laurogeiko hamarkadan eta, abentura kartzelan bukaturik, afera ilegaletarik urrun baldin bazegoen, kofreak zabaltzeko trebetasun naturalak irauten zion. Artxanda gainean eraiki zuen mobil-home batean bizi zen Joseba, emaztea eta hiru haurrekin.

Ez genuen alabaina amodiorako asti askorik eduki arratsalde hartan. Hizketarako bai ordea. Onera nentorren eta Manex Bergeret izan zitekeenaren hilotzaren aitzinean pairatu nuen trenpu txarra oroitzapen mikatz bilakatzen ari zitzaidan. Halaz, tranbian sartu ginen Arriaga plazako

Boulevard kafetegia helburu. Bilboko trena polita zen, berdea eta ardura bisitariz betea, batez ere, ohartu ginen eran, Guggenheim aldera iristean. Jendeak ez zuen maite oinez ibiltzea, herresta pobre baten antzera, nora ez. Orduan, garraio publikoetan gordetzen zuen bere bakartasuna, edozein hiritan eta noiznahi babesa eskergarria zelako.

Basurtu, San Mames, Sabino Arana, Euskalduna, Abandoibarra, Guggenheim, Uribitarte, Pio Baroja, Abando, Arriaga, Rubera, Atxuri: lineako geltokiek Bilboren historia laburbiltzen zuten, hiriaren hedapena, euskal nazionalismoa, kirola eta literatura, industri-aroa, berrikuntza eta kultura burgesa. Mendi mazela batetik bestera zihoan, aska azpilduz. Carmenek eskua atxikitzen zidan eta burua haren sorbaldan neukan. Trama bezain isil genbiltzan. Noiztenka soako bat, samurra, trukatzen genuen. Guggenheimen paretik iragaten, burdinazko armiarma erraldoiaren zangoek mehatxatzen nindutela iruditu zitzaidan. Carmenek ene lotsa eztitu zuen:

– Lasai, laztana, mamu ikaragarri hori Louise Bourgeois andere xaharraren *Ama* baizik ez dun.

– Ama? Amak horren piztia al dira?

– Batzuetan bai, beraien tentakulu ilezuak haurren, eta sustut alaben bihotzetara aurtikitzen dituztenean.

Irri egin zuen. Uribitarteko zubi zuriaren maldan turista amerikar zaratatsu multzo bat jaitsi zen. Baziren frantses eta alemaniar batzuk, mutu, serio eta begiak bideo-kamera numerikoetan txertaturik zeramazkiten. Amerikano franko bazetorren Bilbora, ez Iruñeko San Ferminetara bezainbat, baina anitz hala ere. Jendaldearen mugimenduei beha, ohartzen nintzen aise ahanzten nuela ikertzekoa nuen kasua. Betazalak apaldu nituen, Bourgeois anderearen *Ama* mamua itxuratu nuen eta ez aspaldi, telebistan begietsi Pink Floyden Berlin-eko *The Wall* kontzertuaz gogoratu nintzen: Sinead O'Connor, gehien gustatzen zitzaidan irlandar abeslaria, KD guztiak erosten eta buklean entzuten nituen, han zegoen Potsdamer Platzen, oinutsik eta kaskoa ilez arrasaturik *mother do you think they'll drop the bomb* galdezka. Nerbioi ibaia aldamenean neukan, Carmen saihetsean, ikerketa bat bururaino eramateko eta Sinead O' Connorren

eskaerak kaskoan iltze. Burdinazko Erridaua lehertu aurrekoak ziren, eiki. Alabaina Burdina eta Erridaua biak desagertuak ziren.

*Hurrengo geltokia: Arriaga.*

Presatu ginen Kafetegira. Mahai bat aukeratu genuen zoko batean, trankilago izateko. Arratsaldeko seiak ziren. Paseoan zebiltzan bilbotarrez mukuru zen ostatu panpoxa: karkara zoharrak altxatzen ziren, haur negarrak, gizon ahots lodiak eta kafe makinen xirri-xarra etengabeak, pssiiiit kruuuux *ya esta mesa 15*. Carmen manatzera joan zen. Bakarrik suertatu nintzenean paltoko sakelan purtzilikatua neraman Manex Bergeret gaizoa izan zitekeenaren eskuz izkiriatu papertxoa jalgi nuen: idazkera urguilutsua zuen euskaltzainak, eta hasieran ez nion ezer ulertzen. Eskerrak grafologia kurtso bat jarraitu nuela zenbait urte Miarritzeko UEUn, Edurne Gonzalez irakaslearekin. Ondorioz, astiro-astiro hizkien mamia dastatzea lortu nuen:

*Zuringo eta Gorringo*
*Arraultzearen esklabo*
*Nork hil nauen da jakingo*

*Zuria delarik salbo.*

*Santa Engraziren giltza*
*Nahi dugu harrapatu,*
*Gu zaharturik gabiltza*
*Baina behar dugu batu.*

Ouais d’accord.

Ez zitzaidan besterik azaldu. Eta berriz inkesta honen lelo burugabea bihurtzen zihoan *Santa Engrazian dago giltza* izkiriatua zen. Carmen itzuli zenean kafeak eta *delicatessen* zenbait eskuetan, arras harrotua nintzen. Uste nuen urrats handi bat egin nuela: hiltegiko gorputza Manex Bergeret zen eta hiltzailea, zuria salbo baldin bazegoen, Gorringo baizik ez zatekeen. Musu bat eman zidan, kukuska, alegia deus ez.

– Miren Altamira deituko dinagu. Han duena Manex Bergeret baita. Familiarik gabeko apez horri agian euskararen familiak ohore eginen zion.

– Zer ari haiz? Bihozberatzen? Bazekin ongi alta euskararen familiak ohoreak merke dituela, ezta?

– Bababai... Iunfa eta larderia, biak sobera, euskararen familiakide izateko.

Carmenek Miren Altamiraren telefono zenbakia marraztu zuen bere mugikorrean. Hilotza Manex Bergeret zela onetsi zuen. Altamira medikuak gainera, xehetasun garantzitsu bat eman zigun:

– Gizonak Amaiaren argazkian duen turrunpiloa edo kalitxari buruz, azterketa sakonduz, konturatu naiz, duela zenbait urte itsuskeria horren kentzeko operazio bat egin zuela. Zena baita orain!

– Seinale txarra, bizirik geratzen diren hirurentzat.

– Jakinean atxikiko zaituztet, zuzenka edo Estevezen bidez.

Carmenek eskukoan zeukan bozgorailuari esker Mirenekiko solasaldia aditu nuen. Hirurentzat ez, baizik eta bientzat, Gexan Hiriart osagarrian begimendu genuelako goizean berean, Doña Casildako baratzean, Gorringo bortitzarekin tratu egiten saiatzen. Gure etorrerak eta zakur alimale hark trabatu zukeen merkatua. Ederki funtzionatzen zuen egitura bateko harea

pikorrak ginen. Kremaz hanpaturiko pastela ahoratu eta erran nuen:

– Manex Bergereten kopla bederen, ez dun enigma bat.

– Bere hiltzailea izendatzen din argiki.

– Errazegia ezta?

Bai aiseegia zen. Mesfidatzekoa zen. Agian pista hutsala. Menturaz egia. Azken proposamena adostu genuen, kafearen isuri beroak sabaiak eta zintzurrak samurtzen zizkigula. Carmenen niniketan landatu nituen nereak, ameslari. Bat-batean, bizitza osorako haren aldean egotea baizik ez nuen desiratzen. Bilbon bizitzea? Zergatik ez, gure hiririk hiriena zen eta hiria izanez, bizitza baldintzatzen baldin bazuen ere, bizitza bere zabaltasun bakartian balizkotzen zuen. Parisko XIII auzoko urteak iradoki zitzaizkidan eta nostalgia uhin batek gainditu ninduen: gauez ibiltzen ginen txinatar kartierrean barna, lanetik Mandarin Massena jatetxeraino, han Asiako jakiz asetzeko, sakea burrustan zetorrela ordu batetik aurrera. Mauleratzean, txinatar giroa falta zitzaidan, hiri erraldoietako estresa eta anonimatoa. Zuberoako herri gris eta euritsuan, Li Bai irakur-

tzen nuen, iraganaren puska zenbaitez arras desjabetua ez izateko. Bilbon, Carmenekin, hiritartasuna berraurkitzen nuen.

Baina ez nintzen soilik turismorako Bilbon.

Erdiko Inperioko dragoi koloretsuek hazitako gogoetetan nenbilela Carmenek Josebari deitu zion: Artxanda gaineko mobil-homean, Josebaren andere ijituak hartu zuen telefonoa.

– Uneon es dago.

– Noiz ikusten ahalko dugu?

– Es que es dakit.

– Bihar etxean izango da?

– Es dakit, es dit ser esan. Badakisu hamen inguruban polisi kotxe asko da. Gorpus bat harrapatu dabe. Gison sahar batena.

– Banator bertan.

– Carmen, mesedes es, peligrosoa da, polisi asko dau.

Neska-lagunak solasaldiaren bilduma eskaini zidan. Planak aldatu genituen: lehenik derrigorrez Artxandara eta gero Gorringoren Lopez de Haro etorbideko Axular hotelera. Huxtuan bukatu genuen arratsaldeko askaria eta jada Arriaga plazaren hegian ginen taxiaren aiduru. Antzo-

kian, *Hamlet* emanen zen gau hartan berean. Afixak haizetan dilindan zeuden eta saltegietan jadanik jendeak herrokan. Carmenen ezpainetan, ebanjelioko ebaslearen antzera, musua pausatu nuen:

– Ene bizitzako erregina...

– Hi ere hala haiz.

– Hala zer?

– Lesbiana. Errepika ezan: lesbiana naiz.

– Eheeeem... Eta hala ez banaiz?

– Zalantzaz hago ala? Aukera ez dun gehiago *izan ala ez izan*, *izan eta ez izan* baino! Erran ezan behingoz!

– Hara: ...ni ere ...nüzü.

– Berrogei urte izan eta ez izanaren onartzeko eta aditz-laguntzailea bederen zuberotarrez murmuratzeko.

– Denbora denboraz hazten dun.

– Ene sofistarik kuttunena...

Riberatik zetorren auto zuriari keinuka ari zen.

Taxiratu ginen eta Carmenek *Artxanda* erran zuen, deliberatuki. Areatzako kaitik, udaletxeko zubiaren ezkerraldetik, Volantin zelaian Mugika y

Butroi kalearen izkinan abandonatu gintuen txoferrak. Kotxeko irratian *bésame bésame mucho* abestia ozen zen. Eskutik genbiltzan, mutu, musikak sosegatzen bagintu bezala. Artxandako funikularraren abiapuntua ikusi eta Eusko Trenean urtu ginen, txartel merke bana erosirik. Bagoi gorrailetan aiduru ginaudela, murruan zintzilikatu argitasun orrialdea begiztatu nuen: funikularra 1915ean eraiki zen, zazpiehun eta hiru hogeita bederatzi metroko luzerarekin, berrehun eta hamahiru metroko desnibelarentzat. Hiru minutuz Artxandan ginen. Zenbakietan gustu izpirik ez neukan arren, maite nuen haien zerrendatzea urguilu pixka batekin, mundua segurtatzen eta neurtzen zidatelako, arrazoitzen oroz bat.

Carmenen atzetik Josebaren mobil-homearen ondora lehiatu nintzen. Egia zen tokia poliziaz setiatua zela, ez preseski banku-ohoin ohiaren egoitza, baizik eta eremua. Funikularraren geldiunetik hurbileko zikinontzi baten maldan kausitu omen zen gorputza. Polizi taldean Estevez ezagutu eta heiatu nuen urrunetik. Carmen eta biok ezagutu gintuelarik, gure gana jin zen las-

terka. Ezbeharraren lekua mugatzen zuten hari zuri-gorrietan geldotu zen.

– Maiteak, deituko zintuztedan. Nola jakin duzue?

– Joseba adiskidearen emaztearengandik –oihukatu zuen Carmenek.

Artean, bizkar zakuan neramazkien Iparraldeko lau euskaltzain desagertuen argazkiak atera nituen. *Por si acaso*. Manex Bergereten destinu latza zein izan zen bagenekien orain. Gizon hil hau gureetarik baldin bazen, noren aldi zatekeen bihar? Estevezek gune gerizatura lerrarazi gintuen. Kukuskari, anbulantziara jo genuen eta han, hilotzaren gainean pausatua zen mihise lokaztuaren izkina altxatu zuen:

– Zein da?

– Pierre d'Oihenart, ene ustez. Begira fraide iledi nahas eta zurbail hori. Eta ezkerreko matela erdibitzen dion orbain iluna. Dudarik ez da: Pierre d'Oihenart da.

– Nondik du orbain hori?

Pierre d'Oihenart 1959 eta 1961 bitartean Aljeriako gerlan ibili zen, doi-doia apeztu berrian. Soldaduen omoniera zen, baina behin Biskrako

kasernan, omen, fellaga baten hiltzerainoko torturatzea salatu zuen eta armadako buruzagiek biharamunean berean frontera igorri zuten, mendekuz. Zelartate batean larriki kolpatua izan zen eta horregatik zeukan *mafioso* airea ematen zion piko xelebrea aurpegian. D'Oihenarten historia zatika bihikatzen niola, ikasle prestuaren pare adi zegokidan Carmen. Estevezek anbulantziaren atea banbatu zuen eta gaurkoan, ohikoa bilakatzen ari zitzaigun paper puska bat purtzilikatu zidan ahurrean, nehork ez ikusteko gisan:

– Autopsia eginen diogu. Ahalik lasterren. Hiru ordu dauzkagu. Sarri Engelblaun, bilduma eginen dizuet.

– Ongi da Estevez. Axular hotelera goaz.

Ez nuen sekula inkestarik eraman Ertzaintzako inspektore baten laguntzarekin. Bitxi zitzaidan. Ez nuen, ene herkideen antzera, polizia, euskaldun jatorrikoa izanagatik, biziki gustuko. Akort eta apart erraten zuen aita zenak. Hala zen. Baina Bilbon, Estevez Carmenen adiskideetarik zen eta hesi mentalak erortzen zihoazkidan. Poliziak ere jendeak ziren, ez gaztaroan orroaz karriketan genioen zakurrak. Pentsamen-

du hau neuretzat urrats erraldoia zen, tregoak, Bilbok eta Carmenenganako maiteminak eraginikoa beharbada. Ez nuen horrelakorik edonon eta edonorekin aldarrikatuko. Normalean kasu egitea komeni zen, zer eta nola erraten ziren gauzak. Azkenean isilik bukatzen genuen, eta isiltasuna euskaldunaren bigarren larrua zen, etsaien eta txakurren aurka oihuka pasatzen ez genituen uneetan behintzat.

Artxandatik funikularrez jaistean hipotesi bat aireratzen genuen: Manex Bergeret eta Pierre d'Oihenarten hiltzailea Gorringo ote zen? Bergeret euskaltzainak ez zuen biolentzia seinalerik. Miren Altamirak bere heriotza adinak zekarren ahultasunari egotzi zion. Pierre d'Oihenartek ere ez zekarren bortizkeria hatzik. Noren alde ziren hilketa horiek, hilketak baldin baziren. Edo noren aurka? Bitartean non zebilen Gexan Hiriart, afera honen guztiaren ardatz ekidinezina?

Piztu berri nuen sakelako telefonoak jo zuen. Banekien orain, Jean d'Amou zela, inork ez baitzidan bestela deitzen:

– Santa Engrazian dago atzeman duzuen maletaren giltza.

– Badakigu, pirta-pirtaka biltzen ditugun paper puskek bidea zedarritzen digute.

– Santa Grazin izan naiz –aitortu zuen linearen haraindian Jean d'Amouk–, eta lau orduz eliza osoa mirazkatu eta ez dut ezer kausitu.

– Zer da maletaren barnean?

Galdea zuzen egin nion. Zuzenegi. Bistakoa zenez, ez zekien zer zegoen maletaren barruan. Nonbaitik ere. Errazegi zatekeen. Dokumentu garrantzitsuak ziren ordea, bi gizon jada hilik suertatzeko. Albert Labruquere eta Gexan Hiriart falta ziren. Lanjerean zirela argi zen. Lehen baino lehen lokalizatzekoak genituen. Iparraldeko Euskaltzaindiaren ordezkaritza agudo berrituko zen, lau apez hauen herioa jakin orduko: bazen jende ttottoak hartzeko, urgazle orgatara bat bederen. Apezak gehienak, bai eta euskararen sustatze elkarteetan lanean, suharki, hala baitzen, ari ziren laiko batzuk. Mugaz honaindian, bertako euskaltzainen kopuruaren emendatzeko, aurreikusten ahal zen, aitzakiak aitzakia, Iparraldeko ordezkaritzak banaka huts utzitako ttottoak Hegoaldeko euskararen zerbitzari distiratsuz betetzea. Iparraldea kulturalki ezaba-

tzea funtsean, Euskal Herritartasun globalean gune arrotz horren integratzea baizik ez zitekeela idatziko zuten gero ekimenaren sustatzaile gordeek. Hausnar txarrean nerraikan eta nioen ene gogoarekin, bizitza higatzen zen euskararen zerbitzuan, ekintza ilunetan, etsaiek hertsatzen eta euskaldunek berek estimatzen ez zituzten xendetan. Alabaina errepikatzen nion goraki aldion Carmeni, noizbait saria erdiestekoa zen.

– Euskararen zerbitzuan daudenak oro ez ditun baitezpada boterez ezin aseak, jende zintzoak ere baditun.

– Baiki, baina euskararen borroka eremua botere alorra ere badun.

– Dena dela Iparraldean, euskararena anekdotikoa dun.

– Anekdotikoa? Baionako karriketan agian, edo Maulekoetan, edo Garazikoetan merkatu eguna ez denean, ordea Iparraldeko zein Hegoaldeko diru-laguntza publiko-pribatuen kopurua aipatzen baldin badinagu ez dun hain anekdotikoa!

– Bego horretan.

Emazte zentzuduna zen Carmen. Arazo diplomatikorik ez zuen nahi gure artean eta egiaz, gaiaz axolarik ez genuen. Elea murritz, izpiritua alegera, udaletxe aitzinetik pasatu ginen, zubia zeharkatu eta presaka bezala, Lauaxeta plaza borobiletik eskubira hartu genuen. Oharkabean kasik Axular hotelaren sarreran ginauden. Harrera bulegoan zegoen neska gaztearen lasaitasuna hautsi genuen:

– Zein da Gorringo jaunaren ganbara zenbakia?

– Zaude, begiratuko dut. Hara, berrogeita zortzia. Baina ez dago.

– Nola ez dagoela?

– Giltzak seietan bueltatu dizkit. Joan da.

– Joan da? Eta esan dizu nora joan den?

– Gasteizko Dato kaleko hotel bateko gela erreserbarazi dit.

– Gasteizera jo du orduan?

– Dirudienez.

Beranduegi iritsi ginen. Txoria habiatik hegaldatu zen. Agian arrautza kuxkuak geratzen ziren oraino Gorringoren ohean. Ganbara ikuskatu nahi genuela jakinarazi genion neskatxari:

– Ezin da.

– Ezin da?

– Garbiketa egin dugu eta jada bezero bat badago.

– Bezero bat?

– Ez dizuet nor den esaten ahal. Hori sekretu profesionala da. Menturaz interesik ez du.

– Interesik ez du?

Neska gaztearen eta neure arteko solasaldiaren bukaeran, etsipenaz gain, dialogoaren doinuagatik, *Eyes Wide Shut* filmearen muinean nengoela ziruditan. Mekanikoki, zainetan, kidearen hondar errana galdera moldean arraformulatzen nuen, ez nintzelarik alta, ez Tom Cruise, ez eta Nicole Kidman. Behako tristeaz troxatu nuen Carmen. Hura ere, bizkaitar neguko zeru bat bezain ilun zegoen.

– Zer eginen dinagu?

– Engelblaura goazen. Hobe dinagu afera likits hau gaurkoz bertan lagatzea eta biharkoa planifikatzea. Segur aski Gasteizera joan beharko dinagu. Baduna kotxerik?

– Nik ez, baina Haizeminek bai.

– Ez dinat batere ezagutzen Gasteiz.

– Gasteiz, Euskal Herriko hiribururik politena dun.

– Bilbotar batek aitorturik.

Irribarre artean atera zitzaidan ondorioztapena. Jadanik ohikoak bihurtzen ari zitzaizkidan Areatzako zubia eta Arriaga plaza zeharkatu genituen, eskuz esku, gauak gauari. Itzalpez itzalpe bazebiltzan arima erratuz emokatzen ziren karrikak, egun argiz ikusten ez ziren bizidunak beraien harpeetarik ausartzen zirelako, eguzkia ezkutatu arau: punki taldeak muturretakoa zeramaten zakurrekin, hippi jantzi loretsuz apaindu bikoteak, gizonak gizonekin, emazteak emazteekin, eta bakarretan, turistak izan zitezkeen hargatik, gizonak emazteekin. Hizkuntzak kordelatzen ziren, urratsak moteltzen, gorputzak plegatzen, oihuak eta algarak toteltzen edo oihartzen, soak ezkeltzen. Kasko Zaharrareko izen eta zenbaki gabeko karrika batean zegoen Engelblaun ginen engoitik.

Sotoko atea bulkatzean, mahai batean zeuden Haizemin eta Estevez begiztatu genituen. Musuka agurtu gintuzten urrunetik. Haizeminek guztiek hain maite genuen edaria manatu zuen:

– Lau gin-kas... neuronak askatzeko!

– Eta bi ogitarteko!

Carmenen garrasiak goseak hilak ginela oroitarazi zidan. Egun osoa baraurik aletua genuen. Plazer arruntak sakrifikatu genituen baina, bi hilotz gurutzatzeaz salbu, ez genuen ondikotz ezer erdietsi.

# Confutatis

Ogitartekoak klikatu genituen. Gin-kas edan genuen. Ostatuko hormak inarrosten zituen musika teknoa aditzen zen. Gizonak tinkoki dantzan ari ziren. Emazteak elkarri pottka. Gu aldiz etsituak ginen. Akituak. Galduak. Hatsa trenka hurren geneukan. Soa, murruan dilingatu Marlene Dietrichen poster handian nerabilen, Berlingo izarrak salbatuko ninduela ustez. Baina ez nuen burutzerik ere egiteko indarrik. Carmen beha zegokidan eta bere behako hutsalari ahalik eztikien erantzuten nion. Denbora hezurtzen zelakoaz baliatu zen Estevez Pierre d'Oihenart euskaltzainaren autopsia lasterraren berri emateko:

– Bortizkeria aztarnarik ez daukan arren, gizona bortizki hil da. Izuak eraman du ziztako batean. Miren Altamirak egin dituen analisi toxikologikoen arabera gizona pozoitua izan da. Jateko zitaldua irentsi eta handik zenbait ordu labur barne beste mundurako trena hartu du.

– Non jan du? –Carmen lokumatik atera zen.

– Artxanda gaineko tabernan afaldu du, dirudienez. Hala erran dit behintzat zerbitzariak.

– Bakarrik zen? –kasko zokoan neure galdearen oihartzuna bitxi zitzaidan. Belhitu bide nintzen.

Estevezek arraposki hitza harilkatu zuen:

– Hasieran ez omen zen bakarrik. Gizon lodikote baten konpainian baizik. Ostatu berean, mahai bat urrunago, zerbitzariari ezezagun zitzaion norbait bazen.

– Kalapita ozentsurik izan zena hauen guztien artean?

– Ez, une batez, zerbitzariak kontatzen duenez, Pierre d'Oihenart, gure biktima komunetara zuzendu zen. Orduan...

– Orduan zer? –berantetsitu nintzen, Iparraldeko adiskide batek erran lezakeen moduan.

– Orduan, ez dakit, menturaz ezezagunetarik bat altxatu zen eta Pierre d'Oihenart zoritxarrekoaren basora artsenikoa bota zuen.

– Artsenikoa?

– Hala diote ikerketa toxikologikoek.

Engelblauko argiak itzali ziren. Haizemin taula gainean zegoen. Teknikariak play-back soi-

nua abiarazi zuen. Mirakulua egiaztatu zen berriz, abeslariaren boz sakonak harpeak hantzen zizkigula. Ikusleen zainetan gutizia isuri zen, biderka: *maitea nun zira* zoragarria gorpuztu zenean, negarra begi hegian neukan. Ondotik *Santa Graziko hartza*ren istorioa eta *Itorrotzeko hilketaren* hogeita hamahiru koplak harilkatu zituen. Haizeminek, izerditan eta betazalak apal, Iparraldeko kanta zaharrak blues lantzinanteak bailiran, eskaintzen zituen eta emanaldia bukatu zuen *Bereterretxen Kantorea* haserre menperatuaz xuxurlatuz eta *itsasoa laño dago* Carmen bere lagun hurkoari oparitu zion. Ezkargiz hornitutako mahaietan zeuden jendeek nasaiki txalotu zuten, gizon sortu eta emazte hilen zen artista erraldoiaren ekitaldia.

Sotoaren magalean ongi sentitzen nintzela erran nion Carmeni. Musu luze bat eman zidan. Behar nuen, nahi nuen, lehia nuen Carmen. Haizeminek buru keinu batez aldagelara gonbidatu ninduen. Ostatua txikia zenez, ez zegoen hemen Arriaga antzokian bezalako etengabeko kuluarrik artisten intimitatearen bihotzera heltzeko. Artistaren ipurdi borobil perfektua segitzen nuen

eta zimizta baten abiaduran, Haizemin desiratzen itxuratu nintzen. Fantasma bat zen. Ez nekien zehatz zer zen norbaiten arinkiro desiratzea, une hartan grabetasun dorpez funtsean desiratzen nuen bakarra Carmen baitzen. Halatan, Haizeminen urratsetarik trabukatzen nuen ilunpean, itsumandoka.

Mirail handiaren aitzinean jarri zen. Mokanes bat eman zidan kopetan zerion izerdiaren lehortzeko. Lana samurkiro konplitu nuela aitortzekoa nuen. Berezilaria ez nintzenagatik pintzelez pintzel, makillajea kendu nion. Gorputza trinkoki mantentzen zion zetazko arropa beltza bizkarrean deslotzen lagundu nuen. Gizon ohi soinalde leunduaren ukimenak ikara hazi zidan eta, bular silikonatuak airean inguratu zitzaidalarik, behialako desiraren zimizta latzak zapartarazi ninduen. Irriz ari zen, eraginaz ziur:

– Ederrak ezta?

– Bai –ahoskatu nuen soilik, zintzurra korapilatua.

– Abudiop, nire amantearen altxorrak dira.

– ...

– Eta zu Carmenekin, ongi?

– Maite dut...

– ...Eta maite zaitu. Orduan, behaztoporik ez.

Mehatxua zena? Balizko bihar edo etziko infidelitate aukera guztiez aurretik hobendun sentitu nintzen. Alta bada, ez zen bakarrik ene errua, hogei urte iraun baldin bazuen gure arteko hormatze permiarrak?

Larru distiratsuz apaintzen ari zela, murmuratu zuen:

– Carmen nire adiskiderik kuttunena da. Carmen gabe, ez dakit gaurkoan bizirik nengokeenez ere. Kasu egiozu eta maita ezazu zure baitako ume ukatua delako.

– Ez gara gehiago sekula elkarrengandik aldenduko.

– Nahiago dut hori –artekatu zuen sosegatua–. Goazen lagunen mahaira eta edan dezagun arraiki. Ordu biak aldera Bilboko bihi-merkatu zaharraren egoitza arraberrituetan, aparkalekuaren azpian, Florena Blancok datxikan soto andaluzera joango gara.

– Eta bihar, goizean goizik Gasteizera.

– Gasteizera?

– Ez dizu Carmenek ezer aipatu.

– Ez, irrikitan nago.

Ostatuko ezkaratzera itzuli nintzenean, emozioaren mugetan nenbilen. Ninikak heze nituen. Carmenen ondo-ondoan ttottotu nintzen. Emaztearen berotasuna sumendiaren ahotik jazar litekeen labaren antzera hedatu zen neure baitan, azken trabak erauzten zituela.

– Ez haut nehoiz kitatuko.

– Zer dela eta, debaldeko promesa hori?

– Maite haut.

– Bazekinat. Haizeminen ebanjelioa jasan dun hik, ezta?

– Ebanjelioa eta aldagelako komunionea.

Estevez edanaren bortxaz sutan zegoen. Haizemin gure artean zapalatu zen eta aitzinean zeukan basoa ezpainetara eraman zuen, eri ttittila airean. Farra gogoa neukan. Musikak bazterrak atzaparkatzen zituela, Estevezen mugikorrak jo zuen.

– Miren Altamira da. Baaai?

– Zerbait aurkitu dut Manex Bergereten zainetan.

Estevezek bozgorailua martxarazi zuen. Miren Altamira mediku legistaren ahotsa denek

entzun genuen, musika gogorraren zantzuetan itorik adi egon behar baldin bagenuen ere.

– Bergereten hilotzari azterketa toxikologikoa egin diot, eta asma zer atzeman diodan.

– Artsenikoa.

– Justuki. Ohartu naiz halaber gizonak ogitarteko bat irentsi zuela hil aurreko uneetan. Bitxi da. Bi hilotz dauzkagu. Beraz, serial killer baten atzetik zabiltzate.

– Serial killer bat?

– Bai, bizirik dirauten beste biak lanjerean daude. Harrapa itzazue berandu baino lehen. Bestela, laster Iparraldeko Euskaltzaindiaren ordezkaritza suntsitua izanen da. Pena liteke Euskaltzaindiarentzat.

– Pena?

Arraformulatzeko jaidura txarrak gainditu ninduen. Nondik pena? Jadanik Iparraldekorik gabe antolatzen eta arautzen zen euskara. Haien presentzia testimoniala baino ez zen. Ohorezkoa. Nostalgiko batzuen erresuma. Iparraldeko idazleak, adibidez, den-mendrena *Herria* astekariko eredutik eskapatzen saiatzen zirenean, establixment linguistikoa durduzatzen zen, nora

doaz galdezka, ez da posible, euskara garbia frantsesten digute, ohartu gabe beraien lerroetan euskararen gaztelartzea onartzen zutela, baimendu gabe bistan dena, baina hizkuntzaren destinua zen ezta? Iparraldeko euskaltzainak euskara garbi idealizatuaren zaindariak ziren, barnean eta kanpoan. Pena? Nondik pena? Lelotzen ari nintzen.

Carmenek ene burutazioak apurtu zituen:

– Bai, pena liteke egiazki. Haizeminek eta biok non ikasiko genuen orain darabilgun hizkuntza hau, Iparraldeko baserrietan izan ez balitz?

– Eta Iparraldeko hirietan ez?

– Baiona salbu, hiririk ez dago Iparraldean.

– Eta mugaz haraindiko hiri euskaradun bakar gisa aurkezten den Miarritze? Seinale elebidunak ditizten, ikastola berria eraiki zitenan aspaldian eta Mediatekan sail oso bat badun euskararentzat. Eta gure erako hirugarren sexukoentzat ortzadar koloreko ostatu elebidunak baditun. Non aurkitzen da horrelakorik? Donapaleun beharbada...

– Ageri dun ez ditunala hire erro amikuztarrak ukatuko!

Amikuztarra nintzen eiki. Gustatzen zitzaidan Biduze ibaiak urratzen zuen lurralde umil hura. Umila eta euskara desagertzen zihoakion heinean, isila. *Anta* pentsatu eta *alta* marmazikatu nuen:

– Alta... Serial killer bat?

– Bai, hori eta bera, erantsi zuen Estevezek. Sospetxatzen duguna Gasteizera joan omen da arratsalde honetan, seietan. Ez al da Pierre d'Oihenarten gutxi gorabeherako hil ordua, Miren?

– Bai, zazpiak aldera zendu da.

– Gorringo atzeman behar dugu, bale ke bale.

– Eskerrak Miren.

Estevezek telefonoa eho zuen. Gogoetari eman zen. Lili Rusch tematsuaren pare, Miren egundaino lanean zebilela zioen, egunez eta gauez, lanaren pasioneak hiltegian iltzatua:

– Florena Blancoren sotora gonbidatzen ahalko nuen.

– A bai, hori egiten ahalko zenuen...

– Baina beti zerbait ahanzten dut.

– Hori ere bai –burlatu zitzaion Carmen, eta Haizeminengana bihurtuz, gehitu zuen–: Gastei-

zeratzeko zure Thunderbird 666 prestatzen ahal diguzu?

– Prestatzen? Badakizu ez dudala inori neure kotxea prestatzen. Gidatuko zaituztet. Nik ere opor premia daukat. Ostatuaren kudeantza Elvis ene bigarren arduradunaren esku utziko dut. Goazen Flamenkora!

– Flamenko Florena Blancoren taberna-sotoa dun. Goizeko hiruretarik hara bere ikusgarria eskaintzen din, seme-alabekin.

Xehetasunak biderkatu zizkidan Carmenek.

Oinez joatea erabaki genuen. Nahikoa edanak ginen, baina koadrila alegera bestan zen gau hartan: bi hilotz bagenituen besoetan, maleta bat, kopla zuzenez beltzatu paper puska zenbait eta bi Iparraldeko euskaltzain karrikan nora ezean, arriskuan beharbada. Eta nik, noiztenka bezain ardura, urrutizkinaren puntan Jean d'Amou, mintzatu baina Izturitzeko harpeetan ikusi ahal izan ez nuena. Parte zaharretik atera ginen, trinkili-trankala, Estevez aitzinean, Haizemin gidari panpox, Carmen eta biok eskutik. Bilboko hiria freskatzen zuen hego aire euritsuak larruak eta bihotzak lasaitzen zizkigun. Jendeen artetik

sigi-sagatzen saiatzen ginen, barkatu handik eta barkatu hemendik. Gurutzatzen genituen bizidunak beraien aferetan zeuden, buru-belarri, eta ez ziguten kasu handirik egiten. Erriberako zubia zeharkatu eta laster San Frantzisko kalean gora Nerbioiaren ezpondaz aldatu ginen.

Haizemin ezin isildua zen. Eskaizko galtzak ipurdi mazelak deigarri moldatzen zizkion eta haren iledi horailak uda mineko ogi landa uhintsu bat zirudien.

– Ijitoen auzoa zen hau, hurbileko altzairugintzako lantegien keek Bilbo beltzatzen eta zikintzen zutelarik.

– Duela hogei urteko istorioa!

– Hala da Amaia –oniritzi zuen Haizeminek–. 1983ko uholdearen ondotik iluntasun hura arras desagertu da. Baina karrika hauetarik pasatzean eta murruei beha egotean, nabaritzen dira jagoitik jende xeheen auhenak... So egizue ireki dute sex-shop bat, begira izena euskaraz dauka, *Txortaka*. Hara beraz euskararen desiraz amiltzeko aukera bat!

– Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren euskararen normalizaziorako planak aurrera ari diren seinale...

Trenbidearen gainetik, Zabalburu plazara iritsi ginen. Errotonda erraldoiaren ingurua egin genuen. Carmenek ahurra tinkatu zidan, min egiteraino:

– Lau ordu gastatu nitinan Zabalburu plazan behin, hire aiduru.

– Eta ez nindunan etorri?

– Ez. Ez huen deitu. Negarrez sartu nindunan Barrenkalera, beldurtua baino gehiago etsitua, ez nuelako ulertzen. Deitzen ahalko huen!

– Oroitzen naun. Ordutik hara hormatu zunan gure harremana. Banekinan emaztekoia hintzela eta ez nindunan prest horretarako.

– Lotsatia haizelako.

– Zer erranen zuten adiskideek, ene ustezko adiskideek, denbora joan ahala ohartu naizelarik ez nuela adiskiderik eta elkar maita genezakeela naturaltasun osoz, denbora hau guztia galdu gabe. Beranduegi zunan gero oihalaren berriz josteko.

– Ez hintzen Penelope izateko jaio, argiki... Amaia, bus geltoki horren azpiko gizon zahar hori nonbait ikusi dudala iruditzen zaidan!

Txapela buruan zeukan. Izua barreiatzen zitzaion gorputzeko zain urdin orotarik. Kopeta apaltzen zuen. Bakarrik zebilen. Bus aterpetik hamazazpi metrotan, taldea banatzea erabaki genuen, gizona sorpresaz hertsatzeko. Haizemin eta Estevezek ezkerretik setiatuko zuten eta guk eskuinetik.

– Gau on Gexan Hiriart –erran nuen, laurak adineko durduzatuaren aitzinean ginela, blokean.

– Nor zarete?

– Salbatu nahi zaitugu. Serial killer bat daukazu atzetik.

– Zer da hori? Serial killer bat?

– Non da Albert Labruquere, iragan ostegunean Bilbora Euskaltzaindiaren Onomastika bilkurara zurekin etorri dena?

– Ez dakit. Ez dakit non diren ene lagunak. Galdua naiz. Autoa non utzi dugun ere ez dakit. Ahantzia dut.

– Alzheimerrak joa ez zara... –huxtukatu nuen, baina pozik nengoen Iparraldeko lau euskaltzainetarik bat bederen bizirik harrapatzeaz.

Haizemin eta Estevezek Gexan Hiriart fermuki atxikitzen zuten gerritik. Ez zuen ihes biderik. Kukumixa malguaren antzera mugitzen zen. Bazuen indarra alajainkoa! Paltotik heldu nintzaion:

– Non da Albert Labruquere?

– Ez dakit.

– Faltsukerietan ari zara. Mintza zaitez arren: gizona lanjerean da. Badakizu araiz Pierre d'Oihenart eta Manex Bergeret hilak atzeman direla, artsenikoz pozoituak.

– Ez dakit.

Malkotan urtu zen. Hipakoek Gexan Hiriarten karkaza zatarra inarrosten zuten. Ezin gelditua zirudien. Jabaldu zenean, hitza bastatu zuen:

– Gasteizera abiatu da, arratsaldean.

– Gorringorekin?

– Ez dakit. Gorringo urde zikin horrekin? Etorri gara gure hilabeteroko bilkuralat eta bazkaritan ari ginen ostatuan tranpa egin zigun. Badu bi hamarkada orain Piarres Lafittek, azken hatsa eman zuenean, artoski zain genezan maleta bat

eman zigula, *Santa Engrazian dago giltza* erranez.

– Zer dago maletaren barnean?

– Ez dakit.

– Ez dakizula? Gezurra diozu beste behin. Eta Piarres Lafittek nondik eskuratua zuen?

– Ez duzue ulertuko, gazte zozolak zaretelakoan, baina Lafitteri Lhandek eman zion, eta Lhanderi Intxauspe kalonjeak, eta Intxauspe kalonjeari...

– Okey. Aski da.

Moztu nuen hozki aitatik seme izpiritualerako ohiko familia transmisioa baten lekukotasuna zekarren Gexan Hiriartek biribilkatzen zuen haria. Iparraldean, euskararen transmisio eredu ideala zen hori, aita kanonikotik seme platonikora. Hausnarrean nenbilen. Hausnar tzarrean. Bizkitartean, oharkabean, Gexan Hiriart estuki lotzen genuela, Flamenko ostatuaren atarian ginen. Neonezko argiek gaua urratzen zutela, euskaltzainaren begitarte afruntatuaz konturatu ginen. Gibelera egin zuen:

– Nora naramazue? Moralak kondenatzen dituen toki likitsetan ez naiz sartzen...

– Hemendik at, gurekin ibiliko zara.

– Libre naiz ez?

– Bai, bistan dena libre zarela, ura edan eta pozoia irensteko.

– Jakin ezazu –artekatu nuen Haizemin eta Carmen isiltzen zirela– zure semeak kontratatu nauela bizirik harrapa zaitzadan. Maletaz interesatua dirudi, Gorringok bezainbat.

– Jean d'Amou, ene seme pistolet hura? Irakasle alfer bat baizik ez da. Ez da kapable izan apezteko ere!!!

– Apez dinastia ederra osatuko zenuten.

– Trufa zaitez. Zu al zara Amaia Ezpeldoi?

– Bai, Amaia Ezpeldoi naiz. Hara nire adiskideak: Estevez, Haizemin eta Carmen.

Trankilago ematen zuen. Apez naturak iheslariari gaina hartua zion zirudienez, gogoz kontra Flamenko sotoan sartzean errepikatzen zuelako *zuek bekatorosak kofesatuko zaituztet nahi duzuenean*. Gexan Hiriart bulkatu eta mahai batean jarrarazi genuen. Taula gainean Florena Blanco dantzan ari zen, egurrezko zola zapata aztal punttadunez ikaratzen zela. Saihetsean, alaba zeukan abeslari eta esku zartari, atzeal-

dean aldiz, ilunpean kasik, seme bat gitarrarekin. Gitarraren soken sotiltasuna miresten nuen artean, Haizeminek gin-kas manatu zuen denentzat, salbu beretzat, eta ardo bat Gexan Hiriart xifrituarentzat. Florena Blancoren ahotsa biriken hondotik, zintzurrean gora buruko meandreetaraino garatzen zen, hats hartzeko unea, gitarrak eta neurrian ernatzen ziren txalotxoek betetzen zutela.

*Cuando sufres cuando lloras*
*Para nada para nadaaaa.*

Florena Blancoren kanta sakonak gatibatu ninduen. Ezagutzen ez nituen Andaluziako bazter idorrak itxuratu nituen, Granada eta Sevilla, errautsez emokatu olibatze eremuak eta Mediterraneo itsasoaren urdintasun argitsua. Bilboko Errekaldeberri auzoaren minetik, ezitxuratu nintzen, hizkuntza aldatu nuen eta mundutikako mendeak zeharkatu nituen. Gin-kas godaleta ezpainen freskagarri netxikan.

Haizemin mintzatu zen, ene ibilaldi mentalaren zorabioa erraustuz:

– Zaudete hemen, banoa autoaren bila. Ondo-ondoan bizi naiz. Gexan Hiriarti kasu egiozue arren.

– Bai, artoski zainduko dugu. Ihesik ez du, heriotzarekiko hitzordua baizik!

– Ez duzue eskubiderik, ez duzue eskubiderik...

Gexan Hiriart oihuka ari zen, debaldetan ordea, ostatuko arramantzak eta tauladako ekitaldi hunkigarriaren doinuek orro basatiak ototzen zizkietelako. Carmen euskaltzain adinduari belarrira ari zitzaion bara-bara. Estevezek elea iruten zuen mahai batean zegoen neska gazte lirain batekin.

Neska gazteak bat-batean gure taldearen erdira punpa egin zuen, pistola txikia erakutsiz:

– Lagunduko zaituztet! Zuekin nator! Estevezek guztia azaldu dit.

– Nor zara?

– Berdin du nor naizen, izengoitia baizik ez daukat –ihardetsi zidan–. Hamar urte itzalean iragan ditut gaiztagin elkarte famatu bateko kide izateaz akusaturik. Tresnatxo hau atxiki dut hamarkada heroiko haiek ez arras ahanzteko.

– Nik ere pistola bat badut –erantsi zuen Estevezek–, baina ez arrazoi berdinengatik. Hortxe dago.

Bi pistola bagenituen ondorioz, biak gin-kas baso hustuz mukurutu mahaiaren agerian. Biek historia ezberdina zuten. Irriz lehertu ginen, bonbaz lehertzea baino hobe zela komentzituak.

Eskergarria zen tregoa.

# Lacrimosa

Goizeko bostak ziren Flamenkotik jalgi eta Haizeminek hurbildu Thunderbird 666 autoan tinkatu ginenean. Gidari zebilen beraz Haizemin. Ondoan zeukan Estevez. Eta gibelean metatzen ginen Carmen eta biok, Zokil izengoitiaz ezaguna zen erakunde armatuko kide ohia bere pistola distiratsuarekin... eta erdian Gexan Hiriart. Zorionez, gizona mehakoila zen, bestela ez baitzuen hatsa hartzen ahalko ere. Nekatua zen, baina loak eraman aitzin, erran zuen kokin aire batez:

– Ez nago hain gaizki funtsean, emazte hauen beroan!

– Zaude lasai, otoi, eta ez sobera mugitu! Lekua eskas dugu.

– Bababai. Behar dugu Gorringo deabru hura atzeman.

– Gorringo deabru hura atzeman, maletaren giltza hark atzeman baino lehen.

– Maleta guk dugu –berretsi zuen Carmenek, ene oharraren osagarri.

Haizeminen auto amerikarra deskapotablea zen. Carmen eta biok amesten baldin bagenuen Thelma eta Louiseren istorioa Bizkaia eta Arabako lurretan errepikatzea, hutsean ginauden. Autoa mukuru zebilen eta menturaz Kusturicaren film eroetako plano baten zinominokatzea baizik ez genuen lortuko.

Zabalburu plaza desertu zen; inguruka ibili gintzaiolarik eta autobidera zuzendu ginenean, kotxe gutxi gurutzatu genuen. Ordu txikiak bihikatzen zihoazen, izaki motelak oinez edo autobusez etxeratzen zirela eta oheetarik punpan eroriz, lanera abian. San Adrian gainetik Bilbok hiri akituaren itxura zuen. Gaua latza izan zen eta karrika bazterretako argiak ikara ziren. Baina pausarik gabe, hasperenka, egun berriari ekitea komeni zitzaion. Hiria ez zen sekula dardaratzetik gelditzen, gaueko eta eguneko arima erratuen interesak arras ezberdinak ziren arren.

Autopistan halaber zirkulazio urria zen. Europa alderik alde zeharkatzen zuten kamioi erraldoiak salbu, nehor ez zegoen. Libre sentitzen ginen. Ekialdean argi urrako bat ageri zen, urrako arina, odol marra baten antzekoa. Isilik gen-

biltzan, bakoitza bere barneko mamuekin tematzen bailitzan. Orduan, Haizeminek Steppenwolfen zinta bultzatu zuen autoko KD irakurgailuaren aho hondora: *born to be wild* abestiak inarrosi gintuen, inarrosi eta, aldi berean, jabaldu. Sehaska kanta egokia zen, azken orenak zainetan eta lo eske higatu zituzten bizidun herrestontzat. Carmenen eskua neurean bero sumatzen nuen eta, begiratzen niolarik, ohartzen nintzen betazalak apal zituela. Gexan Hiriart zurrungaz ari zen, eta Zokil bere pistola zilarrarekin jostatzen. Estevez ere loari emana zen, eta izpiritua zohar zeukan bakarra, ez baitzuen gin-kasik bakar bat ere edan, Haizemin zen.

Tunelaren azpitik iragan ginen berriz. Klaustrofobia pairatu nuen, autobusean Donostiatik nentorrenean bezala. Fobia gainditzea lortu nuen, arima bipilduz. Laster, Basauri utzi genuen eta Gasteizera zihoan autobide zatian urtu ginen. Oren baten buruan Euskal Herriko hiri nagusian ginatekeen menturaz. Berantetsia nuen. Anartean *Bizkaia maitea* zen gure aurrean hedatzen, Benito Lertxundiren ahots eztiz ohoratua eta nihaurk berdin anitzetan preziatua, sustut

Carmenekin duela hogeita bost urte biderik bide ibiltzen nintzelarik, maitemindu mutuaren plantan. Arto landa hertsiak baziren autopistaren aldamenean, baserri txikiak, Iparraldekoak latifundio handi irudikatzeko txikiegiak, batzuetan baratze baten izkinan laranja koloreko kuia lodia agertzen zela, edo tomateen zutik atxikitzeko zutabe lerroak, edo asto gris bat alha. Bitxi zitzaidan beti Bilbo industriala eta bere bazter ruralak kontrestan ikustea.

Haizeminek ez zuen agudo gidatzen. Abiadurak errespetatzen zituen eta auto historikoaren erritmoa. Motorraren azantza mantsoa zen, lañoa, eta ez zuen lotan zihardutenen pausaldia trabatzen. Ez zitzaidan, trenean nola, autoan atsedentzea gustatzen. Halatan musika entzuten nuen, Roger McGuinnen boza *so don't fear when you heard a foreign sound in your ear it's allright Ma I'm only sighing*, egunaren argitasun samurrak Bizkaia balakatzen miresten nuen bitartean. Mirakulua egiaztatzen zen aldi oroz. Hizkuntza ezabatzen ahal zitzaigun, amodioak eskapatzen, nagusiek erasiatzen ahal gintuzten, hiltzen ahal ginen baiki, zergatik ez, hipotesi

guztiak aztertzekoak ziren, norbaitentzat etengabe azkorria ernatzen zen, salbatzen zen, arrosa baten antzera irekitzen, izar ihintzez egarri. (Euskal) Munduak sustatzen bezain hobesten zuen irabaztearen eta boterearen borroka aspaldian galdua genuen, ez ginen egundaino ezertaz jabetuko, baina Thunderbird 666 zaharkituaren leihoetan jazartzen zen argi zirrintaren oldarra gurea zen, gure-gurea.

Laudio saihestu genuen. Lantegiek zerua mehatxatzen zuten. Ortziaren urdin sakonak ordea ez zion probokazioari ihardesten. Tregoa zen, naturako elementuentzat ere: *flow river flow flow to the sea*. Zinta isildu zeneko uneaz baliatu zen Haizemin mintzatzeko:

– Kafe bat edan dezagun. Bi kilometrotan restop bat dago. Zer diozue?

– Zer dela eta?

– Non gaude?

– Noiz helduko gara?

– Zer pasatzen da?

Haizeminen proposamenak galde izutuak baizik ez zituen harrotu. Gexan Hiriart itseskatu zen:

– Nora ari gara?

– Gasteizera Gexan –zehaztu nion–, Albert Labruquere zure euskaltzain adiskidea Gorringoren aztaparretarik libratzera.

– Egia. Gainera Albert Labruquerek dauka enigmaren laugarren zatia.

– Laugarren zatia? –harritu nintzen.

Gexanek segitu zuen:

– Bai, Pierre, Manex, Albert eta laurok bat ibili gara, Manexek maleta zaintzen zuela, gutariko bederak giltzaren lokalizatzeko enigma zatia zeramala paperetan. Semeak Izturitzeko harpean eman dizun nire gutunean zegoen lehen kopla, bigarrena Manexen paltoko sakelan zen, hirugarrena Pierre d'Oihenarten galtzetako zetazko oihal bikoitzean, eta azkena Albertek du, bihotzaren gainean tatuatua.

– Geldi gaitezen restop horretan –erran nion Haizemini, argibehinkariak jada martxan zituela konturatuz.

Ezantza behar zuen. Haizeminek deitoratzen zuen gasolinaren prezioen igotze ikaragarria, Bushek Irak setiatzen zuenez geroztik. Zioenez, bakan baizik ez zuen Thunderbirda erabiltzen,

baina ametsaren antzera zebilen auto zaharra egartsu zatar bat zen. Ostatuko atean abandonatu gintuen. Gehienak horma berinatsuaren maldan akiduraz abaildu ginen, Haizeminek ezantza har eta kamioi erraldoi biren artean, poloniarra eta alemanak ziren, bere aberastasuna aparka zezan aiduru. Elkarrekin ginen eta elkarrekin sartu ginen, nortasun askorik ez zeukan tabernan. Estevezek Gexan Hiriart begiztatzen zuen, gizonak lanjerean zegoela ulertua baldin bazuen ere, Iparraldeko elektroi salbaietarik izanez, ororen buru, nahi zuena baino egin zezakeelako beldurrez.

Mahai handi batean plantatu ginen. Begiak loz hordi zeuzkan neska gazte bat hurreratu zitzaigun. Haizeminek eskatu zuen denentzat:

– Kafe dobleak, kruasanak eta pasteltxo azukretuak.

– Nik koñak bat behar dut kafearekin –gehitu zuen Gexan Hiriartek haur guastatuaren pare.

– Enetzat ere koñak bat –erantsi zuen Zokilek–. Frantzian nengoenean hartu nuen ohitura hori.

– Frantzian?

– Bai, zazpi urtez egon nintzen Baionan, errefuxiatua, laurogeita hamarrean harrapatu, kartzelatu, auziperatu eta Espainiara deportatu ninduten artean. Hamar urte eraman nituen oraino Espainiako kartzela ezberdinetan, gaztigua arras bete eta libre atera nintzeneraino. Azken hamabi hilabeteak, beharrik, Basaurikoan egin nituen. Lehen aldia zen familiatik hain hurbil nengoela, hargatik ordukoz familiarik ez nuen gehiago, gurasoak Aranjuezen nintzela zendu baitzitzaizkidan, minbiziak xurgatuak, bata bestearen ondotik aste apurrak barne.

Kideak oro kalakatzetik gelditu ziren, Zokilek bere kalbarioa kontatzen zuela. Isiltasun dorpea hautsi nuen nik, pentsatuz zerbait haustekotan hobe zela isiltasuna, tregoa baino:

– Eta Frantzia, beno Iparraldea, agradatu zitzaizun?

– Frantses eta Iparraldeko jende gutxi gurutzatu nuen, garai hartan Baionan errefuxiatuen artean egon gintezkeelakoan, gure zirkuluetarik atera gabe. Hegoaldeko adiskideak eta familiak zetozkigun, jateko eta puskaz kargatuak eta besta ere elkarrekin egiten genuen.

– Eta Iparraldeko bizitza kulturala?

– Amaia! Aipa dezagun Iparraldeko bizitza kulturala diozun moduan, zaharkeria kontserbatzaile multzo bat, diru publikoz sustatu kultura alor bat, eskubira plegatzen den gehiengo politiko bat eta ezin ulertua den hizkuntza bat. Badakizu gure Iparraldeko lagunak, ezkertiarrak eta gaztelafonoak zirela erabat. Orduan, Frantzian izan arren, erbestean, Bilbon bezala ginauden.

Tua irentsi nuen. Haserre zimikoa menperatzen saiatu eta bitxiki kalmatu nintzen, ez zuen balio palpitatzeak: berdin zitzaidan Baiona eta Iparraldea batzuk Frantzian kokatzea, hala zen funtsean, ez ginen sekula gaurkoan bezain frantsesak izan euskaldunak, independentzia aldarrikatzen zutenak barne. Zokili beha egon nintzen: eni ere Bilbon, euskara Iparraldeko baserrietan ederki ikasia zuten adiskideen zurrunbiloan, Santa Grazin nintzela ziruditan. Irudipen gurutzatu horiei esker, frantses edo espainol, euskaldun gisa tematzen ahal ginen. Eta ez zuen ahalkerik hazi behar frantses edo espainol izateak, ardurenean, ohartzen nintzenez, Iparraldekoek zutela beraien frantsestasuna gordetzen, fran-

tseskeria erraten zen mespretxu pixka batez, Iparraldekoek zuten Hegoaldekoekin biltzean, *rrr* lakarrez eta aditz zein hitz bereziz hanpatu euskalkia baztertzen, hizkuntzatik beretik frantsesak zirela susmatzen zelako. Muga mentala ezabatuko bide zen nortasunen arteko tratamenduen berdintasuna erdietsiko genuenean, hau da, espainoltasuna eta frantsestasuna biak, euskal nortasunaren zatitzat kontsideratuko zirenean, biak hein berean, bata bestea baino apalgarriagoa izan gabe eta alderantziz.

Zerbitzariak kafeak, koñakak eta ahokoak ekarri zituen. Atseginezko herotsak biderkatu ziren. Une batez ez zen hortzen martzilika eta zintzurren karraka baizik hauteman. Elkarri beha ginauden, bakoitzak bestearen goiz hartako plazera dastatzen bailuan. Bizkar-zakutik, Izturitzetik Bilborainoko bidean atzeman paper zatiak jalgi nituen:

*Santa Engraziren giltza*
*Nahi dugu harrapatu,*
*Gu zaharturik gabiltza*
*Baina behar dugu batu.*

*Zuringo eta Gorringo*
*Arraultzearen esklabo*
*Nork hil nauen da jakingo*
*Zuria delarik salbo*

*Herioaren hizpidean*
*Ez dugu ez irabazi:*
*Jakitatearen bidean*
*Gora bedi Santa Grazi.*

Hau zen alabaina Pierre d'Oihenart zenaren galtzetako zeta bikoitzean Miren Altamirak kausituriko azken mezua. Bilduma egin genuen: misterioak zirauen, eta azkorriak bezainbat kafe dobleek ez ziguten aitzinamendurik zilegitzen. Gaizo euskaltzain horien hiltzailea Gorringo zen segur aski, Manex Bergereten koplak erakusten zuenez. Baina d'Oihenarten Santa Grazi ez zen Zuberoko herria izaten ahal, Jean d'Amouk telefonoz azaldu zidalako eliza mirazkatu zuela petik gora eta alderik alde.

Carmenek Euskal Herriko mapa handia hedatu zuen mahaiaren gainean:

– Bi Santa Engrazia baditugu hemen gaindi. Gorringo, Albert Labruquererekin Gasteizera joan baldin bada, norabidean onean gaudela erran nahi duke.

– Non daude, laztana?

– Bata Errioxa eta Arabako limesean –erantzun zidan Carmenek hatsa su–, eta bigarrena ezagutzen duguna, Bardea Zuriaren hegiko kaperatxoa. Izan gintunan behin, Bardeetan euria egin zuen hartan. Oroitzen haiz?

– Bardeak lohi eta ibai ikusi nituen aldi bakarra zunan. Geroztik ez naun hara itzuli. Bardeetara bai, Zuriñe Nafarroako printzesaren gaztelu-dorre erorira eiki, baina ez Santa Engraziara.

Espero genuen sekretuki, enigmaren hondar zortzikoaren erdiesteko Gasteizen, zorigaitzeko Albert Labruquere hilotzarekin topo eginen genuela. Zerbait zen hala ere, ikerketak jarraitzeko gisan norbaitek hil behar zuen: aurrerapenak oro hilotzek zedarritzen zituztela ondorioztatu eta altxatu ginen. Haizeminek kaxa komunetik ordaindu zuen gosari oparoa. Kanpoan eguzkiak jotzen zuen jadanik, Araba eztiki ferekatuz. Goizaren samurtasunak gatibatu gintuen. Estevezek Gas-

teizko Ertzaintzaren komisaldegi zentralean zeukan adiskidea deitu zuen. Kasik minutu berean ene mugikorrak marraka trapatua ozenarazi zuen. Jean d'Amou zen:

– Jainkoak dizuela egun on –entzun nuen, politezia formulak uda minean hormatu ninduela–. Zer berri duzue?

– Zure aita gurekin dugu eta Gasteizera goaz. Laudio eskualdean gara. Eta zu non zaude?

– Seguritate arrazoiengatik ez dizut erraten ahal. Urrutizkinez bederen ez nago zuetarik urrun. Ongi dago aita?

– Bai, pixka bat inarrosia, baina bestela xarma bat bezala. Bere adiskide bien hilketak etsipena eta memoriaren ezabaketa eragiten dio. Badakigu Albert Labruquere bizi dela orain-dik, Gorringorekin Gasteizera partitu delako, lanjerean jarri baldin bada ere. Agian orduz helduko gara haren salbatzeko.

– Salbatzea merezi al du?

Jean d'Amouren hozkeriak arranguratu ninduen. Apez euskaltzainaren semea bihotz gabea zena? Egiaz, zuzen zegoen horretan, hilezinak ziruditen lau euskaltzainen bat-bateko saldo-zen-

tzea xantza ikaragarria zen, Euskaltzaindiaren ezkaratzean aiduru zeuden Iparraldeko zein Hegoaldeko hainbat urgazle anbiziotsuentzat. Unibertsitari ohoratu, euskaltzale sutsu eta kalostrapeetako igel dantzari sotil andana batek momentua igurikatzen zuen. Jean d'Amou horietarik zen. Gorringok zuena garbiketa obratzen, sistematikoki, multzoko kide zaharrak bederazka bere tranpetara erakarriz? Iparraldeko euskara zaintzaren ordezkaritzak ilharroski-erratz kolpe galantaren premia zeukan, baina hortik krimaz krima lakrimategi ibiltzera, urrats bat bazen. Duda sortu zitzaidan. Jean d'Amouri galdea errepikatu nion:

– Non zaude?

– Ez duzu jakitearen beharrik.

Thunderbirdaren estalkia kendu zuen Haizeminek. Tutaka ari zen, telefonoari zintzilik geundenei arrabiaz deika. Estevez eta biok presaka kokatu ginen autoan eta, txoferrak giltza ingurratu bezain laster, berriz hauteman genuen motorraren xuxurla eztia. Autopistan gindoazen, biloak haizeetan, aurpegiak ekiari eta pentsamenduak zedarri. Orozko eta Izarra artean Araba es-

natzen generraikan: lautada zilarra urre bilakatzen zen eta dorretxeak argi-aurka bermatzen ziren. Nork ez zuen Arabaren edertasun mineralа gogoko? Goizaldeetan batez ere. Begiak gose genituen eta ordokien usainaz asetzen ginen. Izarran abandonatu genuen Logroñorako autobidea, lau bideetako errepidea Murgiarantz hartzeko. Ezkerrean zutoitzen zen mendatea erakutsiz Carmenek elea harilkatu zuen:

– Arangatxa gailurra hor duzue, Larrun adina gora, sabelaren sakonetik Nerbioi erreka jaukitzen zaio. Ebrora isurtzen ez den ibai soiletarik bat da. Ebrok zuen Aturriak nola, begira zegokidan amultsu, hala gainerako ur guztiak irensten ditu, handizki gero itsasora lehiatzeko.

– Gure mugak dira.

Zer ez nuen ahoskatu?

Carmen asaldatu zitzaidan:

– Zer duzue euskaldunek, mugak behar dituzue, zuen lurretan seguritatean sentitzeko? Ibaiak, Ebro edo Aturri ez ditun mugak, itzultzea eta partitzea irudikatzen dizkiguten marrak baino. Independentzia lortzean muga berriak ja-

rriko dituzue, gure harreman intimoen alorrean nola, muga gabea delarik ederrena...

– Maitea?

– Mugak eraikitzen ditinagu, zeharkaezinak, aburu politiko ezberdinekiko jendeetarik salbatzeko, haiek alta gaituztelarik, ikuspuntua aldaraziz, gure arazoaren konponketan lauhazkatuko. Mugak baditun denetan, ustez eta mugen presentziaz baizik ez garen mugalari eta kontrabandista. Denborarekin ohartuko haiz mugarik ez dela, nehon, bizidunak kate luze baten maila biluziak garela, ez bata bestearen aurka, baina bai bata derrigorrez egundaino bestearekin, bestearen alde.

Amen erran eta ezpainak ezpainekin hertsatu nizkion.

Carmenek begiak zerratu zituen eta haren eskua papoan lerrakor nabaritu nuen: errotik maitemintzen ari nintzen, Iparraldeko Euskaltzaindia astintzen zuen hilketa zerrendaren argitzeko Jean d'Amouk eskainiriko lanak bizitza baimentzen zidan, behingoz zoriontsu nintzen, zoriona zinez zer zen ez nekien arren. Gorputz bero batenganako tirria zen beharbada zoriona, begi

beltz pare baten hondoan itotzeko, gauak etengabe iraungo zuelako-edo ohe baten eremutik nehoiz ez altxatzeko desira.

Gorbeia mendikatearen hegoaldeko malkarretan behera ari ginela, haizea biloetan eta Haizemin gidari, hazi zitzaizkidan gogoeta bitxi eta zozo hauek. Haizeminek, ahots apalez *maitea nun zira* xuxurlatzen zuen. Bizkitartean, Gasteizko hiria han urrunean, lainoetan berme, miresten genuen, Arabako lautadaren erregina. Gexan Hiriart erdi-lo zen, Zokil pistolarekin jostari, bala bakarra bailuan bizitza zortean jokatzen zuen armaren mihia lizunki kopetara ekarriz, klix-klix! Azantza entzuten nuen oroz oilo larrua hazten zitzaidan, eta Carmenen besoetan kuzkurtzenagotzen nintzen.

Estevezek, artean, Desamparados auzoko Ertzaintzaren komisaldegian zeukan ikasle garaiko bere adiskide-kolegari deitzen zion bigarrenez:

– Bagatoz, bertan.

Ziztuan helduko ginen Gasteizera. Bideak zelai eta segurtasun handikoak ziren. Haizeminek abiaduraren orratza desafiatzen zuen. Kolorezko pizti-makina erraldoiek ogia epaiten zuten

bazterretako landetan, errauts eta ke. Ez genuen astirik ogia ala garia zen ikertzeko, Desamparados eskualdean Thomas zain geneukalako. Ezkerraldean aireportua begimendu genuen eta, hotelak zein bulegoak ugari zeuzkan Honduras Abenida agortu bezain laster, Gasteizko etorbide zabal eta argitik hiri erdira gindoazen. Ageri zen Gasteiz lur idorraren erraietarik eraiki berria zela, kale zuzen eta behialako lantegi abandonatuetan itzaletan moztu espazio modernoekin. Gobernu, administrazio eta unibertsitate gunea zen, kultura eta euskal kultura saileko jende ezagun frankoren bizi-tokia, gainera. Euskal Autonomia Elkarteko hiriburua zen funtsean, euskaldun bakoitzak bihotzean bere kutuna zeraman arren, batzuek Iruñea, besteek Baiona eta azkenek Bilbo.

Florida parkearen saihetsetik, ez nekien nondik, beharbada Manuel Iradierretik, zezen-plazara iritsi ginen. Hango aparkalekuan utzi genuen Haizeminen Thunderbird zoragarria. Independentzia karrikaren 27. zenbakian zegoen polizitegia, Foruen plazatik urrats eskasetan.

Goizeko zazpi eta erdiak ziren.

# Domine Jesu

Beharrik Estevezek Gasteiz den-mendrena ezagutzen zuela, bestela gure koadrila bozkariotsua ez zen sekula Independentzia karrikaren 27an zetzan komisaldegi *design*-era helduko. Ez nekien nondik zulatu zuen Estevezek, eta erabaki nuen ostatu batean hiriaren mapa bat biltzea, Carmenek aipatu zidan *Gidatu* hilabetekariaren ale zaharren baten erdiko orrialdeetakoa baizik ez baldin bazen ere. Carmenen aldamenean nindoan, gibelean Zokil eta Haizemin bazebiltzan isilik, Zokilek beti, lizunki kasik, bere arma amainatzen zuela. Aitzinean, Estevezek bidea urratzen zigun Gexan Hiriarten konpainian, airos eta deliberatuki. Desamparados plazan, erran zuen:

– Badugu denbora pixka bat ezta? Thomas nire adiskidea zortzietan hasten da eta, plazer baldin baduzue, kafea eskaintzen dizuet!

– Zergatik ez? –Gexan Hiriarten iratzar hitzak ziren.

Euskaltzainak arranguratua ematen zuen. Beldurraren gisako zerbait zebilkion zainetan.

Gorringo kalean gurutzatzeaz lotsa zen ala Albert Labruquereren galtzea irudikatzeak zion izua emendatzen? Perdidos izeneko ostatuko barran herrokan plantatu ginen. Ametsetarik bizi ginen, gaua iratzarrian pasaturik, San Ferminetan entzierroaren ondotik, orain desagertua omen den Bilbo tabernan gosaltzera gindoazenean, adibidez.

– Goazen Bilbora askaltzera!

– Bilbora? Bauna mentsetik? Baakina nun den Bilbo?

– Prefosta, hortxe karrika izkinan...

Solaskide unatuak ez zuen gehiago zehazten. Ezintasunak zilegitzen zuen karkara batek dislokatzen gintuen. Joana Garaldarekin nenbilen garai hartan hain zuzen. Gure jardun sentimentala Auñamendien antzekoa zen, gailur eta leze sakon. Ez nintzaion sobera fidel egon, fideltasuna ez baitzen ene kalitaterik funtsezkoena. Azkenean aspertu eta Barkoxen euskara ikasi zuen Haitz Zumetarekin ezkondu zen Joana, zuberotarren artean nengoen denboretan, eta lau haur pottoloren ama prunta bihurtua zen. Iragana ahantzia zukeen erabat. Nik ordea, gaur bezala-

ko goiz nekatuetako giroa hurrupatzean, bakan egia erran, Joana Garalda neraman gogoan.

Carmen ene ihes mental bultaz konturatu zen. Besoetan hartu eta tinkatu ninduen: ez zitzaion laket eskapa nendin. Pentsamendu soilaz are gutxiago. Beha nengokion, buru-zokoan *etengabeko eratorrian ibiltzetik zainduko nauena haiz Carmen* errepikatzen nuela. Musu bat trukatu genuen, debaldeko elerik gabe. Zintzurren azantz koxkorra aditzen zela, Gasteizko Radio Euskadiren sintonia oihar zen *son las ocho menos cuarto y dentro de cinco minutos recibiremos a nuestro invitado político* eta kafe makinaren xirri-xarra ketsua. Carmen Haizeminekin utzi eta Gexan Hiriarten aldera hurbildu nintzen.

– Errazu, Gexan, zer ari zinen atzo goizean Gorringorekin Iturriza parkean?

– Urde zikin horrekin negoziatu nahi nuen.

– Zer bada negoziatu?

Carmen eta biorekiko euskaltzainaren soa bortiztu zen.

– Gure hitzordua trabatu zenuten. Emazteki madarikatuak, beti behar ez den lekuan aurkitzen zarete, bekatuaren urratsean eta bakea lor-

tzeko bidearen azken zedarrian. Zuengatik hil dira Pierre d'Oihenart eta Manex Bergeret gaizoak. Ene seme pistolet hura ere beharko dut larderiatu: frankotan banoa etxetik, deus erran gabe. Ez naiz bospasei egunez itzultzen. Ez da inkietatzen oizu orduan! Gehienetan Bilbon gaude lau adiskideak, batzuetan Gasteizen incognito eta noiztenka Iruñean. Eta ez Euskaltzaindiaren bilkuretan! Baina inutilegiak zarete zertan gabiltzan imajinatzeko...

– Zaude gizona –artekatu nintzen Hiriarten logore kexatua errautsi asmoz.

Hargatik ezpainetarik tua hagun zeriola segitzen zuen, sekula baino haserreago:

– Gorringorekin akomeatzen ahalko nintzen, semeak eta semearen gomendioz zuek ez bazenute gure saltsa mindu!!! Kaguenlakalitz! Orain lagunak zenduak dira, bat mehatxatua, nehork ezin jakin non dagoen, menturaz Gorringoren atzaparretan, eta ni hemen, ez buru ez buztanik ez duen jende bekatoros hauekin. Bazauzue ala?

– Gurekin hobe duzu.

Behialako galdea berriz egin nion:

– Zer bada negoziatu nahi zenuen Gorringorekin?

– Maletaren irekitzeko giltzaren lekua non zen erran behar nion, gure mehatxatzeari uko eginen ziolakoaren truke.

– Mehatxatzeari?

– Bai, beti ari zitzaigun zirrikaz eta erdeinuka. Edukiaz susmorik gabe, aiten aitetarik erdietsi jakitate berezi baten jabe ginela erran dizut jadanik ezta? Euskararentzat aro ilunak zetozela eta laurok erabaki genuen bakoitzak enigmaren zati bat eramatea. Giltzaren lokalizatzeko laurak batera beharko gintuzten harrapatu, koplak bederazka misteriotsu direla aitortuko duzu Amaia!

– Bai, misteriotsu eta tenebros. Nik ere Gorringok nola bat eskas dut, Albert Labruquererena.

– Ez anderea, Gorringok denak ditu falta, papertxo guztiak zuk dituzulako Amaia.

– Xantza badut behingoz.

– Hala iruditzen zait bai –berretsi zidan Carmenek, ene xantzaren zati bat bera zela komentzitua. Hala zen bistan dena.

– Zoritxarreko Labruquere hura atzeman behar dugu atsolutoki. Gorringok pozoitu aitzin. Estevez, kafeak ordaindu dituzu?

Baietz erran zidan Estevezek. Banda airosaren ahoan hitz bat baizik ez zen entzuten: goazen goazen goazen. Kontuarraren gainean metatzen zen *Gidatu* doako hilabetekariaren ale bat hartu nuen, neure buruari hitz emana nion eran. *La cultura y el ocio de Alava*. Aldizkaria eskutik ebatsi zidan Haizeminek ikusi behar omen zuelako gauez zer zegoen Vitoria-Gasteizko kabaretetan. Independentzian behera gindoazela, lagunen hasperenak, irri karkarak, isiltasunak berak usnatzen nituen. Eguzkiak aire idorra uhargitzen zuen. Istant hartan, Gasteizko argitasun kasik mediterraneotarrak erraiak korapilatu zizkidan. Haizeminek izparringitik iradokiriko hiriaren mapa eskaini zidan, bizpahiru gauza interesgarri gogomendu zituela azpimarratuz.

Ertzaintzaren aurrean ginen. Eztabaidan hasi ginen, ez baikinen alainan guztiak sartuko. Kalapitak ozen ziren. Bistakoa zenez Haizemin eta Zokilek barnera nahi zuten eta hondarrean amor

eman genuen, Carmenek aspaldiko Mikel Laboaren kanta baten leloa oihukatu zuenean:

– Denak ala inor ez!

– Bakarka ezin da –jarraitu zuen Zokilek, galtzen artean pistola kukutzen zuela.

Nahaspila xelebrea borobildu zen Thomas inspektorearen aitzinean agitu ginenean. Thomasek ezagutzen zuen bakarra Estevez zen. Ondorioz Estevezek minutu apurrak aurkezpenetan higatu zituen. Uneak bukaezina zirudien. Duda zerbait ernatu zen komisaldegi txikiaren eremuetan. Zer zen hau? Gaueko hordimenetarik oraindik belhitu gabeko bestalier talde bat? Komisaldegia atakatzea xede zuen saldo kontrolagaitz bat? Aurreko kideek ez zekiten nola kudea aterpe hartan garatzen ari zen burbuila zaratatsua. Thomasek besoak solairura altxatu zituen:

– Lasai! Ez denak batera. Estevez, erraguzu zuen etorreraren arrazoia. Bestela ez dugu burutzerik eginen.

Honek ere euskara Iparraldean ikasia zukeen.

Estevezek hitz formatatuak aukeratu zituen. Polizien hizkuntza ez baitzen jende arruntena. Ardurenean, izpiritua ere ezberdina zela zirudi-

tan. Errepresioa justifika ala ekidin zezaketen hitzen hautaketan harilkatzen zen. Lehen aldia zen inkesta bat polizien laguntzarekin eramaten nuela eta Gasteizen, Bilbon bezain bitxi zen enetako. Thomasek egiaz ez zuen piztia itxurarik, alderantziz eztia eta beharia zen. Nekadura botaz publikoarentzat apailatuak ziren ttottogia berdailetan etzan ziren gaineratikoak. Haizeminek burua Gexan Hiriarten sorbaldan pausatu zuen. Gizona, hasieran disgustu keinu bat marraztu arren, etsipenetan urtu zen. Carmen Zokilen ondoan zegoen. Estevez eta biok, Thomasen itzalean, zutik ginauden.

– Gorringo Gasteizera jin da Albert Labruquererekin. Gorringo horrek jadanik bi gizon hil ditu, ez noski bere eskuz, baina edarietara errauts zitala aurtikiz. Horrela zendu dira Gexan Hiriart euskaltzainaren bi adiskide: Manex Bergeret eta Pierre d'Oihenart. Laurak, Iparraldeko ordezkaritzakoak dira, eta hilabetean behin Bilbora datoz euskara batuaren geroa finkatzen den bilkuretan parte hartzeko...

– Batean erabakitzen dute *aldiro* idatzi behar dela eta bost urte beranduago *aldi oro*.

– Pozik beharko genuke, Alemanian hiru asteetarik behin kanbiatzen direlako erregela ortografikoak.

– Aaaa beraz...

Thomas trufari zebilen. Baina etsenpluak biderka zitzakeela eransten zuen, barrez, euskaldunak ez zekiela nola dantza eta musika bukatzean erdaretara lerratzen zela mustupilka. Alemanei zorrik ez genuela gehitu zuen. Irriari ekin nion nik ere. Hargatik ez nuen uste, erdaretan itotzeko gure jaiduraren errua Euskaltzaindiaren erabaki aldakorretan oinarritzen zenik. Bazen mila faktore. Iparraldean eta Hegoaldean, eta horietarik bat, euskaldunak bere hizkuntza baliatzeko partez, nahiago zuela hizkuntzaz negar egin. Malkoak anitzetan aditz trinkoak baino eraginkorragoak ziren, biktima planta nagusi zen mundu honetan. Thomasen mugikorrak jo zuen. Kolokatzetik gelditzera deitu gintuen.

Thomasen aurpegi kezkatua miresten genuen. Axolagabetasunetik kezka latzera bihurdikatu zen. Zer mila deabru pasatzen zen? Flap! Eskuko telefonoaren klapeta zerratu eta murmuzikatu zuen:

– Hilotz bat atzeman dute langileek Santa Maria katedralaren sarrerako harrietan gorderik.

– Albert Labruquere menturaz –murdukatu nuen.

Gexan Hiriartek berria aditu zuenean, punpa bat egin zuen. Hipaka ttanttakatu zen:

– Gaizo mutikoa! Gaizo mutikoa!

– Jauna, ikustera behar dugu. Agian beste norbait da. Jakin gabe, ez zaitezela horrelako kinka larrian sar. Lasai...

Thomasen ele samurrek ez zuten Gexan Hiriart penatuarekiko ondorio jabalgarri izpirik. Jarraitu zuen:

– Elkarrekin ginen Uztaritzeko seminarioan, elkarrekin Larresoron, elkarrekin Erroman teologia ikasten, elkarrekin Euskaltzaindian. Elkarrekin gabiltza gaurkoan, Iparraldeko euskara arrozten doakigun kalbario ankerrean, elkarrekin bizitzan eta elkarrekin heriotzan. Zer egin diogu Jainkoari, molde zeken horretan gaztigatuak izateko?

– Utz ezazu Jainkoa bere asto beltzaren ulutxekin! Ez du aztaparrik sakatu afera likits hone-

tan! Jainkoaren ordez, Gorringok ditu hariak korapilatzen. Ez dea hala?

– Baliteke, erantzun zidan Gexan Hiriartek –ninika izkinak ahurraz idortzen zituela.

Noiztenka euskaltzainaren sudur-hurrupaka itsusi zenbaitek komisaldegiko bake goiztiarra toteltzen zuten. Zena zela katedraleko hilotzaren presentzia aipatu orduko, mugimendua areagotu zen egoitzako kuluar eta gela beilegi ugarietan. Ordaintzen ez zen karrika batera autoaren eramatea gomendatu zigun Thomasek, Nafarroa kale ertzetara preseski. Haizeminek betekizuna bere gain hartu zuen: Gasteiz ezagutzen eta erraz zitzaiokeen Thunderbird ikusgarria Eusko Jaurlaritza zegoen auzune hipersegurtatuan pausatzea. Haizemin komisaldegitik atera zen:

– Hitzordua katedralean!

– Bai, hemendik ordu erdi batera, zatoz autobusez edo oinez, ez da urruti!

Thomasek pistola, paltoa eta kotxerako girofarolak hartu zituen. Komisaldegiaren aitzinean zegoen Ertzaintzaren auto batean tinkatu eta ziuntaz abiatu ginen, Foruen plazatik, Bakearen kalea eta Frantziakoa zapalduz, Artium erakusto-

kiraino. Briu-brau autotik jaitsi eta lasterka igo ginen katedral maldaraino. Santa Maria lanetan izaki, ezin zen nola-nahika bisita. Sarrerako zurezko ate astuna bulkatu zuen Thomasek eta kalostrapean sartu ginen herrokan. Gida batek kasko zuriak eman zizkigun, barnean zegoen lanjera aipatuz.

– Hilotz bat atzeman omen dute beharginek goizean.

– Bai –ihardetsi zion gidak Thomasi–. Bisitak debekatuak dira, egungo.

– Non dago hilotza? Ez du araiz nehork ukitu?

– Ez, atzeman dugun toki berean dago. Sarrera monumentalaren aixolbean. Azken Jujamenduaren zizelka ugarien itzalean.

– Ohikoan gurutzatzen duzuen norbait da?

– Ez, hemengo inork ez du inoiz ikusi.

Seinale txarra zen. Enetako. Hilotza arrotza baldin bazen, Iparraldeko lau euskaltzainetarik bat izan zitekeen. Gogoeta ilunak burumuinen kurruskari, gida segitu genuen, katedralean zehar, aldamioz aldamio, estilo gotiko sutsuan moldatu sabaietan kaskoak klaskarazten genituela, zehatz eta sotilki josiriko elizaren barnea

mirets genezakeela, nik harria noiztenka eskuaz Carmenen sabeleko larrua bezala ferekatzen nuela, mineralaren indarra behatz puntetako poroen sentsibilitateari esker, neureganatzea helburu. Izturitzen keinu berdina negien. Artean, goiti eta beheiti ari ginen. Sarrera monumentalean ginauden bat-batean. Gidak, eriaz, plastiko puska batez estaliriko haragi masa erakutsi zigun. Neska gaztea oka egitear zegoela sumatzen nuen, ustel usaina nagusitzen zelako bero sapa hauekin, harri errautsarena azkar izanagatik.

Hilotzekin ez nintzen sobera fier. Banekien erraiak irauliko zitzaizkidala. Carmeni mokanes brodatua eskatu eta aho aurrean hedatu nuen. Burdinazko eskailera zurietan behera jaisteko ordua hurran geneukan. Lanen zuzendariak agerpenarekiko xehetasunak eman zizkion Thomasi:

– Etorri naiz, egunero nola, huxtuka eta trankil. Gaur, Infernukoak deitzen ditugun eskulturak garbitzekoak genituen. Langileak pirta-pirtaka zetozen, batek erran zuelarik urrin berezi bat bazetorrela zementu zakuen metaren atzealdetik.

Jonek erantzun zion agian arratoi zendu baten gorpu hirotuak zuela horrelako usain txarra. Jon eta Jose, biak, zementu zaku metaren aldera bideratu ziren eta han zuten ezbeharra kausitu, bilatu gabe.

– Mila esker gizon! Zenbat denbora badu urrin hori nabaritzen duzuela?

– Jon, zatoz –manatu zuen lanen nagusia ziru-dienak eta Thomasen galdea errepikatu zion.

Jon zelakoa, harri-tailugintzan espezializaturiko mutiko huts bat zen. Ez zitekeen hizlari handietarik, arrapostu laburra eman zigulako:

– Atzo arratsaz geroztik uste dut.

– Barda?

– Bai. Baina ez dakit ezer. Arratoiak badira katedral zahar honetan, eta arratoi usteldu baten urrina zela ziruditan.

– Ados Jon. Ez zaitugu akusatzen –artekatu zuen Thomasek, eskailerak kraskaraziz hilotzaren aldera zuzentzen zela.

– Amaia?

Trinkili-trankala Thomasen eta Estevezen urratsetarik atrebitu nintzen. Sabelak ez zidan ihardokiko. Banekien. Hilotzari hurbiltzenago eta

eztrenpua handiago. Ideiaz aldatzeko, bizkar zakuan neramatzan lau euskaltzainen potretak jalgi nituen, eta museko kartak bailiran begien bistan atxikitzen nituen, mailetan behaztopatzeko arriskuan. Hilotz bat baldin bazen, Albert Labruquererena baizik ez zatekeen, zorigaitzez Gexan Hiriartentzat, baina hobe guretzat maletaren giltzaraino eroango gintuen enigmaren laugarren koplaz jabetuko ginelako berehala. Pentsamendu paradoxala ernatzen zitzaidala konturatzen nintzen orduan, zementu zakuetan mordoildu gorputzaren gaineko plastikozko oihala altxatu zuen Estevezek:

– Bilatzen dugun Labruquere al da?

Ikusi nuen hilotzaren mutur beltzatua. Goiti egitear nengoen. Estomakaren eraso biren artean argazkiari behako bat bota nion eta dudak ito ninduen. Ez nekien gehiago. Arrazoitzeko ahalmena ahultzen zihoakidan.

– Ez dakit.

– Nola ez dakizula?

Thomasek argazkia eskutik ebatsi zidan bortizki.

Ahalke nintzen. Alabaina, ez nuen egundaino hiru zendurekilako inkestarik eraman. Saiek erdi jan ardi edo behor hilak mentzea ez zitzaidan batere inporta, baina jendeak? Jendea beste zerbait zen, ez nezakeen jasan. Thomas bizkitartean, deus ez bailitzan, gorpuaren gainera plegatua zen, argazkiari konparatzen zuela, barne uholderik pairatu gabe. Bitxi zitzaidan, baina profesionala zen, eta lagunaren profesionaltasuna estimatzen nuen errotik. Estevezek burua makurtu zuen ezker-eskuin:

– Ez da Labruquere.

– Ez –errepikatu zuen Thomasek–. Nor da?

Katedralean hedatzen ari zen beroak oihartu zuen eskaera. Jadanik hor ziren hiltegiko langileak eta poliziategiko teknikariak, indizeak eta inguruan saldotzen ziren langileen iritziak biltzeko. Airea behar nuela gogozkatu arau, eskaileretan gora nindoan, ments baten pare, eta sabaiaren azpian amultsuki aiduru neukan Carmenen beso artera erori nintzen, ezindua.

– Amaia?

– Gaizki nago. Sabelak ihalozka. Goazen.

– Nondik?

Gida xifrituak ate apal bat erakutsi zigun. Handik lehiatu ginen, laster batean berriz monoxido karbonikoz hantu aire sanoa biriketaratzeko. Katedral kanpoko harrizko jargian etzanik hobe sentitzen nintzen. Bilis gustua neukan hortzetan itsatsia. Urdaila kolpeka zebilkidan oraino. Oka negien baina ez nuen ezer botatzeko. Carmenek mokanesaz ezpainak garbitzen zizkidan bitartean, iruditzen zitzaidan ez nuela estomakaren aurkako neure borroka partikularra nehoiz irabaziko, tregoa iragarri arren. Neguak plegatu arbola eiharra nintzen, Haizemin etortzen ikusi nuelarik. Katedrala bisitatu ondoan, kalostrapean zeuden berdinki, jagoitik iheserako tentaldirik sufritzen ez zuen Gexan Hiriart eta Zokil, pistola zilarra kilikatzen. Haizeminek iepatu zituen:

– Non daude besteak?

Karkara gordinak Santa Maria katedralaren oinarriak durduzarazi zituen. Thomas eta Estevez taldeari juntatzen zirela, Zokilek airoski erran zuen:

– Amaia gure detektibea hemen dugu, minez josia. Tatorti ez zaio horrelakorik gertatzen oizu!

– Ez zaitezela trufa, hilotz baten aitzinean trenpuaren galtzea edonori gerta dakioke.

– Mila esker Carmen –ahoskatu nuen, mihi gaineko goitikin puskatxoak tuaz botatzean, mila esker eta bereziki oniritz nezakeen, behingoz norbaitek ene aldea hartzea.

Defendaezina nintzen, egiten ere ez nituen hutsez beti barkamen eske ibili behar nuen, neure izaeraz beraz mundua zaurituko banu bezala. Ez zen hala bistan dena. Musu bat nahi nion Carmeni eman, baina ezpainak urrundu zituen:

– Geroxeago mesedez.

Ulergarria zen.

Hilotza eraman zuten. Begiak apaldu nituen. Zutitu nintzenean, burtzoro eroak kikildu ninduen. Carmenek eta Haizeminek bermatzen lagundu ninduten. Thomasek hilotzaren azterketaren berri helaraziko zigula hitzeman zigun eta, agurrak agurtegi, Ertzaintzaren auto zuri-urdin-gorri batean desagertu zen. Estevezek eskua doi-doia mugitu zuen. Denbora bihikatzen hasi zen bat-batean, eta ohartu ginen jada ordu biak zirela. Hertzeak karranka gose geneuzkan.

– Bazkaritarako tenorea dugu. Matxetera.

– Garestiegi izango da –azpimarratu zuen Gasteiz ezagutzen zuen Haizeminek.

– Garesti? Biba Aresti –oihukatu zuen Gexan Hiriartek–. Bizitza salbatu didazue, eta nik zaituztet gonbidatzen.

Santa Marian behera, Matxete plazara jaitsi ginen. Udaberriak zoratu txori saldoaren antzera genbiltzan piu-piuka. Erraien oreka berreskuratu arau gustatzen zitzaidan Gasteiz. Ikerketan ez ginen asko aitzinatzen, euskaltzain bat eta maletaren irekitzeko giltza falta genituelako oraino, elementu garrantzitsuenak hots. Katedralean ginaudela, Dato hotelean gelak erreserbatu zituen Haizeminek zelatatu zuenaren arabera pantzoila alimalearekiko gizon bat gurutzatu zuen.

– Baina jan dezagun lehenik, geroko geroan gerotzeko gero.

# Hostias

Haizemin Axularren antzera mintzo zen, berritzen ari ziren katedralaren ate monumental ederraren itzaletik urrundu ginenean. Gustu mikatza neukan aho zokoan eta bazkaltzeko ideiak ez ninduen asebetetzen, egiazki. Urdaila etsai nuen, eta bero asto hauek gatazka fisiologikoa areagotzen baizik ez zidaten. Elurra amesten nuen, zeruari begiratzen nion oroz. Oka egitearen erruz akitua sentitzen nintzen. Haizemin eta Carmen ez banitu aldamenean eduki, lurrean hedailo nintzatekeen. Zokilek Gexan Hiriart besotik zetxikala, ohartu nintzen bien artean umore handia sortzen ari zela. Estevezek bidea irekitzen zigun karrika hertsietan barna, isil eta gogoetatsu.

Eguzkiak zuzen jotzen zuen Matxete plazan. Mundua ihalozka zebilkidan, baina hobetu nintzen jatetxean aixolbetu bezain laster. Behereko barran hartu gintuzten eta eskaileretan gora lehiarazi. Aire kondizionatua zegoen. Ene burtzoroa jabaldu zen eta, mahaian jartzean, Carmen

eta Gexan Hiriarten artean, sosegatua nintzen. Gexan Hiriart Iparraldeko euskaltzainak Zokilen konpainia nahi zuen atsolutoki. Haizemin eta Estevez aurrean geneuzkan. Zerbitzaria etorri zenean, behialako disgustu, desatsegin eta sabeleko minak ahantziak genituen. Jateaz baino ez genuen pentsatzen.

– Har ezazue nahi duzuena –garrasitu zuen Gexan Hiriartek, esku bat Zokilenean pausatzen zuela.

Zokilek irri xarmagarri batez jestua zilegitu zion.

– Nik entsalada batekin aski dut –erran nuen, eta erran orduko erraiak mustupilka nabari nituen.

– Entsalada bat?

– Bai, ez nago oso ondo.

Eiki goseak hila nintzela, baina ahal izan baldin banu hotelera joanen nintzen lo egitera, eta bakarrik. Hargatik adiskideen eleen zurrunga eztia zela kausa agian, orekara nentorrela iruditzen zitzaidan. Estevez hautematen nuen, Errioxako mahats ura usaintsuz arrada bete godaleta ahora zeramala:

– Bitxi da hala ere. Uste genuen, logikaren arabera, Albert Labruquereren hilotzaren atzematea, eta ezezagun batekin bekoz beko kausitu gara katedraleko harri, zementu eta igeltsu erdian. Zuk, Haizemin deklaratu diguzu Gorringo izan litekeen gizon lodikote bat gurutzatu duzula Dato hoteleko sarreran, gelak erreserbatu dizkiguzunean. Mekatxis! Hilotzak Labruquererena beharko zukeen.

– Bai noski –artekatu nintzen edari beltz sukratua zintzurrean behera lerratzen zitzaidala–, bide onean gaude, Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan Prontxoren konplizitatearekin iragan osteguneko Onomastika bilkurako notak biltzen dituen iranja koloreko karpetako paperak kontuan edukitzen baldin baditugu.

– Hauxe perpaus luzea Amaia, aspaldiko partez.

Carmen barrez ari zen. Bai, gaitzeko perpausa zen. Lehertzen ninduen perpausa. Zena zela, bizkarreko zakutik 14. kideak zerrendan idatzi hiriak eta herriak zekartzan dokumentua atera nuen:

– Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Santa Grazi.

– Santa Grazin izan dun Jean d'Amou –zerrenda ebatzi zidan Carmenek pentsati–. Eliza sakonki arakatu eta ez omen zunan ezer. Maletaren irekitzeko giltzarik ez behintzat.

– Gexan, erradazu zergatik egon zineten Bilbon?

– Es que, es que...

Gizona hitzetan trabukatzen zen, eske-ka. Lasaitu zenean, segitu zuen Zokilen begietan kuraia bilatuz:

– Gorringorekin negoziatzekoak ginen.

– Negoziatu?

– Maletaren giltza non zegoen salatzen genion eta bakean uzten gintuen hark. Bestela zirrika eta gaiztakeria ari zitzaigun. Iparraldeko euskararen onerako ekiten zuela errepikatzen zigun, eta badakizu zein nolako errespetuan datxikagun Iparraldeko euskara guk, Lafitte kalonjearen seme izpiritualok. Eta tratua egin genuen iragan urteko Baionako besten laugarren gauean, Thiers karrikako Euskaltzaindiaren bulegoetan. Baina...

– Baina zer?

Berantesten nindoan. Biolentzia zurrutada batek ito ninduen. Hitz erdika baizik ez zitzaidan ari Hiriart ustel hori, abilarena egin beharrean. Urguilutsua baitzen zaharkia! Ez nezakeen gehiago jasan: bi ukabilkada eta lau ostikorekin mintzatuko zen bai! Ohartu nintzen neure indarkeria keinuen debaldeaz eta lagunak naka-naka jaten miretsi nituen. Kalamarrak tinta beltzean. Txuleta patata frijituekin. Legatza saltsa berdean. Lomoa piperrekin. Isuri beltza burrustan.

Entsalada gotorraren hosto fresko eta tipula xerra uhargiekin tematzen nintzen. Oliba hezurrak murtxatzen nituen. Carmeni so nengokion. Ez nuela gehiago ene bizitzako egun soil bat Carmen gabe pasatzen ahalko ideiak neuronak urratu zizkidan. Hura nahi nuen, baina hark nahiko nindukeena? Maitemindua nintzen, goitika egitean iragana, sineste motelak, justifikazio errazak, beldurrak eta laneko orduen kiratsa botatzen nuen, behingoz inkesta batean bekoz beko neuzkan hilotzak ene nazka orokorren egiaztatzeko baliabideak ziren.

– Baina zer?

– Iturriza baratzean gure juntaren *türbüstera* jin zinezten zuek biak eta handik hara dena gaizki biribilkatu zitzaigun. Ordukotzat Manex Bergeret bulta hartan desagertua zen, eta gure laukotea Bilbon nonbait barreiatua.

– Harremanik ez zenuten zuen artean? Mugikorrik ez duzue ala?

– Ez dugu. Ez gara zuen maneran, telefonoa perexa bati belarritik lotuak gu! Zergatik genuke horrelako tresna zatar bat? Buruz buru hitz egiten dugu guk, antzinako jendeen maneran.

– Orain badakizu –ele uholdea moztu nion–, zure bi lagun minak artsenikoz pozoituak izan direla eta hirugarrena kurri dabilela, Bizkaian, Araban edo Nafarroan nonbait. Hilotz kausitzen ez dugun artean bizirik dela kontsideratzekoa dugu. Gurekin zareno zu, normalki, segurtasunean zara.

– Bai, enekin seguritatean zaude Gexan –erantsi zuen Zokilek ardoz mukurutu basoaren ondoan bere pistola pausatuz.

Arma zilarraren distira ikusi zuenean, pistola arras femeninoa zen alainan, Estevez kexu gorrian sartu zen:

– Zokil, redios, gorde ezazu tresna zirtzil hori. Ateratzen duzunean, izutzen nauzu.

– Demokrazian gaude ez? Gura dudana egiten dut. Baina bale, Estevez, sabelpean kokatuko dut, pubis iletsuaren gainaldean, bere ohiko leku lizunean. Tregoa garaia delako soilik.

– Haserre nago zurekin Zokil, asko maite zaitudan arren: zer behar diguzu frogatu? Arma edukitzeagatik ilunpera bidaltzen ahal zaitut, edonoiz. Kartzelatik ilki zinenean hitz eman zenidan ez zinela gehiago joko horietan atrebituko, eta pistola horren mihi bustiarekin jostatzen gurutzatzen zaitut. Badakit zure arnesak ez duela balarik...

– Bala bakar bat du.

– Eroa zara Zokil.

– Bala bakar bat seigarren hodian, nik badakit, baina pistola ebatsiko lekidakeenak ez lekike, eta errusiar erruletan ausartuko litzatekeenak bizitza arriskatuko luke ederki.

Zintzurrak klosko bihurtu ziren. Akiduraren ordez, atsegin eta betetasun aireak igotzen zitzaizkigun burumuinen arintzera. Ezpain gurin-

tsuez Gexan Hiriartek Zokilen lepondoan musu lodi bat pausatu zuen.

– Zokilekin, egia erran, pistola daukalako menturaz, bakean sentitzen naiz. Euskarak sostengua galdatzen du, araz edo moldez. Gizon indartsuak gustatu zaizkigu Iparraldean.

– Baina Zokil ez da gizona, emakume ahul bat baizik!

– Jeloskor zara ala Amaia? Zokil maite dut justuki, emazte inutil horietarik izanez, emeen nortasun txepela gainditu z, zinezko gizon lardeariatsuaren antzera ekiten duelako.

– Arma bat duelako?

– Bai arma eta armak dakarren xarma.

Eranskin premiarik ez zen. Halaber Zokil, Gexan Hiriart Iparraldeko euskaltzainaren sedukzio boterearen menpe urtzen ari zen. Elkarrekin etzanen bide ziren laster batean. On dagiela murmuratu eta galdezketa segitzea erabaki nuen:

– Jean d'Amouk Izturitzeko harpean eman zidan paperean aipatzen duzun Santa Engrazia hori non dago? Zuberoko Santa Grazi da?

– Ene seme kankailak erran dizu ez zela Zuberoko Santa Grazi. Bere begiez ikusten izan da. Ene ustez Santa Engrazia kapera bat da, desertuaren erdian, toki idor batean.

– Ahaaa. Aitzina!

– Behin, ez dakit zein kongresutan ginen, Albert Labruquererekin sauna batean egon ginen elkarrekin. Biak biluz, jainkoak gaztigatzen dituen kokinkeria guztietarako prest. Albert ene zerarekin jolasten zela, ohartu nintzen papo aldean bazuela olerki bat tatuatua, harria bezain zut altxatu zitzaidanean, Albert apaldu zen, milika lapa murtxatu ninduen, hori zuen laket bederen, eta esnea Islandiako geiser baten antzera ziliportatu nuenean Albert erori zen, haragizko txülüla ozenarazten zuela. Orduan poesiaren azken hitza haztu zitzaidan memoriaren zokoan: Santa Engrazia.

– Ahaaa. Baduzu besterik?

– Albert atzeman dezagula, ahal bezain laster! Ez diot neure buruari barkatuko zerbait itsusi gertatzen baldin bazaio. Jukutria eta penitentzia kordeletan partzuer ginen...

– Partzuer zarete –zuzendu nuen, Gexani so.

Zerbitzaria mahai kantoian zen, papertxoa eskuan, izerdi. Kafeak manatu genizkion. Kafea eta ondotik ihardokitzeko, alkohol baso borobilak. Haizemin atera zela ez ginen ohartu ere egin. Itzuli zen, alegera:

– Pilulak hartu ditut. Eta bihar goizean, trenez, laguna etorriko zait.

– Laguna?

– Bai, nire maitale beltza. Abudiop. Ez dizuet aurkeztu. Geltokian aiduru date. Gasteizko geltokian, blues.

– Kabituko al gara denak Thunderbird hartan? Anitz gara jadanik.

– Amaia, otoi, Thunderbird mundua da eta mundua bertan kabitzen da.

– Eskerrak. Bestela hobe genuen autobus txiki baten alokatzea.

– Ironia merke duzula ageri du.

Ipurdia balantzatuz aulkitik altxatu zen berriz Haizemin, une berdinean Gexan Hiriart eta Zokil higitzen zirela.

– Bagoaz zorren ordaintzera.

– Partekatuko dugu –erran zuen Carmenek, ez baitzen horrela ohitua.

– Nekeak parteka ditzagun, baina ez bazkari zoragarri hau.

Kukumixa berotua bailitzan desagertu zen Hiriart, zirt-zart, apuñatik Zokil zeramala. Gexan Hiriart harrigarria zen zinez. Bikoitza. Anbiguitatez betea. Sosez okitua halaber. Banaka aldentzen ginela, Estevezek sabela torratuz siestatxo baten premia azaldu zigun, berritasun eta zeregin handirik ez zegoela aitzakiaz.

– Thomasek deituko dit arratsaldeko seietan. Autopsia eginen diote katedraleko hilotzari eta, sekula artsenikoarengatik hil baldin bada, ondorioak atera ditzagun!

– Eta Gorringo?

– Dato hotelean dagoela ziur nago –gehitu zuen Haizeminek, harrotasuna doi-doia menperatuz, bular silikonatuak eztiki ferekatzen zituela.

Abudiopek gure abenturan parte hartzea onartu zuelako harro zen Iparraldeko ahaire zaharren abeslari hunkigarria. Carmenek, aldiz, gerritik lotu ninduen; siestaren ideia arras egokia zitzaion. Zokil eta Gexan Hiriartek amodioa deskubritu zutela ematen zuten: Birjina Zuriaren

plazan zehar, punpa eta jauzika, Dato karrikan elkar harrapa eta utz-ka, San Prudentziori kasurik gabe, lehenak ziren hoteleko atearen maldan.

Dato hotela berezia zen: Arka plazakoen kidegoan, eskultura barrokoek agurtzen zuten bidaiaria eta, gero, tapiza ubelez apaindu eskaileretan gora behar zen harrera bulegoratzeko. Han, euskaraz ere zekien gizon gazte batek errezebitu gintuen, goiz partean Haizeminek erreserbatu geletako gakoak banatuz.

– Iparraldekoak ezta?

– Erdiak Iparraldekoak eta gaineratikoak Bilbo Iparraldekoak.

– Hara. CNN telekatea badago logeletan. Eta argia, giltza erabiliz pizten da.

– Ongi da –iritzi zion Haizeminek scout talde baten buruzagia irudi–. Beraz hiru gela daude. Hasieran pentsatzen nuen Estevez, Zokil eta hirurok elkarrekin loak hartuko ginela, eta Gexan Hiriartek bakarrik, baina eguraldi sentimentala agudo aldatu denez, Carmen eta Amaia batean joango dira, Zokil eta Gexan bestean, eta gu biok, ez dea hala Estevez?, azkenekoan.

Estevezek ehemmm kurrinkatu zuen. Nahiagoko zituen menturaz hiru ginea eta bere gela propioa. Baina saldoaren menpe zegoenez, grazia hotzez baieztatu zuen Haizeminen proposamena. Alabaina, inorekin bizi ez zen arren, laneko orduengatik zioenez, Estevezek emazteak zituen gogoko, ez emazte bihurtu gizonak, emazte sortu eta emazte higatzen zirenak baizik. Ederki konpontzen zen ordea, Thunderbirda mukurutzen zuen fauna koloretsuarekin, adiskidantzaren izenean.

– Adiskidantzak noranahi eraman dezake –auhenkatu zuen, irri xaloak aurpegia distirarazten ziola–. Oro har amodiorik ez denean.

– Ez etsi Estevez, amodioa herioaren maneran iragarrezin dator. Soizu –salatu zion Carmenek–, ni hogei urtez bakarrik, bakartegiko bakartegi baina, egon naiz eta Amaia, espero nuena, etorri zait, iparraldeko lau euskaltzain harrapatzea helburu duen ikerketa baten estakuruan.

– Badakit. Nik artean emazte zenbait ezagutu ditut. Baina ez dute agoantatu. Ez nintzen sekula etxean, eta etxean nengoenean, lanaz pentsatzen, ez da horrela bikote-bidea erraza. Gurutze

batez zirrimarratu dut ene bikotean bizitzeko xedea. Afera klasatua da.

– *Cold Case* bat izan daiteke ere.

Banekien zertaz ari nintzen.

Geletara eramaten zuen mirailez eta hemeretzigarren mende bukaerako margoz bezain egur ilunezko zizelkiz hornitua zen pieza karratuan ginauden, Estevez entzuten. Behingoz bere buruaz mintzo zela! Besteak logeletan barreiatuak ziren, Zokil eta Gexan Hiriart gorputzen deklinabidea harilkatzen eta, ate zabaletik zetozen herotsen arabera, Haizemin dutxapean.

Musuak trukatu genituen hirurek eta berezi ginen.

Bortak klaskatu ziren. Bakoitza bere intimitatearekin teman kausitu zen. Aspaldian ez zitzaigun horrelakorik agitu: bi egun eta gau bat baziren taldean jarduten genuela, etengabe. Bitxia zen, batez ere bakarrik zebiltzanentzat.

Carmenenganako lehia ikaragarria nuen.

Hoteleko logelen edergailu barrokoek harritzen eta bozkariatzen gintuzten. Bitrailezko leihoak hertsi genituen eta ohean etzan ginen. Tinki-tinki. Ezpainak ezpainetan. Bularrak bula-

rretan. Zangoak eta besoak korapiloan. Gorputzak bat. Denboren buruan, Carmen zutitu zen, biluzi eta bainutegira ihes egin zuen. Istant amultsu batez emazteari xerrent beha egonik, zoratua eta aztoratua, ildo beretik abiatu nintzen. Urrats batez uraren pean aurkitu nintzenean, bezperatik larru azalean metatzen ari zitzaidan zikina, errautsa eta izerdia nahas, kentzen nuela sentitzen nuen. Puskaka erortzen zihoakidan munduaren eta neure arteko berunezko tapakia. Mugimendu askeagoak egiten nituen, dutxatik zetorren euria ama ontziko likido amniotikoa bailitzan.

Maite nuen Carmen.

Musuka higatu ginen. Mihiak laxatu ziren. Carmenen besoetan nengoelarik dena ahanzten nuen, bakartasun jasana, kideen soako apalesgarriak, ene gorputzaren forma zehatzezina, lau euskaltzainak bizirik harrapatzeko gutizia eta Iparraldeko euskararen egoera larria. Dena ahanzten nuen eta guztiaz oroitzen nintzen, amodioaren ordua memoriaren esnatze minberarena balitz bezala. Carmenen gerriko gantzari lotzen nintzaion, salbamen bila, uhinek astindu

gabarra ahula suntsi ez zedin. Aditzak suhartzen ziren isiltasunaren supazterrean, hatsa agudotzen eta estirak luzatzen. Gustatzen zitzaidan putzu ilunen hegietan kuzkur, ene bitasun egarri basatiaren ureztatzea. Gau urdineko ilargiari muturra eskainirik, otso emearen antzera atsegina oihukatu nuen:

– Laztana.

– Nork erran lezake ez haizela hi ere lesbiana?

Katutxo ezin asearen pare, ene kontra kukubilkatzen zen Carmen. Nahi zuen atsolutoki ene izaera lesbiana onartu eta deiadarka nezan. Baina ez nintzen oraindik atrebitzen ekintzak hitzekin brodatzera. Ez nintzen, bistakoa zenez, bakarra egoera horretan: zaila zen ateka horretan zeuden guztientzat. Belarria ausikitzen zidala, xuxurlatzen zidan:

– Onartu ezan hiretzat hasteko, besteek zer pentsatuko duten axolatu gabe.

– Niretzat? Zergatik onartu niretzat? Ez dinat ezer balio, ez naun ezer, karrikak ziuntaz zeharkatzen dituen izate uher bat baino.

– Ikusten haut nik. Elkarrekin behar dinagu betiko.

– Bai, betiko, elkar ikusten.

Ez nekien Bibliako zein liburu zaharretarik erauzi perpausak deklamatzen hasi nintzen, burua Carmenen bular borobil leunen bereiz-marran pausaturik:

– Begiak badituzte, eta ez dute ikusten, belarriak badituzte eta ez dute aditzen, oinak badituzte eta ez dira aitzinatzen, mihiak badituzte eta ez dute hitzik erratekorik. Madarikatuak bitez.

– Segur haiz Bibliako pasarte bat dela? Ez dun hik hori bertan asmatua? Biblia, Bertolt Brechtek bezain xeheki irakurri eta doinu horretako zati haserreturik ez dinat inoiz leitu.

– Agian *Mendigaineko Predikutik* uholdetzen zaidana dun.

– Menturaz. Maite haut bihotz.

Hilotz.

Amodioa egin genuen berriro. Gero eta sakonago, gero eta betegarriago, gero eta hunkigarriago. Atsedeneratzean, haritik orratzerako anekdota xoxo bat kontatu nion Carmeni: noiz-

bait bortuko bideetan bikotean zebiltzan bi neska arras gazte topatu nituen. Stephania elekarienak erran zidan deblauki:

– Lehen aldiz egin dugularik eskasa zen, bigarrenez hobe, eta hirugarrenez zoriona zen biontzat. Zu ere hala zara ez?

– Zer hala naizela?

– Lesbiana. Ostatuan sartu zarenean iragarri dut.

– Ezin dut gorde orduan? Hala naiz bai, ene orduetan.

– Hauxe arrapostua!

Eiki, arrapostu bikain bezain euskalduna eman niola Nadinak ferekatzen zuen Stephaniari. Carmen kikizai estofatuak menperatzen saiatzen zen:

– Aitortzera bultzatu hinduen neskatxa hark.

– Eta nola! Nehoiz ez bezala. Gainera, ene erdi-aitortzaz harro nindunan.

– Begira!

– Aitortzen dunan unean, erdiz baizik ez baldin bada ere, hire bizitza osoa logikoa bilakatzen dun, bakartasuna, normaltasun lehiaren haraindiko gizonenganako asperdura, norberaren bai-

tako ahalke dorpea, ez jakin zergatik eta nondik hazten zaigun preseski ahalke hori, emakumeekin seguritate eztian izatearen sentimendua eta mila gauza oraino. Aitortzaren istantean damutzen ahal haiz hirea ez den joko-alor batean jostatu haizelako, hireak ez diren arauak errespetatu beharraz, horrek dakarren ezintasuna sari.

– Bai.

Momentu bereziak baziren, ez latzak beti egiaz, gibel ez baitzen gehiago egiten ahal. Carmenen ezpainak ezpainez musurikatzen nituela, gostariak gosta, atzera ez nintzela sekula itzuliko hitz ematen nion neure buruari. Baketua nintzen.

– Lesbiana naun.

– Azkenean.

Iluntzen ari zuen. Samurki bildurik geratuko ginen, eleka eta amodiotan orenak bihikatzen, bortan bost kolpe gotor aditu ez bagenitu. Alabaina, Gasteizen ginen, helburu zehatz batekin, arratsaldeko zazpiak ziren engoitik.

Estevez logelaratu zen banpez, oraindik larru-has ginela.

# Sanctus

Goizeko zazpiak ziren, Dato hoteletik jalgi eta pareko tabernako barran herrokan kafea edan genuenean, buruak apal.

Maleta desagertu zitzaigun. Orain giltza eta maleta bilatzen genituen. Norbait sartu zen gure logelan arrats partean, Parte Zaharrean, ostatuz ostatuko kalbarioan zinpurtzen ginen artean.

Gertatuaz ez ginen sobera harro, Carmenek maleta ohe gainean abandonatzea damutzen zitzaigun jadanik, eta maletaren ebaslea Gorringo zatarra baizik ez zitekeen. Manfred-ek ederki engainatu gintuela onartzekoa genuen ondikotz. Berri txarrak berri txarren hildotik zetozkigula baimen genezakeen, ezen destinu itsuak Haizemin ere gaztigatu baitzuen.

Abiatu ginen Haizemin gidari, Nafarroa karrikan aparkatua zuen bere Thunderbird erraldoiraino. Lauaxetaren brontzezko tailuaren auzunera hain zuzen. Hogei minutuko ibilaldia, Iradieren barna. Gasteiz iratzartzen zihoan, presarik gabe eta lautadako ogi-landen usainak barreia-

tzen ziren hirian, gozo. Autoa hartu eta geltokian geneukan behialako hitzordu desesperatua. Autoan sartu bezain laster Haizeminek Abudiop maitalearen telefono ukaldia ukan zuen: ez omen zen etorriko, bat-batean zintzurrean min eta izugarriko sukarra zuelako. Haizemin, gizontzen zuen hira gotorraz hantu zen:

– Alajainkoa! Tronpatzen nau.

– Baina ez, ez zaitu tronpatzen, eri dela erran dizu. Sinesten ahal duzu ez?

– Ez da nehoiz gaixotzen.

Bolantari kuskaka ari zen Engelblauko izarra. Irudi zuen urguilu propioan kolpatutako ume mukizua. Alabaina nahi zigun Abudiop aurkeztu eta aitzakia ahitu zitzaion. Carmenek lepondoan musu bat eman zion, lasaitzearren, eta oroitzen naiz neska-lagunaren ezpainek Haizeminen larrua jo zutenean, nolako jeloskeriaz erre nintzen. Mutur bidean lerratzeko ene jaidura lakarra menperatzen saiatu nintzen. So tzar bat bota nion eta ulertu zuen Carmenek, horrelakorik ezin zuela gehiago egin. Estevezek *aitzina* ahoskatu eta partitu ginen.

– Eta maleta?

Bezperan, Estevezek gure ganbarako borta gontzetarik biribilkatu ondoan, Dato hoteletik kuku-gordeka atera zen gizon lodikote baten atzetik ibili ginen Gasteiz hirian zehar: Florida parkera eroan gintuen. Parke ederra zen baiki, ederregia guretzat, han kasik galdu baikinen; orenak orentegi ordea, zelako hura harrapatu genuen sasi loretsu baten itzaleko jargi zurbailean, hedailo etzana, Goethe irakurtzen.

Hurbildu nintzaion:

– Gorringo?

– Wie bitte? Wie bitte?

– Zer derasazu *bite*? Non daukazu Albert Labruquere?

– Ich verstehe nicht.

– Kauensos, zer da mintzaira deabru hau? Ez duzu denok bezala euskaraz hitz egiten ahal ala? Ez du balio akitzea, ezagutu zaitut. Gorringo zara!

– Ja, hulerrtzen dut. Halemana nitz. Sehen Sie Goethe lesetzen dut.

– Goethe? Nor da hori? Zure konplizea?

– Ez dut konplitzerik. Aferagile bat nitz. Bleibtreu firmako ordetzkaria. Maschinak ditut zaltzen.

Gasteizen betidanik aurkitu ziren alemanak. Karriketan oraino aditzen zen alemana arratsalde apaletan, aferagileak lantegietarik saldoan besta egitera ateratzen zirenean. Bierrak zurrutatzen zituzten, basoek eman ahala eta *sekretaria lotsatiak* beraiekin zeramatzaten gaueko bakartasunaren arintzeko.

– Ich bin Manfred aus Hamburg.

– Manfred naiz, Hamburgekoa –itzulpena egin zigun bristan Carmenek, eta estonatu nintzen lagunak, hiruzpalau urtez gure gurasoak larderiapean atxiki zituen hizkuntza arraro hori konprenitzen zuelako.

Gizona ez zen toteltzen:

– Etzagutzen dutzue Hamburg?

– Wim Wendersen *Adiskide Amerikarra*-n eta Fatih Akinen *Kurz und Schmerzlos* filmetan ikusi dut hiria.

– Arren, Carmen, ez da egokia espantuka higatzea –oldartu nintzaion–, badakigu Wim Wendersen fanatikoetarik zarela, zeruan balizko ain-

geruak agertuko zitzaizkizula sinetsiz izan zinela Berlinen, eta kontatu didazunez, Potsdamer Platzeko Filmmuseumean negarrez urtu zinen Marlene Dietrichen izkirionea zekarren gutuna mirestean. Hori badakigu.

– Eta Murnauen hil-maskara, Agamenonen urrezkoa bezala. Eta Fritz Langen pasaportea. Baina –erantsi zidan Carmenek serios–, auzia eta gaizo gizon hau utz ditzagula bakean.

Manfred zelakoa bere gantza kintala inarrosten hasi zen. Goetheren italiar elegien bilduma plegatu eta paltoaren barneko sakelan sakatu zuen.

– Garagardo baten urrupatzera gonbitatzen tzaituztet, hastia baldin badutzue.

– Zergatik ez –ihardetsi zion Estevezek–. Ez da hau xerkatzen duguna! Kotxinos! Argi da euskaltzain beldurgarriaren hatzak galdu ditugula.

– Ez gara biziki trebeak –gehitu nuen etsitua–, bihar denak batera Santa Engraziaz Santa Engrazia ibiliko gara, eta beharbada zeozer kausituko dugu. Menturaz giltza. Non duzu maleta Carmen?

– Hotelean.

– Han hobe da gurekilan baino.

– Goatzan –orroatu zuen alemanak, eta ttuku-ttuku hiri erdirantz zuzendu ginen.

Estevez, Carmen eta hirurak ginen Manfreden konpainian. Haizemin bezala, Zokil eta Gexan Hiriart hotelean geratu ziren. Hiriart arras unatua zen, eta amodioa dastatu arau ez zuen pistolarekin jostatzea laket zitzaion Zokilengandik luma batez ere urrundu nahi. Gorringo zela ustez alemanaren gibeletik lehiatzeko unean, haien ganbarako borta joaldi xeheka akitu ginen, debalde. Gure aldetik Korreria, Zapateria, Herreria karrikako ostatuetako bierra uhinka irentsi genuen, olerki emanaldi bat entzun Villa Suson, eta bukatu Kutxilleria eta Pintoreriako tabernetan, doi-doia zutik. Ederki ausatu ginen...

Goiz hartan, Haizemin kexatuak gidatzen zuen Thunderbird mantsoan lau baizik ez ginen; alabaina Zokil eta Gexan Hiriart gutarik bereizi ziren isilka. Azken orduetan agitutakoak bitxi baino bitxiago zitzaizkidan. Gasteiztik jalgiak ginen Logroño aldera, han baitzegoen Santa Engrazia deitu hiri bat, edo herrixka bat. Arabako goizaldea zoragarria zen eta gure barne-minak

arintzeko balio zukeen. Burua Carmenen sorbaldan pausaturik, gogoratzen nintzen Villa Suson nola hauteman genuen Amina Saïd, poesia irakurtzen:

*Nous sommes la main insoumise*
*Qui trace le signe*
*Le vertige devant l'abîme*
*Ouvert par le poème*

*Qu'une parole en nous hésite à se dire*
*Nous atteignons le plus intime de la solitude*

*Nous sommes le pas et la marche*
*Le chemin et la voie*
*Et l'ultime seuil que nous franchirons*
*Nous sommes le lieu où finit le monde*
*Celui où il commence.*

Isildu zen tunisiar jatorriko poeta frantsesa. Angelaren aurkezpenetik landa, Pilarrek euskaralat itzulirik, berriz erran zuen. Erraiak bozkarioz eta arranguraz hantu zitzaizkidan. Edanaren

gainera, hitzaren atsegina ez zen hutsala. Manfred zurrungaz ari zen Villa Susoko ekitaldi-gelaren atarian. Estevez ameslari bazebilen hara eta hona. Orduan zuen bere mugikorrak xanpatu. Thomas zen:

– Katedraleko hilotzak pozoi aztarnarik ez dakar, alkoholarena salbu.

– Ba al du tatuajerik bihotzaren aldean?

– Ez, ez dauka ezer. Gizagaizo bat baino ez dela dirudi.

– Denbora galdu dugu beraz.

– Estevez, denbora ez da sekula galtzen, alderantziz, denborak gaitu galtzen.

Thomasen sententzia sakonak Estevez jabaldu zuen. Ezpainak plegatu zituen, mila eskerka, Amina Saïd-en ahotsa oihar:

*Nous sommes la question*
*Qui n'appelle pas de réponse*
*Nous sommes la question et la réponse*
*Lorsqu'elles ne font qu'un.*

Galdera eta arrapostua ginen gu ere, haizeak biloak nahaspilatzen zizkigula. Lauron izpiritue-

tan tristura zamatsuaren arramantzak ozen zebiltzan. Ez genuen gehiago pista egokirik, zenbait ordu lehenago helburuari hain hurbil ginela ustez.

Non zegoen Gorringo?

Eta maleta?

Labruquere euskaltzaina bizirik zena beti?

Eta nora joan zen Gexan Hiriart Zokilekilan?

Zergatik ez zuen deitzen Jean d'Amou ene manatzaile ezezagunak?

Eskaerak mustulpilkatzen zihoazkidan neuronen pentoka odoltsuetan. Berdin hitsa zen Carmenen soa. Gasteizko gaua urratu genuen, eta menturaz Manfredek xendra faltsua ireki zigun.

Plazerez plazer harrotu ginela aitortzekoa dut: ostatu batean Hertzainak talde ohiko baxista agurtu genuen, ondokoan nini irria marrazten zuen euskal poeta gazte famatu bat bere gurtzaile saldoaz inguratua, beste batean *Dana* diskoarekin zoratu ninduen Mikel Urdangarin abeslaria, eta segidan zigarreta zigarretaren akuilatzaile erretzen ari zen idazle ospetsu bat. Zerrenda luza nezakeen, Gasteiz euskal kulturaren leku eragilea zela frogatzeko baizik ez baldin

bazen ere, partikulazki ilunpea zetorrenean. Karrika izkinako perkusio-jole saldoak gaua dardararazten zuela, porru baporeak bazterrak baratze egiten zituela, ordu bietan Manfred handizki despeditu genuen, auf Wiedersehen!

Inkesta ahaztu zitzaigun eta hainbat gaizto.

Airos ginen, baina Dato hoteleko geletan sartzean ohartu ginen, batetik Zokil eta Gexan Hiriart eskapatu zirela, eta bestetik maleta desagertu zitzaigula. Danteren infernuko bederatzi zirkuluetako deabruak oro juntatzen ziren gure aurka. Madarikatzearen xenda aztalka genezakeen, baina ondoriorik gabe.

Goizaldean, izenetarik beretik bandera klaskari zebilzkigun herriak zeharkatzen genituen: Urizaharra eta Biasteri. Bizkitartean muturik genbiltzan. Haizemin haserre eta gu pixka bat ahalke. Thunderbirdaren motorraren xuxurla aditzen genuen. Batzuetan autoak pasatzen genituen. Jendeen begirada jeloskorrez trufatzeko jaidura zapaltzeaz beste erremediorik ez zitzaigun geratzen. Ortzaizean hiri bat hedatu zen: Logroño. Ebroren gaineko zubi airosa trebeskatu genuen eta atzerrian sentitu ginen guztiz gehie-

nak. Erreka zabalaren hegietan nagitzen zen erregebidea. Ibaiaren presentziak gogoen dorpea arintzen zukeen. Ibaiaren haritik, lurraren itzulia egin zitekeela konturatu nintzen unean, Carmenen ezkerreko esku-ahurra ahora eraman nuen musukatzeko.

– Dena gaizki doakigu.

– Bai.

– Kurios naun jakiteaz zer den zuzen maletaren barnean.

– Agian, agian, bonba atomikoaren osatzeko formula kimikoekiko paperak.

– Iparraldeko bi euskaltzain jadanik hil ditun errusiarrek beraiek nahi ez lituzketen errezeta ertzo batzuengatik.

– Euskararen inguruko sekretu bat balekarkigute?

– Sekretu? Zein sekretu?

Ageri zuen Carmenek, Enrique Artazu izengoitiaz, nobela arrosak eta beltzak aldizka izkiriatzen zituela. Zaldi eroen antzera imajinazioa lauhazka uzten zuen. Bazuen alabaina hiru egun jadanik ordenadoretik urrun zegoela, eta Carmenen aurpegi xifrituari begira pentsatzen nuen

ene idazlerik maiteena, uretik bortizki iradoki arrainaren pare, hats bahitua pairatzen hasiko zela, idazteko premia zuelako, idatzi eta idatzi engoitik.

– Batzuetan luma hartzen dinat –murmuratzen zidan–, doi-doia bizirik nagoela segurtatzeko, idaztea zutik irauten laguntzen nauen bizkarrezurra bailitzan.

– Idazten ez baldin badun hiltzen haiz orduan?

– Molde berezi batez bai. Urtean berrehun orrialdeko hiru eleberri zor zizkionat argitaldariari eta kirolaria bezala naun, papereratzen ari naizen istorioak burua jaten didala, lagunekin aspertzen, nehoren ez ikusteko gutiziarik. Bakarrik niagon, baina ene munduan.

– Bitxia haiz. Horrela baldin bada, nola jardun elkarrekin?

Denbora behar zen amodiorako, denbora behar zen adiskidantza baten bermatzeko. Denbora zen benetako sekretua. Denboraren harilkatzeko baliabide berria zekarrena maletak? Dudaz nengoen. Zena zela, Thunderbirdaren gibeleko jargietan tapalaka ginaudela, Haizemin

eta Estevezek begi keinuak trukatu zituzten. Denbora. Denbora. Denbora. Lelotzen nindoan: ohartzen nintzen, ene lagun prosimoenak zirela zioten berek ez zutela denborarik enetako, laster batean enoatzen nituen eta telefonoan linea mozten zidaten erranez:

– Lanean ari naiz.

– Barkatu molestatzeagatik.

Zintzur korroka bat urkatu nuen. Carmenek ene izpirituaren alhagia zitalak susmatu zituzkeen:

– Bereiz baina batera biziko gaitun. Denbora zainduko dinat hiretzat eta hik niretzat, bata besteaz axolatuko gaitun, urrun izanagatik hurbildik, eta ahal bezain maiz amodioa eginen dinagu, edo Bilbon, edo Baionan.

– Txandaka?

– Hara Santa Engraziarako seinalea –erran zuen Estevezek.

Arnedorako bidea abandonatu genuen, kartetan kolore berdez irudikatutik aitzinatzeko. Errioxan ginen. Eihera ohiak agertzen zitzaizkigun muino kiskalien kaskoetan, ekiak zapaldu herrialde zuriak eta beltzez apaindu emazte zaha-

rrak karriketan, astiro-astiro paseatzen, eguzkia desafiatzen bailuten. Erreka idorrak ordokiaren zain ezinduak zitezkeela errepikatu zuen bietan, bere goizeko kexua ahanztuxea zitzaion Haizeminek: Murillo de Río Leza eta Lagunilla del Jubera. Adi ginauden. Santza Engraziara iritsi ginen.

Bospasei etxe ziren eliza umil baten itzulian, ziertzoak pausatuak bezala. Isiltasuna eta geldotasuna nagusi ziren. Oilo baten karkara hauteman zen, zakur egarrituaren zaunka motela eta haur erasiatuaren negar ozena. Thunderbirda elizaren itzalean aparkatu genuen. Izerdi patsetan ginen. Haizemin desosatzen ari zen fisiologikoki, Estevezek besapean izerdi borobilak zeramatzan eta gu itsaso bihurtuak ginen. Erdi Arokoa zitekeen Jainkoaren Etxearen aldameneko errautsean 4x4 baten errota aztarnak nabarmen ziren. Ez bat ez bi, arimak hausnarrean higatu zitzaizkigun: nor zebilkigun aurrean? Gorringo? Labruquere euskaltzaina bahitzen zuela? Zokil eta Gexan Hiriart ere hemendik iragan zirelako ideiak udalatu zizkigun kolkoak. Balizkoa zen bai, gudari ohiak, hala izenda genezan maite zuen, eta bizitza osoa euskararen alde aletu

zuen apezak moldatzen zuten bikote arraroak gure doblatzea xedetzen zutela, maletaren giltza guk baino lehen eskuratzeko.

– Eta maleta, bikote likitsak ebatsi baligu?

– Hala ere...

Konfiantzaz ari izanak ginen lanean ordura arte. Herio iragarritik salbatu genuen Gexan Hiriart. Zerbait zen bestenaz, herri honetan inori ez zitzaion fidatzen ahal: ingurunearen zuritasun distiratsuak ezabatu zidan pentsamendu negatiboa zen alabaina. Eliza bazterrak mirazkaturik, kalostrapean gertatu nintzen zutoin-zuloak banaka ikertzen, gaueko zein egunetako ainara habiak zenbatzen eta, borta astuna bulkatu nuelarik, barruko freskura mirakulutsuak erotu ninduen. Lerroan sartu ginen. Heziketa kristau zehatza pairatua nuelako, ur benedikatuan busti nituen behatz puntak eta gurutzearen seinalea marraztu nuen ortodoxoen modura, Patmos bisitatuz geroztik hala egiteko usantza neukalako. Carmenek, frantsesa behikatuz, Amina Saïden poema mailukatu zuen, egiazko funtsik gabe, neure gustuko:

*Nous sommes l'ombre de l'ombre*
*Qui dans l'obscure clarté du rêve sommeille*

*Nous sommes la trace sur le sable*
*Nous sommes chaque lettre de l'alphabet.*

Carmenen salmodia neurkari, zutabe bakoitza arakatu genuen, ziraturiko jargien azpiak, liburu-gordagiak, armiarma sareak xehekatu eta aldarera igotzera genbiltzanean, apeztegitik gizon konkortu eta higatua azaldu zitzagun:

– Arren, zer bilatzen duzue eliza pobre eta kasik abandonatu honetan?

– Giltza bat.

– Bizitzaren giltza liburu sainduan datza.

Zorriak buruan balitu bezala hazkaroka hasi zen. Aurpegi akitua zuen. Sotana beltza erraustsez emokatzen zitzaion. Ile zurbailak airean zebilzkion. Ahuntz ahots marrakariz erantsi zigun:

– Jadanik bi bisitaldi basati ukan ditu eliza honek goizean.

– Bi bisitaldi?

– Alimaleko lodikote bat iragan da, bakarrik zena, eta ondotik zahar-gazte bikote bitxi bat.

– Alimaleko lodikotea bakarrik zela erran duzu?

Suerte amiñi bat bagenuen. Gorringo zen.

Hariaren korapilatzea atsegin zitzaidan:

– Gorringo bakarrik baldin badoa, non dago Labruquere?

– Bageneki.

Apezari zuzendu nintzaion:

– Lodikotea zinez bakarrik zebilen? Ez al zuen mehakoil bat bederen aldamenean?

– Mehakoila diozun bezala –ihardetsi zidan–, atzo iragan da eta gaua hemen eman du. Frantziako apez bat zen, arras planttakoa eta izugarri kartsua. Begira, euskararen ikasteko metodo bat utzi dit.

– Albert Labruquere!

– Euskaldunak ez dira denak terroristak, hortaz konturatu naiz barda Johanekin mintzatzean.

– Johan?

Labruquerek gainera izen faltsua erabiltzen zuen. Irrigarria zen. Espioitza film baten itolarrian nengoela ziruditan. Ene inkestak nola, zenario arras txarra zeukan ordea. Burtzoratzeko adinekoa. Zenbait egun zuela egoera kontrola-

tzen genuela uste baldin bagenuen, argi zegoen gaurkoan, ura eri artetik bezala, ihesean zebilkigula. Argi zen halaber Santa Engrazia honetako kaperatxoan giltzarik ez zegoela. Urteek higatu jainkoaren mutilak, bat ere potretik gabe, agurtu gintuen eta ez genuen Bardeetako Santa Engrazia hartara ernatzeaz beste ilkibiderik, gakoa ments zebiltzanak oro jada bertaratuak ez zirela esperatuz.

Tutera in two seconds.

*Nous sommes ce que nous savons*
*Et ce que nous ignorons*
*Nous pleurons des larmes d'ambre*

...

Carmen.

# Benedictus

Haizeminek ziztuan gidatzen zuen, haserrea jabaldu zitzaion arren. Kontrol bat ukan baldin bagenuen, menturaz gaua polizitegian pasatzeko gai gintezkeen. Baina ekiak suntsitzen zuen zelaian nehor ez zen ageri, kamioiak salbu. 232 zenbakiko nazionaletik genbiltzan.

Une batean, Nafarroan sartzean, Thunderbirdaren abiadura orratza ehun eta laurogeitan ikaratzen ikusi nuen:

– Lasai Haizemin! Helduko gara.

– Besteak baino lehen iritsi behar dugula ahantzia duzu ala?

– Baina bizirik, lagun!

– Thunderbirdak bidea maite du eta ez dio infidelitaterik eginen, sinesten ahal nauzu Amaia.

Ene 4L zaharkituan ohitua, kotxe indartsuetan beldur nintzela aitortzekoa nuen. Abiadura hutsa ez nuen gogoko, ez erregebideetan, are gutxiago eguneroko harat-honatetan. Urritasun emearen ohaidea nintzen, gauza guztiak astiro egiten nituen, hainbat non batzuek egoera gaiz-

ki interpretatzen zuten, tuntuna nintzela ustez. Tetele larria ere nintekeen, ordea denboraren erritmoari jarraitzea ororen gainetik laket zitzaidan, denborak bere denboratasunean denbora hartzeko pribilegioa bailuan. Ez zen hala bistan dena, denborak bultzatzen gintuen, akuilatzen, trinkotzen, bahitzen, gatibatzen eta azkenean hobira aurtikitzen. Carmenek eskua belaunean pausatu zidan:

– Trankil Amaia!

– Ados.

Eta Haizeminek Fitipaldi bailitzan zerabilen autoa. Burutazioak abiaduraren kezkatik aldentzen saiatu nintzen. Baziren jada lau ordu Gasteiz utzi genuela, eta etsipenetik etsipenera gindoazen. Gexan Hiriart eta Zokilenganako herra hotza nabaritzen nuen: trahitu gintuzten larriki. Zein harrek kurruskatu zieten burumuina? Gorringo eta Albert Labruquere halaber Santa Engraziatik iraganak ziren. Zer ari ginen gu afari erraldoien hondarrak biltzen? Zergatik ez zidan gehiago deitzen Jean d'Amouk?

Bardeetako karta ireki nuen: nondik nora jo Santa Engraziaratzeko? Bardea Beltzak zeharka-

tzekoak ziren Santxo Abarka kaperaren malda dastatzeko. Jadanik izana nintzen leku horietan, aspaldi zuela Tuteran eraman nuen inkesta baten karietara. Hargatik, urtzen zihoazen urteek ez zidaten memoria zehatzik hazten.

Mineral usain eta lurrak gorri zeuzkan eremuaren ortzaizean Tuterako dorreak sumatu genituen. Orain, behialako minarete haien ordez, katedralaren hagin zorrotzek zerumuga urratzen zuten. Juduak, arabiarrak eta kristauak garai batean Nafarroako erregetzari garesti ordaintzen zioten hein bateko bakean jardun zuten Erriberako hiri nagusian. Jerusalem ohia zen, Benjaminek abiapuntutzat hartu zuena benetako Jerusalemera oinez joateko. Tuteran orduan, ez ziren Libano hegoaldean gaurko zoritxarreko uztailetan bezalaxe, Kanaango ezteiak odoletan bururatzen. Nafarroako euskaldun askoren antzera arabiar eta judu hatsa zeukan bortxaz katolikotu protestanteetarik nintzen. Baionako zein Bidaxuneko judu hilerriak bisitatzean, bihotza amodioz hantzen zitzaidan: alabaina juduak Espainiatik kanporatu zituztenean, haietarik bat, Jakob izenekoa gure familiaren oinarrietan berme suertatu zen. Tute-

ran baizik ez nuen neure jatorri nahasiaz pentsatzen.

Tutera berriz ikusteak poztu ninduen. Maite nuen hiri hori. Karrika idor hertsiak, buztinez eraikitako etxeak, sotoak bezain fresko ziren ostatuak, azken jujamendua irudikatzen zuen elizaren ate zizelkatua eta bereziki klaustro mozarabea. Handik, zikoinak habiatzen mirets nitzakeela erran nion Carmeni, amiamoko zuri-beltzen zeru urdinean zeharreko hegaldiaren pareko gauza ederragorik ez zegoela munduan.

– Beti exajeratzen ezta?

– Amiñi bat baizik ez.

Ezpainak irrimarrez alegeratu zitzaizkidan. Foruen plazako sarreran ginauden. Kioskoa huts zen, baina Erriberako hemeretzi herrien eskudoak banaka aztertzeko astia ukan nuen, Thunderbirdak ziuntaz jarraitzen zuela.

– Kafe bat edan dezakegu terrazaren batean.

– Eroa zara ala? –orroatu zidan ordu arte isilik egon zen Estevezek–. Orain zuzenka Erriberako Santa Engaziara!

– Badakizue nondik jo?

– Atzemanen dugu. Haizeminek ez du nehoiz ni bezain kopiloto onik eduki.

– Otto kopilottoa zara Estevez, zurekin ipar poloraino joango nintzateke.

Haizeminen oharrak freskatu gintuen.

Hezurrak bihurdikatuz, Tuterari ebatsitako behakoa bota genion, Ebro gainera hamalau arkutan aurtikitzen zen zubitik. Ibai ertzeko sasiak eta seipazazpi pisuko etxebizitzak urean miratzen ziren. Hiriko andere, katedralaren mailkako dorrea ageri zen, eta burua doi-doia inguratzen baldin bazen, kristoren betoinezko zutoina ortziei mendekari, muinoaren bizkarrean. Erregebide zuzenaz baliatzen zen Haizemin abiaduraren emendatzeko, eta ematen zuen atsegin zuela.

– Iahuuuu!

– Zezen beltzaren ikurra. Bardeetako sarrera bat –Estevezek baiki Bardeak ezagutzen zituela.

Lur eta harri mihi okre baten gibelean sugetzen zihoan Valarenorako bidea. Edertasuna jada eskainia zitzaigun, arimak non alha ez genekiela. Desertua izanagatik bazka nasaiak ziren, bazka metaforikoak noski, egiazko bazka uda

minean garrazki eskas baitzen. Mandruneztatu xendaren hegitik berrogei bat metrotan gizon bat zebilen, konkor eta itxuraz unatua. Carmenek txorien otserbatzeko erabiltzen zituen largabistak bildu nituen eta gizonaren ibilera ikertu nuen: txapela zeraman buruan, xahako bat sorbaldan eta makila eskuan. Jantzi zatarrez apaindua eta bilo zekenenetik oinaren azken eri ttittileraino errautsez emokatua zen. Gizon hura desertuaren erdian haztamuka begimendu bezain laster *Travis* oihukatu zuen Carmenek:

– Travis!

– Zer ari zara Travis-ka? Artaldea galdu duen artzain bat baizik ez da!

– Artzaina sasoi honetan? Mentsa zara Haizemin.

– Barkatu Carmen, baina nor da Travis?

– Basamortu lehorra, ur eskasa, gizon bat oinez, egarriz kulunka, haize ertzoa eta Ry Cooderren gitarra zimikoa.

– Arrazoi du Carmenek –maitearen aldea hartzen nuen–, arrazoi du –berretsi nuen–. Travisen aitzakian gizon kurkuilatu hori lagundu behar genukeela uste dut.

Haizemin urrikaldu zen. Thunderbirda ipularrean utzi eta autotik jaitsi ginen. Berantetsia genuen alabaina, hankak xinaurritegi bihurtzen ari zitzaizkigulako. Jauzika genbiltzan gizon zaharraren gibeletik. Itzulikatu zen eta are lasterrago zihoala konturatu ginen. Gazteago eta entrenatuagoak ginen nolabait, eta sprint baten ostean gizona setiatu genuen.

– Travis! –errepikatu zuen Carmenek.

– Zer duzue zuek –karkaratu zuen gizaizoak–, bakea emadazue.

– Travis?

– Ez naiz Travis. Albert Labruquere naiz. Iparraldeko euskaltzainetarik bat.

– Albert Labruquere?

Ez nuen zorionaren gordetzeko arrazoirik. Bilatzen genuen biligarroetarik bat zen, alajainkoa! Bozkarioak agurearen laidoztatzeko tentalditik urrundu ninduen. Palto hegitik loturik neureganatu nuen, bortizki, Jack Malonek legikeen eran:

– Errazu Albert, zergatik zabiltza eratorrian desertu honen erdian?

– Ez da kontatzeko erraza. Istorio luzea da.

– Badugu astia.

– Amaia –otoiztu zidan Estevezek–, preseski, betarik ez dugu. Santa Engrazian dituzkegu gure beste pika-beleak. Erna gaitezen!

– Baiki. Arren autoan erranen diguzu xeheki zer gertatu zaizun.

Punpan sartu ginen Thunderbirdean, mirakuluz harrapatu Albert Labruquere Carmen eta bion artean geneukala, artoski. Thunderbirdak Ejeako erregebidea abandonatu eta lurrezko xidorrari ekin zion. Bihurgunez bihurgune ibili ginen, sasi idorretan barna, batzuetan eihartutako arto landak jaukitzen zitzaizkigula. Bazter erreiei begira, oroitzen nintzen lehen aldiz Bardeak bisitatu nituenean, Joseba, Asun eta Tuterako ikastolako kideekin, nolako euri uharra egin zuen eta orduan ura burrustan isurtzen zen errautsak buztinduz.

Labruquerek, hasieran, komunione txikia egin gabearen herabetasuna erakusten zigun. Baina zirikatzen nuen gaizki ikasia bainintzen, eta hondarrean hitza askatu zuen:

– Gexan Hiriart eta Gorringo irakaslea atzetik nituen, tatuatua daramadan kopla azaleratu

nahiz. Biak elkarrekin dabiltza. Konplizeak dira. Giltza harrapatuko dute berehala.

– Ez dut uste, artekatu nuen.

Gizonak auhenka segitu zuen:

– Autostopez iritsi naiz honaino. Larrua salbatzekoa nuen, derrigorrez. Iparraldeko euskararen ohorea jokoan dago. Orain arte zaindu dugu. Bihar ez da segur. Bilboko Doña Casilda baratzean ostu zeniguten maletako paperek euskal literaturaren geroa baldintzatuko dute.

– Maleta ebatsi digute –zehaztu zuen Carmenek.

– Ebatsi dizuetela? Nork?

Albert Labruquere durduzatzen zihoan. Ahoak eman ahala edaten zuen plastikozko botiletan generaman uretik. Hatsa hartzen zuela, hizketan zerraikan:

– Gorringori irudi zaio ordua dela euskaldunei maletaren edukia ezagutarazteko. Ez dakit nola egon den urde zikin hori sekretuaren jakinean. Gutariko bat gehiegi mintzatu daiteke. Ez gara mihi urrikoak, pixka bat mozkortu eta ongi jan ondoan. Pentsatzen dut Gexan Hiriartek duela mina eragin, diru trukean. Sosa maite baitu, nik

hura maite dudan bezainbat. Sosa eta ohorea. Sekretua betirako sekretu komeni da ez?

– Pierre d'Oihenart eta Manex Bergeret pozoiturik hilak izan dira. Eta Gasteizko Santa Maria katedraleko lantokian kausitu den hilotza zurea zela susmatu genuen. Baina ez zen hala.

– Hilak izan dira? Pena dut. Amor emateko tenorea datorkit.

– Amor emateko?

Arraformulatzeko tirriari uko ezin nion egin. Gizona lehortzen zihoan. Mututzen. Etendua zen.

Zainetan nenbilen ni:

– Zer dago maletaren barnean?

– Ageriko giltza erdiesten baldin badugu...

– Ba al dakizu zer dagoen maleta hartan?

– Zuzen ez dakit. Soilik euskal literatura ipurdiz gora jarriko duen idatzi bat. Mendeen mendeetan prestuki gordean atxiki da eta, gaurkoan, sosez gosetutako bizpahiru jendaila anbiziotsuren erruz argiratzeko arriskuan dago. Madarikatuak bitez.

– Katxislaletxe.

Erdeinuzko ele arrotzak baizik ez zitzaizkidan ateratzen. Saindu aurpegia aurreratuz, Carme-

nek so tzarra luzatu zidan. Alta bera ere hiztegi maila horretan nahiko trebea zen. Zer zuen hor marimargarita baten plantan, nintzen marimutikoari oldartzeko? Bitxia zen alainan.

Anartean, Haizeminen autoa herrixka txiki batera iritsi zen. Santa Engrazia zena? Hala zitekeen menturaz, Haizeminek kotxe izugarriaren motorra eho zuelako. Erribera osoan nola, hala etxeak gisuz tindatuak eta apalak ziren. Eguerdi minean nehor ez zebilen karriketan. Ebro ibaiaren eta isiltasunak zapaltzen zuen herriaren artean altxatzen zen mendi biluziaren maldan zegoen, kasik lo. Airearen mineraltasuna usnatzen nuen eta ongi sentitzen nintzen, beroa jasan arren. Marruma elkorra hauteman zen. Ate berde baten atzetik jalgi zen beltzez beztitu adineko emazte bati galdetu genion ea hemen zenez Santa Engraziako kapera. Ihardespen laburra eman zigun, solasak nekatuko bailuan:

– Ez, Santxo Abarka deritzon kaperatxoa da hau, Santa Engrazia beherago daukazue, Taustera ezker hartu eta Corteserantz.

– Ba al da zeozer berezirik Santa Engrazian?

– Eliza bat bada. Eliza normal bat.

Ttattit zegoen Albert Labruquereren saihetsera jauzi egin nuen. Emaztea ordukoz desagertua zen. Euskaltzainari paltoa eta atorra ken zitzan eskatu nion ahotsa gogortuz.

– Neska gazte hauen aurrean ez naiz larruhas jarriko!

– Aski komedia! Biluz zaitez eta agudo!

– Otoi, bekatu da. Bekatu dela!

– Ez da bekatu oizu, bi gizonen hilaraztea, sekretu txepel batengatik! Zotüka zaitez bestela bortxa erabiliko dugu.

Neguko goiz lainotsuetan auzoek sangreatzera zeramaten baserriko urdearen gisa higitzen zen Albert Labruquere. Ez zuen aterkia ilki nahi. Ohartu zelarik bururaino joatera deliberatuak ginela, galtzetako sakelatik paper puska bat jalgi zuen. Purtzilikatua. Urdin arin koloreko marrak zeuzkan puxinka desplegatu nuen eta, adiskideak gogoetara deituz, irakurtzeari ekin nion:

*Desertuan higatu*
*Genuen abarka,*
*Denetan da bilatu:*
*Nork lezake barka?*

Behin eta bietan leitu nuen. Jada eskumenean geneuzkan bi zatiekin erkatuz, erritmo aldaketa zuhur bat bazela azpimarra genezakeen. Baina, argiago zen: giltza ondo-ondoan genuen eta Santa Engraziaren gaineratiko aipamenak oro indize faltsuak ziren. Esperatzekoa zen aitzinetik geneuzkan biligarroak Santa Engraziara joan zirela, itsuki, Errioxakoan gure antzera gelditu zirenaz gain. Albert Labruquere keinuz ari zitzaidan, papera inguratzea gomendatzeko. Hala egin nuen kuriositate soilez. Carmen beha zegokidan. Ahotsa garbitu nuen:

*Harrizko aingeruak*
*Lurrean du oina,*
*Hargatikan zeruak*
*Bermatzen zutoina.*

Hau zen hau!

Ortzimugan Ebroren ohantzeak distiratzen zuen, pastel aire. Eukalipto usaintsuak itzala eskaintzen zion Santxo Abarka kaperan sartzekoak ginen zalu-zalua, harrizko aingerua ikus eta zu-

toinaren azpian, lurra karrakatuz edo eliza zolako harlauzak mugituz, amestutako giltza atzemanen genukeen. Maleta falta zitzaigun.

Orduan ene telefonoak jo zuen.

– Jean d'Amou jauna! Azkenean! Non zaude?

– Erran dizut ez duzula jakitearen beharrik. Zertan zarete?

– Giltza badugu.

– Maletarik ez ordea!

– Justu.

– Gorringo odolustu da Santa Engrazian. Etortzen baldin bazarete ederki errezebituak ziratekе.

– Santa Engrazian zara beraz?

Bi-bi-bi-bi...

Kaperako borta astuna karrankarazi genuen. Albert Labruquere otoitzean ari zen. Sakrilegiora atrebitzen ginen haren gustuko. Ikara zen. Gorputzean jada ur gutxi eta izerdi trenpan zebilen. Haizeminek eta Estevezek harrizko aingerua zekarren zutoina bilatu eta kausitu zuten. Beherean harlauza nabarmen zen: juntak aske zituen ez baitzen zementuz lotua. Indarka hasi ziren gure bi gizonei, Carmen gehitu zitzaien. Bulta

baten buruan, harria mugitu zen eta azpian, harrak, marmutxak eta kakamarroak ugari zirela, hornidura mozarabez edertu kaxatxo bat azaldu zitzaigun. Bederazka hitz egin genuen:

– Giltza!

– Giltza!

– Giltza!

– Giltza!

– Madarikatuak!

Albert Labruquere hautsia, kaperako jargia batean zetzan. Historia penatsu baten azkena, munduarena bailitzan. Agian, trahitu zuelako irudipena zeukan. Funtsean, denek denak trahitu zituzten. Eta denek denak trahitu genituen, denek denak trahitu gintuzten bezala. Bidenabar, Jean d'Amou ene manatzaile sibilinoaz zer erranik ez? Izturitzeko harpean ez nuen ikusi ere egin! Noren alde zegoen?

Gorringo zendua baldin bazen, nork zuen orain maleta? Gexan Hiriart eta Zokilek, ala Jean d'Amouk berak?

Pentsati nenbilen bat-batean: kasik leku berean bukatu nuen duela hamar bat urteko Erriberako ikerketan berdinki maleta kontu latz bat ba-

zela gogoratzen nintzen, eta egiaz aspergarria bihurtzen ari zitzaidan. Gogoa kordelean zihoakidan artean, Carmenek kaxa ireki zuen eta benetako zilarrezko giltza agertu zen, kaperako leiho hertsietarik zetozen eki leinuruekin jostari.

Irriz lehertu ginen.

Salbu Labruquere zoritxarrekoa.

Ene hipotesiaren arabera, Hiriart, Zokil eta Jean d'Amou Santa Engrazian zeuden. Santxo Abarka kaperatik bospasei kilometrotan, oraixtiko andereak argitu zigunez. Ez genuen minutu apur bat galtzekorik. Lehiak akuilatzen gintuen. Thunderbirdean nolanahika metatu ginen. Haizeminek ments baten eran gidatzen zuen. Labruquere negarrez, eta Carmen herriaren setio taktika ozkan jartzen ari zen: ene bere ohera erakartzeko erabili zuenaren antzekoa baldin bazen, zinez erreusituko zuela segur nintzen. Estevezek aldiz bere laneko pistolaren prestutasuna aztertu eta *okey* murdukatu zuen.

Tausteko norabidean, Santa Engrazia seinalatzen zuen bidegurutzean hain zuzen, masa ilun bat begiztatu genuen lurrean. Gelditu eta Bilbon behin zelatatu Gorringo lotsagarria zela kontura-

tu ginen. Beroarekin ubeltzen ari zen abiadura gaitzean. Ulu beltz burrunbariak gainean zeuzkan jadanik, harrapakariak bezain ugari. Zerbait zen horrela bukatzea! Unibertsitate askotako irakasle ospetsua zen, ohoratua eta errespetatua, euskaldun onari komeni zitzaion eran. Ohore eta errespetu gehiagoren desiraz txirikordatu zen istorio triste honen sareetan, hilezinak ziruditen lau euskaltzainek zeramaten maleta eskuratu zuen une hitsean. Gaizkiak gaizkia zekarren. Morala salbatua zen, nolabait.

Odolaz aparte, inguruan ez zegoen identifika lezakeen elementu izpirik. Esku muturra eta burdina zurizko ukaraikoa labana zorrotzaz edo motozerraz trenkatu zizkiotela ematen zuen, ukaraiko zainak oro lur egarrituan isurtzen zirela. Esku ahurra bere bost behatzekin zenbait metrotan zetzan. Agian eskuburdinez lotzen zion ukaraiari hainbatek xerkatzen genuen maleta inork ebats ez ziezaion. Nor zen hain krudela Euskal Herrian? Sekretu literario batengatik masakre ankerrera molda zitekeena? Arrazoia zuen Albert Labruquerek eskaini zidan paperean *nork lezake*

*barka* idatzi zuenak: herriak ez zuen ezer barkatzen.

Carmenek gerritik hartu ninduen eztiki. Musukatu ninduen, lapataka, kopetan ziztu eta ziztakari pausatzen zitzaizkidan uluak haizatuz:

– Ez haiz trenputxartu hilotz likits hau aldion ikustean!

– Usatzen hasia naun.

– Mesedez Amaia, nahiago ninan hire niniketako izu zaharra, hire gaurko tema harrotsua baino.

– Maitea... alegia ari naun.

Eta oka egin zuen maite nuen andereak.

# Agnus Dei

Giltza guretu baina beti zerbait eskas zenez, maleta falta genuen. Santa Engrazia herriko elizaren barnean bazen mugimendu, egia erran. Han ziren Zokil eta Gexan Hiriart. Han zen ezagutzen ez nuen gizon zardai bat ere.

Albert Labruquere totelka hasi zen:

– Jean d'Amou! Adiskide Gexanen seme propioa...

Euskaltzainak Jean d'Amou eriaz erakutsi zidan. Beldurrez eta hatsa galtzear zegoen. Sinesgaitz nengoen. Manipulatua izan nintzena? Duda neuretzat atxiki nuen eta belarrira murmuratu nion:

– Zaude zutik, erori arte bederen.

– Aise mintzo zara. Deus ez dakizu. Ume mukizu bat baizik ez zara.

– Bizitza salbatu dizut.

– Uste duzu aski dela?

– Ez da gaizki.

Carmenen gomendioetara utzi nuen Albert Labruquere, larrazkeneko haize hegoan abartxo

batez arbolari lotutako hostoaren antzera higitzen zen, zer egin ez jakin. Carmeni begi keinuka abisatu eta Haizeminek gordeka bidea urratzen zigula, Estevez pistolarekin atzetik zeukala, aitzina ari nintzen. Zutoin baten gibeletik hiru kakeriatuak lurrari hazkaroka begimendu genituen. Xinaurriak bezala, bazterretara behatu gabe, lan zikinari ekiten zioten. Taldearen bildutasun gartsua bitxia zen, zinez Iparraldekoa. Harlauzezko zoladuran belauniko zebiltzan, harri arteka guztiak metalezko isopa batez mirazkatzen. Sakreak oldartu ziren halaber, arraroa baitzen jende hauen ahoetan. Laidoak etsaientzat zeuzkaten, ez besterentzat.

Arratsaldeko lauretan ez zen norbait elizan sartzeko arriskurik. Etxeetako leiho koloretsuak oro hertsiak ziren, eta behiala Santxo Abarkan gurutzaturiko andere adindua menturaz ezkaratzeko freskuran zitekeen jadanik. Auto baten azantza entzun genuen, oihu bat eta mando zohitu baten arramantza patetikoa. Minutuak ahitu genituen ikusgarriari begira: artoski karrakatzen zituzten harriak, errautsak buhatzen eta noiztenka bizkarra zuzentzen doloreak ezabatze-

ko. Irrigarria zen Gexan Hiriart, astoaren moldean lauzangoka aurreratzen segitzea, Zokilen ipurdi erranguratsuak tirriatzen bailuan. Mortifikazio linguistikora gonbidatzen ez zuen itxura arras pornografiko bat genuen begien bistan.

Algararako jaidura zozoa zapaldu nuen nigan.

Zokilek klandestinitate garaietan adoraturiko pistola zilarra jargia batean pausatua zuen, ustez eta seguritatean ziratekeen. Tiroka trebe ez nintzen arren, pistola eskuratu nuen. Haurtzaroan, bost metrotarik ere murru gaineko kuskandel nagia huts egiten nuela oroitzeak ez zidan onik eragiten. Hala ere ausartu nintzen. Ez zuen inork inor hiltzen hiltzeko plazer hutsarengatik, denek hala zioten behintzat, are gutxiago M neska gazte hiltzaile Madarikatuak, harrapatu zutenean oihukatzen zuela etengabe *ez dut nahi! behar dut! ez dut nahi! behar dut!* Arrazoi politikoengatik hiltzen zutenak ez ziren kriminalak, aperentziarik ez, preseski arrazoi politiko gorakoiak aixolbe zeuzkatelako. Buruko meandreak odol debaldez blai neuzkan. Pistola ahurrean tinkatzen nuela, tregoa izanki kontzientzia txarra hazten zihoakidan eta momentu batez

pistola zegoen tokian berriz ezartzeko gogoa nuela aitor nezakeen. Eskerrak ez nuela horrelako xoxokeriarik egin, pistola ederki baliatu zitzaigulako, partida genituen biligarroen menderatzeko.

Jesukristo gurutzifikatua zizelkaturik zekarren zutabearen azpian borobildu zirenean, jauzi batez ondoratu gintzaien. Estevezek eta biok pistolaz mehatxatzen genituen. Haizeminek, gizon zelarik oraino ikasi karate puntu zehatzak marrazten zituen airean, eta edonor oldartzera atrebitu izan balitz orduan, eskuaren ezpata zorrotzaz, erdiz erdi trenkatuko zuen. Bekatuan atzeman haurren antzera besoak altxatu zituzten. Dardara ziren, kukubilko eta otoizka:

– Ez gaitzazuela hil, familiak baditugu guk.

– Eta lana!

– Ez gara zuek bezalako alfer-ondoak!

Gexan Hiriartek ahoa zabaldu orduko pistola sakatu nion ezkerreko matelako haragi malguan. Gaitzitua nintzen. Zokilen pistolaren burdinazko mihiarekin euskaltzainaren hortzak ukitzen eta zirikatzen nituen. Mina sentituko zuela espero nuen. Gutaz trufatu zenaz mendekatzeko guti-

ziak gogortzen ninduen, bortitz. Estevezek Jean d'Amou zetxikan errespetuan. Gizona zizare malatsaren pare bihurdikatzen zen ordu hartan. Haizemin Zokilez axolatzen zen, eztiki, aiherkunderik gabe. Emazteak emazteekin ongi konpontzen ziren hondarrean. Carmenek, Labruquere gaizoa sostengatzen zuela, izkina ilun batean zetzan maleta bereganatu zuen. Laket zitzaidan emekidearen ibileraren kulunka lizuna, maletaren jabe, elizako leiho bakarraren maldara itzuli zenean.

Jean d'Amou orroaz ari zen:

– Ez duzue irekiko! Ez duzuela irekiko! Giltzarik ez duzue...

– Bai, xerkatu eta atzeman dugu. Santxo Abarka kaperan. Maleta zabalduko dugu, baina zabaldu baino lehen jakin nahi dugu zergatik hil diren Manex Bergeret, Pierre d'Oihenart eta Jean Rene Gorringo, zergatia ezagutzerik baldin bada behintzat. Carmen eta Labruquere...

– Amaia, Albert deitzen ahal nauzu engoitik!

– Albert beraz... Thunderbirdaren kofretik ekarri ditugun soka horiekin zutoin honi esteka itzazue, tinkirik. Mintzatuko dira alaxokotzia,

bestela indarra erabiliko dugu eta sufrituko duzue!

Buruak apal zeuzkaten. Jean d'Amou lelotzen zihoan, Santxo Abarka Santxo Abarka auhenka. Zokilen matelari malko bat zerion eta aldamenean zuen Gexan Hiriarten behatzak ukitzen saiatzen zen, hondar keinu laztana bailitzan. Estevez eta Haizemin arraileriant ziren. Nik, ene aldetik, alegrantziarako gutizia nuen eta Carmenek alegrantzia hori nirekin partekatzen zuela jakiteak, alegrantzia bera biderkatzen zidan. Albert Labruquere ttattit eta mutu zegoen, bizitza doi-doietarik salbatu zuela konturatzen zela azkenean. Gexan Hiriarten begitartera tu egin zuen:

– Abantxu hil nauk deabru zikina! Anaiak gintuan!

– Ez nian hire hiltzeko xederik, jakizak.

– Nork orduan?

Labruquere erotzen ari zen. Salda minduko bide zen, Estevezek pistola ez balio zuzendu batbatean. Gizonaren sabeleko kalda mingotsak epeldu eta laster hoztu ziren. Jabaldu zenean, gurutzearen oinetan jarri zen eta ez genuen hor-

tik hara den mendrenik ere entzun. Isiltasun bulta Zokilek laburtu zuen garrasika:

– Beti gauza berdina da! Hegoaldekook Iparraldekoen laguntzera goaz eta begira nola sariztatzen gaituzten! Frantzian nengoenean, armak eskuan haien euskara zaharkituaren alde borrokatzera haiatzen genituen eta Zuberoako ibai ertz anonimoetan Hegoaldekoen aurkako irainak jasaten *hegoaldea nausi handi, iparraldea heien miskandi* edo zerbait horrelako, koblakari txepelen batek espraitua, Lhanderen hiztegia arakaturik! Bazauzue! Hiriarten xarmetara amildu eta estanka bati lotua aurkitzen naiz gaurkoan, katxislaporra!

– Lasai Zokil, mintzatzeko zure txanda etorriko da.

Beroagatik herioa egundaino karroin hegaldatzen baitzen, pistolaren labain hormatua ferekatzen nuela solasaldiaren kudeatzea egokituko zitzaidala irudikatzen nuen. Jean d’Amouk ni ninduen aferaren arduradun izendatu, han, Izturitzeko harpe zoragarrien ilunpe amakoian. Bardeetako tepo larrian, harripe zaharraren freskura neukan gogoan eta zinez izpiritua freskatzen

zidan. Neanderthalen ondorengoetarik nintzen egiazki. Ez zitezkeen denak hil, alabaina bizirik nintzelako, eta hondarrean nahikoa hilotz bazen istorio honetan, jende mota baten desagertze misteriotsuaz hitz egiteko.

Hasi nintzen arraposki:

– Iparraldeko lau euskaltzain galdu zirela jakinarazi zenidanean D'Amou jauna, ez bat ez bi, Iparraldeko euskararen egoerak sor ditzakeen zinkurina guztiengatik, lanari uztartu nintzaion. Papertxoz papertxo ikasi nuen, genuen erantsi beharrean aurkitu nintzen Carmenen so laztana dastatzearekin, ikasi genuen giltza bat atzeman behar genuela eta gizonak Bilbon eratorrian higatu zirenez, Bilbora zuzendu nintzen.

– Ongi egin zenuen –ebaki ninduen Jean d'Amouk–, Bilbon nengoelako zu baino ordu zenbait lehenago.

Jean d'Amouk ez zidan sekula erraten non zen, baina deitzen ninduen aldi oroz, inkesta zein heinetan neukan salatzen nion, deblauki, konfiantza osoz. Nardagarria zen, hilotz bat agertzen zitzaigularik norbaitek aitzina hartzen zigula sentitzea. Eta Jean d'Amou zen, ikerketa-

ren manatzailea bera. Tuteran susmoak sortu zitzaizkidan. Azken bidealdi zuzena zailena zen, ondorioz. Eta horrela dugu herstura gainditu eta giltza eskuratu, Santxo Abarka kaperako aingeruekiko zutoinen azpian.

Jean d'Amouk ezinegona erakusten zuen. Estekak estiratzen zituen, *ez nintzen bakarrik* errepikatzen zuela. Hogeita hamaikakoa atxiki nuen:

– Bistan dena ez zinela bakarrik, zure aitaren konplizitateaz baliatzen zinen.

Gexan Hiriart, lau euskaltzainetarik bat zen eta taldean afera guztiaren eramailearen mutiljokoa eramaten zuen. Beste hirurek ez zuten ezer jakin, salbu beharbada Albert Labruquerek, izuak eroanik, bere aldetik xerkari tematzen zela, berak baitzuen bihotz aldean giltza zegoen tokiaren agerpen zehatza. Imajinatzekoak ziren adineko gizon hauek, kukumixak ehiztariaren men, lurpeko hobiak lehian eskapatzen. Iparraldeko euskararen suntsitzeak sor liezaiekeen beldurra baino gehiago nabaritzen zuten aita-seme deabrutuen parean. Ez ziren horrela ohituak. Bazkari gastronomikoz bazkari astronomiko, ahotsa sekula altxatzen ez zen bilkura ekumeni-

koz bilkura hegemoniko, batzuetan eguna putaetxe anemiko batean bukatzen zutela. Baionara itzultzen ziren Iparraldeko euskara salbatu zutelako sentimenduaz aseak. Baina aldion ez ziren gauzak usaiako planen arabera biribilkatu.

– Ez naiz hobenduna! –Gexan Hiriarti oihu lantzinante bat jazarri zitzaion erraietarik.

Azalduko zidatena zergatik irekitzekoa zen hainbat urtez sekretuan mantendu zen maleta? Galdea pausatu nion Jean d'Amouri:

– Zertako orain?

– Ez dizut erantzuten ahal.

– Pistola honekin kilikatzen baldin bazaitut ere ez?

– Lotsatzen naiz ikustean egungo euskal gazteria zein bortitza den! Ez duzue jende zaharraz errespeturik.

– Hiltzaileek goragalea ematen didate. Zentzu eta alor guztietako hiltzaileek preseski, eta zu haietarik zarela sumatzen dut. Zergatik orain?

– Lazarraga baten idatziak argitaratu ziren Hegoaldean eta banekien, aitak erranik, bazela Iparraldean gordean atxiki zen testu bat. Ez gara Hegoaldekoak baino gutxiago araiz? Donostiako

editore handi batekin mintzatu eta diru-alde gotorra proposatu zidan.

– Euskararekin sosa egin daiteke beraz?

– Itsuski. Saldoak bizi dira euskararen bizkar. Ezpainetarik euskara ezabatzen ari baldin bada hainbat ongi, ez baitute orduan euskararen ikasteko premiarik. Alabaina zergatik ikasiko da laster zenduko den zerbait. Egizu zuhaurk gogoeta Amaia!

– Amodioz ikas daiteke ez? Emazte baten amodioz adibidez.

– Kar-kar-kar... Aspalditik ez dut hoberik entzun!

Jean d'Amouren zinismoak herra hazten zidan. Ene mintzaira pobrea, Iparraldekoa, itxuraz munduari egokitzen ahal ez zena, maite nuen, eder kausitzen nuen, ele, aditz trinko eta deklinabideez Carmenez bezainbat maitemindua nintzen. Laborari unatuena zen noski, eta hirietako jende euskaldun eskolatuek muturra zimurdikatzen zuten, urrikiz eta ulermen ezaz. Santa Engraziako kaperaren itzal hotzean banekien euskaldun petzerorik gabeko euskaldungoa hobetsiko zela franko fite, Hegoaldean eta Iparral-

dean bertan jada nehork nehor ez baitzuen konprenitzen. Erdaretara lerratzen ginen komunikazioa erraztearren. Beharrik bazirela Bilbon Iparraldeko euskararen maitale indartsuak, bestela dena akabo zitekeen.

Burutazioak utzi eta galdeketari ekin nion berriro:

– Nork zuen artsenikoa bota Pierre d'Oihenart eta Manex Bergereten jatekoetara? Ideia txiki bat daukat, baina zuk Jean d'Amou argituko nauzu.

– Ez ditut nik aitaren adiskide horiek pozoitu. Ahanzten duzu Gorringo.

– Bai. Gorringo. Segi ezazu.

– Jean Rene Gorringo gurekin zen. Diruaren parte bat hitz emana zitzaion, testu sekretuaren edizio kritikoa apailatzearen truke. Erran diezazuket buru-belarri sartu zela gure abenturan. Hark zeukan maleta Bardeetara heltzean eta mikromotozerraz ukaraiaren moztera bortxatuak izan ginen. Jokoa bukatu zitzaion. Ez dugu hil, bera da buztin errautsetan odolustu. Halatan, Gorringo lau euskaltzainekin gosaldu zen Bilbon, ostegun hartan eta katiluetako kafea artseniko-

az nahasi zien. Manex eta Pierrek edari beltza falangaz edan zuten, bietan jarraian gainera, baina aitak eta Albertek ez. Albertek tea manatu zuen beranduago.

– Kaferik ez dut hartzen, eta zorionez, bestela ez nintzatekeen hemen –azpimarratu zuen Labruquere gaizoak hasperenka–. Baina Gorringo, d'Amou eta Hiriart atzetik ukan ditut ihesean nenbilenean, bilaketan aurrerapen txiki bat edukiagatik. Bardeetan noraez atzeman ninduzuen, eriaz erakusten gintuen, eta egarriz hiltzeko arrisku hitsetik aldendu.

– Zer zenekien zuk?

Albert Labruquerek kasko pelatua ferekatu zuen. Larru azalaren distiran jauzika zebilkion ulu bat kalitu eta eleari eman zen:

– Banekien Gexanek, Miarritzeko saunategi batean ginela ahapekaturik, maletaren zabaltzeko ideia bitxia sortu zitzaiela zenbaiti. Dirua eta ohorea helburu. Ez euskararen geroa, imilitzik ez. Banekien halaber, jendaila gose honetan noizbait ordua etorriko zela: norbaitek maleta irekiko zuen pandoraren kaxaren antzera. Iparraldeko euskara salbatzeko estakuruarekin.

Testu pornografikoak zirela aditu dut betidanik, baina agian, Euskal Herriaren osotasun eta gehiengo linguistikoari begira, ez da ezer Iparraldeko euskararen erreskatatzen saiatzea baino pornografikoagorik. Horren onartzera behartuak gara. Garaia bera dugu pornografia gizenekoa.

– Halabiz –xuxurlatu zuen Carmenek, begi kliskaz ari zitzaidala.

Estevez eta Haizemin elkarren ondoan jarri ziren. Bazen bulta bat ez nituela entzuten. Carmeni so egin eta ez hain aspaldi ahoskatzera atrebitu nintzen *lesbiana naun* perpausa burutik pasatu zitzaidan. Sintaxiaren soiltasunak ukitzen ninduen, harrigarria zen, mugatzen eta mugaz harainditzen ninduelako, harrotzen eta umiltzen, jendetzen hondarrean, ahalketik, gutxiestetik eta sortuz geroztik jasan nuen etengabeko deprezio egoeratik askatzen baininduen. Galde berrietara iragan aitzin, behatzak ezpainetaratu nituen musu bat Carmenenetara hegaldarazteko: hamazazpi urte genituen eta Rimbaudek zioenez *on est un peu fou quand on a dix sept ans*...

Zokil zutoinaren kontra bihurdika nekusan. Joko uherra eraman zuen istorio honetan eta argi

zen, Florena Blancoren ostatuan neska honen topatzea ez zela kasualitate hutsa izan.

– Zokil, zure aldia.

– Sokak tinkiegi ditut, aska nazazue mesedez.

– Mintza zaitez arren!

– Gexan Hiriart eta Jean d'Amou Frantzian nengoela ezagutu nituen. Bien maitalea nintzen, Marylin Monroe euskaldun bat. Txorta orduan gizon zahartuak zaizkit bereziki gustatzen, eta hauekin galanki konpontzen naiz. Duela lau egun Jean d'Amouk deitu ninduen sekretu behar zuen operazio batean parte hartzeko. Eta nik arriskua dut gogoko! Pentsa, erakunde armatuan nengoela, zuzendaritzari proposatu nion polizian infiltratzea. Lanjerosegi zelako, ez zuten onartu. Armairuan datxikadan pistola zilarra, espero dut Amaia itzuliko didazula, aireztatu eta istorioan urtu nintzen. Kanpoan zinetela, gelan zeneukaten maleta ebatsi genizuen Gexanekin.

– Gorringo zela ustez, Manfreden ondotik genbiltzan hartan?

– Bai, zuek desbideratzeko europarki konpondu ginen Manfred aferagile alemandarrarekin, eta lortu genuen.

– Manfred! Garagardo tupina hura! Ostatuz ostatu eraman gintuen eusko-alemandar adiskidantza ospatu asmoz. Zepora erori ginen, udaberriko goizalde zoharretan, Amikuze oihaneko orein ahulen gisara. Bazauzue, adiskidantzaz zioen Manfredek, hitz batzuk ez dute zintzotasun oinarri izpirik. Ustelak zarete.

– Ez dizut horrelako jujamendurik zilegitzen! Guztia obratu da euskararen alde, Iparraldeko euskara mulikatuaren alde.

*Halabiz* errepikatu zuen Carmenek.

Gatibatuen ileak ikara ziren. Elektrizitatea nabari zen airean. Arianaren haria orratzaren katutxoan sakatu genuen eta bagenekien azkenean nor-nori-nork josi zuen. Hatsean hartu genuen. Baina hiru hilotzek azpatzen zuten bidea. Hilen ziren berdin, bistan dena, denborarekin. Bat-batean, imajinatzen nituen Iparraldeko urgazle-lagunak oro beraien lurpeko tuneletan ihalozka, hegiak inarroska, arrestak kurruska U unea hainbat igurikaturik, ohorez egarri. Harga-

tik, errealitateratuz, bazen gauza bat ulertzen ez nuena:

– Maleta Gexan Hiriart eta Zokilek ebatsi baldin baziguten, zergatik zegoen Gorringo malefikoaren esku muturrean?

Hiriartek ihardetsi zidan:

– Alegia ari ginen, guk maleta ostu eta irakasleari oparitu bagenio bezala. Maleta harrapatu zuen momentuan, gizonaren harrokeria ikusgarria zen, espantu eta punpaka ari zela, gantza dantzan. Aurrerapen puska bat zilegitu eta hemen, Santa Engraziara iristean, hondar kolpea eman genion.

– Diabolikoak zarete.

– Ez zuek bezainbat. Begira, deus egin gabe, orain maletaren eta giltzaren jabe zarete. Ordu da beharbada maleta likits horren irekitzeko.

– Ideia ona duzu Hiriart.

Estevezek zeukan giltza eta Haizeminek maleta. Biak izerdi intzirika zebiltzan. Betekizun arduratsuaren hurbilak izpiritu barreiatuak berbildu zizkieten. Haizeminek maleta beltza Estevezi eskaini zion:

– Tenorea da. Ez dezagun aukera gal. Egitekoa egin dezagula ahalik lasterren, eme hormonak isurtzen ari baitzaizkit ur epelaren pare. Bilbora nahi dut, agudo.

– Zaude, zaude, ez zara hein horretan ez araiz!

– Zuk ez dakizu ezer Amaia! Hercule Poiroten antzera ari zara, astikoi bagina, galdezka eta ni berriz gizontzen noa.

– Hauxe destinuaren latza...

Haizeminek eskuak torratu zituen. Hasperenez. Egia zen Hercule Poirot bat bilakatu nintzela, Lili Rush, Jack Malone eta Lauren Laurano izan ondoan. Gustatzen zitzaidan nortasunez aldatzea, ikaragarri. Kameleoi bat nintzen, eskorpioi bat edo gauaren minean mundua zeharkatzea xede zukeen sagarroi beldurti bat, batez ere amodioaren alorrean. Baina burutazio antzua agortzea hobe nuen, taldearen osasun mentala zaintzearren. Estevezek, antzerkilari trebe eta hirukoitzen gisa, giltza altxatu zuen eta maletan zegokion zuloan kokatu. Ahaaaa izutuak aditu ziren, ohoooo zoratuak eta zintzur korrok elkorrak.

Hiru presoak zutoinari estekatuak zirela, maletaren inguruan kukubilko ginauden gu laurak, begiak leize. Ilusionatuko gintuzten dokumentuek Iparraldeko euskararen geroa bermatuko zutena zinez? Bi euskaltzain zaharren heriotza justifikatua zena? Eta hirugarrenarekiko zer? Zer aurkituko genuen? Eskakizunak biderkatu zitzaizkidan maletaren estalkia Estevezek arraposki altxatu zuenean: paper meta bat baizik ez zen ageri. Horitua. Zoko usainarekin. Trepeldu ginen.

– Zer da hori? – Carmenek ahurra ahora eraman zuen.

Zutoinaren aldetik Hiriart hauteman zen oihuka:

– Gure altxorra da. Ez duzue ezer konprenituko, ezjakin alaenak! Mende ahituetako euskaraz izkiriatuak dira. Laguntzekoak gintuzuen aberastasun literarioa gureganatzen, ez zuenganatzen, alajinkoa! Horretarako kontratatu zintuen Jean d’Amouk. Redios. Ez dugu xantza izpirik.

Negarrez hipaka ari zen, baina ez hiru hilotzen doluz.

# Lux aeterna

Maletaren barnean zeuden paperei begira ginauden, borobilean, Santa Engrazia kaperaren itzalean. Argi xirrixta ahula zetorren kanpotik eta gatibatuen intziriak aditzen genituen. Carmenek idazkiak eskuan hartu zituenean, hatsa bahitu zitzaigun. Etxepareren izena zekartzaten, antzara lumaz izkiriatua. Bigarrenak hiru kopla. Eta laugarrenak ondoko belaunaldiei abisua: «*Kasu, kasu, hau irakurtzen duena menderen mendeetarako madarikatua date. Jainkoak ez dio sekula barkatuko. Biz*».

Irri zozoa libratu nuen, bazuelako aspaldi zerukoaren bezainbat lurrekoen partetik ez nuela barkamendurik jaso. Taldekide guztiak oroz bat barkaezinak ginen. Dokumentuen ikerketan aitzina joatea erabaki genuen, Zokil, Gexan Hiriart, Jean d'Amou eta Albert Labruquere bera dardara ziren bitartean.

Alabaina Bernat Etxepareren koplak ziren. Euskal literaturaren iturrietara itzularazten gintuen Bardeen hegietako elizaren umilak. Erroak

ahantzi ziren, hargatik hor, erroak kurruskatzera kondenatuak ginen.

Haizemin zainetan zebilen, Bilbora lehiaz. Ohikoan hartzen zituen hormonak ezinbesteko zitzaizkion, ahotsa, besteak beste, garrazten zihoakiola. Carmen presatuak ordea, nobela arrosak zein beltzak bi hilabetez kometitzen zituen arren, argitaldariak onartzen ez zizkion berdeak eta urdinak ere noiztenka, egiazki idazlea baitzen, ordenadorearen aitzinetik libratu denbora baliatu zuen, harpeetarik erauziriko bozez hitzak aletzeko:

*Gizonaren probetxuko emaztia bethi da*
*Barnean sartzen zaiola hazittoa kurri da*
*Ezpata zorrotza dauka egundainoko gida*
*Eztenak baduelarik sekulakoz segida.*

*Aluaren goza bidea ez du sekulan galtzen*
*Emaztia delarikan karrikan ere saltzen:*
*Loditzen doa eztena eta bertan argaltzen*
*Odol jorien indarra zaukularik apaltzen.*

*Emaztia biluz gorri gizonaren azpian*

*Etzaten dela ederki, ohearen bakian*
*Galdaturen du eztena sabelpeko sakian*
*Saka diezaion laster, nigar malko artian.*

Uau! egin zuen Carmenek beharra bururatzean. Bazekien Etxepare apezaren ele-sailak zirela, baina hein horretara nehoiz ez zuela imajinatu erran zigun. Ukitua zirudien. Bat-batean, Santa Engrazian isiltasuna nagusitzen zela, larruak ikara nabaritu ziren. Beldurra zen ala emozionea? Zaila zen biak ezberdintzea. Carmenek irakurria egiaztatzeko, orrialdeak ebatsi nizkion ahurretarik eta, bai, hala zen, neska-laguna ez zen engainatu. Ene aldia zen, bihotzaren taupada ozenen arrapaladaz pairatzeko. Haizeminek ostu zizkidan paperak gero, Estevezi pasatu aurretik. Gaurko euskal jendartean jada afrunturik sortuko ez zuten kopla horiek Engelblau bere tabernan kantatuko zituela jakinarazi zigun Haizeminek.

Albert Labruquere aldiz elez zeken zegoen, itsuskeria bat lurretik ilki bagenu bezala. Beste errekituek buruak apal zetxizkaten. Haientzat Etxepareren ohorea eta garbitasuna zikintzen

zuten olerki zati horiek. Euskaldunaren fama ez zen goratuko alainan.

Hosto horituak eskutik eskura iragaten genituen, koplak memorizatzeko. Paper higatuaren usaina elizaren hertsi urrinarekin ezkontzen zen. Bakoitzak bertso bat leitzen zuen, berekiko, norberaren intimitatean gozatzearren. Une batez ez genuen hitzik ere trukatu. Bakoitza bere desirak akuilatu gogoetetan lerratzen zen: Carmenekin amodioa eginen nuela pentsatu nuen nik hain azkar, non maitearen burutazioen lainoa zeharkatzean sentimendu berdinaren aztarna sumatu nion niniketan. Haizeminek silikonazko bularrak ferekatzen zituen. Eta Estevez Bilboko Ertzaintzako bere adiskide inspektorearekin ari zen telefonoan, haragizko kezka burbuilatsuetarik urrun. Burrunba hautsi zuen:

– Zoratzekoa bada Etxepareren kopla gordeak aurkitu ditugulakoan, baina ez dezagula ahantz bi gizon hilak izan direla, ez hiru, testu hauek ezkutuan atxikitzea helburu. Gainera, zutoinari estekan datxizkagun gaiztaginek argitaletxe handi eta mediatiko bati bertsoak saltzeko asmoa zutela badakigu. Maleta ireki eta zurrun-

gaz lo zirauela zirudien literatura baten oinarriak argira ekarri ditugu. Soizue, sinplea da: hiltzaileek jujatuak eta kartzelara behar dute, gaineratikoek bizitzen jarrai dezaten. Baina Nafarroan gaudenez, legez ezin ditugu arrestatu. Horretarako Euskal Erkidegora itzuliko gara. Thomas, Gasteizko laguna, auto batekin Oionera etorriko da Zokil, Gexan Hiriart eta Jean d'Amouren setiatzeko. Apeza eta bere semea, frantsesak direlako, agian libre utziko dira, halaber Zokil gaiztagin elkarte atipiko baten partaide izatea leporatuko zaion arren.

Estevezek, harritzen gintuen moraltasunez hanpatu predikua bukatu zuenean, paperak maletan kokatu eta zutoinari bizkarrez zeudenak askatu genituen. Eskumuturrak loturik Thunderbirdaren atzealdera bulkatzeko orduan, nahikoa urduri geunden. Gehiegi zen alabaina, Euskal Herrian zegoen gauza, hitz eta gertakari batzuen estaltzeko jaidura amankomun hori: irudi eta ohorea mantentzeko, klandestinatean jarduten genuen. Euskaldunki bizitzeak sekretuan irautea zekarren. Mila tabu zeuden, etxeetan, familietan, herrietan edo alderdi politiko eta kulturale-

tan. Alta tabuak ukatzen ziren: herrialde aitzinatuaren itxura eman nahi genuen eta zailtasunak genituen nor-nori-nork arauan gure nortasunak konjugatzeko.

Haritz sendoaren enborrean zizelkatutako *zuzulutik idokitzea* ez zela erraza konturatzen nintzen nihaur, arras lesbiana nintzela ahoskatzea tokatzen zitzaidan apurretan. Carmenek erneki zagitaz ziztatu ninduen, erran eta errepika nezan normaltasun osoz: *jalgihadi* bat nintzen ene aldian, aspaldiko euskara bezala. Baina ohartuko nintzen segur aski denborarekin, ohe zinpurtu baten beroan maitearen bularrak ferekatuz aitortzea aiseago zatekeela, egunero lesbiana antzera plazaratzea baino.

Astotik lastora jauzi egin zuen ene pentsuak.

Bizkitartean, zoritxarreko Gorringo saien bazka bilakatuko zen.

Haizeminek zuen gidatzen Thunderbird distiratsua. Basamortua atzean genuen. Carmen netxikan eskutik, eta sentitzen nuen Euskal Herriaren orekaren bermeetarik bat desertua zela. Ez zen mendien berdetasuna, are gutxiago itsasoaren urdin arranguratsua salbagarri, baizik eta

basamortuaren urrezko idorra; honek gintuen bizidun pilpiratsu moldatzen. Izpiritua alha zebilkigula, gaiztaginak Thomasen meneko utzi genituen Oiongo herriko etxearen parean. Agur eta eskerrik gabe.

Jean d'Amou ordea, oilarki asaldatu zitzaidan:

– Iparraldeko euskararen etorkizuna ilundu duzu maletaren barneko orrialdeen hautsa kilikatzean! Zerrama zikin bat zara Amaia! Ez zintudan horretarako kontratatu, aita atzematen neure laguntzeko baizik! Uste duzu saria erdietsiko duzula? Amets egin dezakegu eta pikutara joaten ahal zara, porru landatzera, antzara ferratzera edo arto bekandatzera, nahi duzunera! Banuen sos alde galanta zuretzat bankuan. Trahitu nauzu, aitak eta biok zugan kristoren konfiantza genuelarik. Euskaldunok trahitzaileak ez ditugula begiko ikasiko duzu berehala...

– Euskaldunon artean, aldeko aburua ez duena, trahitzaile da. Atxik ezazu zure dirua, ez dut horren premiarik.

– Espantuak sartuko zaizkizu, bai, ikusiko duzularik nolako indarra dudan euskal gizartean,

ene gomendioengatik euskal nagusi guztiek zure lan-eskaerak ezeztatuko dituztenean. Gosez hil beharko duzu...

– Gosez eta –Carmeni xuxurlatu nuen– elkar maitez, elkar maitez.

Gexan Hiriarten urratsetarik sartu zen Jean d'Amou Thomasen Ertzaintzako furgoneta txikian. Eskuburdineztatuak ziren. Euskaltzain zaharrak ukabila altxatu eta erakutsi zidan. Haserrearen tua zerion ezpainetarik. Ateak hertsi ziren, klaskaz eta Thomasen autoa desagertu zen. Handik laster Bilboko norabidean ginauden, eta arratsalde apalerako Zabalburu plazako errotondan inguruka genbiltzan, unatuak, errautsez emokatuak eta, geroaz, ez soilik Iparraldeko euskararen geroaz kezkaz amilduak. Handik fite, norbera bere etxean kausitu zen, dutxapean, aspaldi baitzen alabaina uraren isuri hotzak ez zituela larruak laztandu.

Menturaldi bitxiak eroan gintuela iruditzen zitzaigun: jarraipen logikorik gabeko abentura zen, euskaltzain kurkuilatu batzuen gibeletik hasieran, gero maleta batez arrabian, azkenik literaturaren historiaren egileek gordetako Mosen

Bernaten lau koplaren jabe ginela. Altxorra guretuz, egiaren muinera hurbildu arren, bizitzak gure aldian lanjerean jarri genituen. Baina gure bizitzek funtsean ez zuten munta handirik, munduak galtzen ahal gintuen, negar alferrik gabe. Amodioak eta bata-bestearenganako elkartasun axolatsuak gintuzten hazten, ondokoen errameerranetarik urruntzen. Inkesta honek irakatsi *lezioetarik* bat zen.

Ez araiz mandoarena.

Carmenek eta biok larrua jo genuen, sakonki eta harroegia agertu nahi ez nukeen arren, asma nezakeen atseginik erraldoiena dastatuz. Gorputzak bildu ziren, eskuak desbideratu, begiak hertsi eta hatsak laburtu. Maite nuen Carmen. Ez zen aspertzen nirekin, eta horrek menturaz aspaldiko partez sosegatzen ninduen. Jendeak nardatzeko ohitura larria neukan, hainbat non aste apurrez baztertzen ninduten. Zainak desbideratzen zitzaizkidan orduan, debalde galdezka. Nihaur nintzen alabaina neure etsaietan lehena. Carmenekin ez zen hala, alderantziz: ezin aseak ginen, zorionik handiena bilatzen genuen, aditza harilkatzen, etengabeko solasaldiak hiltzeraino

iraungo bailuan, amodioaren hiltzeraino behintzat.

Gau hartan, Haizeminen Engelblau zerratua zen. Abudiopen opor eguna zen. Hitza finkatu genuen, seiehun eta laurogeita hamar presoen argazkiak zerrendan agertzen ziren Parte Zaharreko ostatu abertzale batean. Musika gogorra aditzen zen eta lagunek garagardoak manatu zituzten. Gin-kas zelakoa salbu ez nuen gehiago alkoholik edaten. Hobe zen ene urdailarentzat, bistakoa zenez. Carmenen papoan kuzkur nengoen, Haizeminen aitzinean. Iparraldeko ahaire ederrenak tekno soinuz apaindurik eskaintzen zituena arras bestelakotua zen: garbitua, usain oneztatua, eta hormonaz hanturik, ahotsa emetzen zihoakion berriro. Hilotzak talde metalikoaren erritmo zakarrengatik Estevez parean erdi lo zegoela, arratsaldean Santa Engraziako elizan harrapatu Bernat Etxepareren hiru koplak buruz ikasi zituela azaldu zigun, eta kantatzeari eman zen. Ukituak ginen bihotzaren barne-barnetik. Malko xirripa bat ikusi nuen Carmenen mateletan lerratzen. Estevez bermatu zen, miraria bailitzan.

Haizeminek zerraikan:

*Aluaren goza bidea ez du sekulan galtzen*
*Emaztia delarikan karrikan ere saltzen:*
*Loditzen doa eztena eta bertan argaltzen*
*Odol jorien indarra zaukularik apaltzen.*

*Emaztia biluz gorri gizonaren azpian*
*Etzaten dela ederki, ohearen bakian*
*Galdaturen du eztena sabelpeko sakian*
*Saka diezaion laster, nigar malko artian.*

Maleta madarikatuan hiru orrialde baizik ez genituen aurkitu. Altxor bat zen ordea. Ez genekien zer egin horrekin. Eztabaidan hasi ginen, bakoitzak bere ideia zeukala. Hondarrean Bilboko *Zurgai* literatura aldizkariko Haizeminen lagunei oparitzea erabaki genuen. Literatura izparringi gutxi zen Euskal Herrian gaurkoan. Nik kopia bat zainduko nuen *Maiatz*-ekoentzat. Halaz Euskal Herri osoko irakurleen eskuetara helduko ziren Mosen Bernaten bertso ezkutuak. Zerbait zen hala ere: mendeak ziren jada, jende multzo bekaitz batek, euskaldun guztientzat, eta

hauen izenean, zer irakur eta zer pentsa zezaketen deliberatzen zuela. Edozein gaitan berdin zen: ereduak moldatzen ziren asanbleaz asanblea, bilkuraz bilkura, eta ereduetarik kanpo ez zegoen ihesik. Moldatzen ez zena trahitzailea zen eta pozik oraindik bizirik izateaz, nahiz eta ez zuen gehiago euskaldun zintzo, suhar eta plantakoen otalakoetako belarrik klikatzen ahal. Hausnar txarrean bazebilen, arerio eta aldi berean kide. Egoera eskizofrenikoa zen. Tregoa zen hondarrean urkatutako memoriaren ikararazteko balizko zera bakarra.

Laugarren garagardotik landa Haizeminek, Gasteiz eta Erriberan barna genbiltzanean, gutunontzian sartu zioten publizitate koloretsu bat erakutsi zigun:

– Ez gara hemen errotuko araiz. Ukan dut gonbit bat: gaur, hamarretan, Kafe Antzokian gaitzeko kontzertua bada.

– Bahaia?

– Zuberotar abeslariak gurekin daude. Eta ez nor nahi.

– Nor dira?

– Kurios zara Amaia ezta?

– Noski, Tomes gris hartan egon naizen urteetan hainbat eta hainbat gurutzatu ditut. Edozein tenoretan. Batez ere neguko ilunpeak Zuberoa gatibatzen zuenean, ostatu zokoetan metatzen ziren argi zirrintaraino zinturrak larrutuz eta sudurrak tinkatuz elegia zaharrak dildilarazteko!

– Egitarauari so egiozu eta ohartuko zara gaualdi super ona iragarria zaigula.

Ordaindu eta atera ginen saldoan.

Artekaletik, Somera eta Correosen gaindi, Areatzako zubian kausitu ginen zanpa-zanpa. Carmen eta biok mutu ginauden, behialako amodioarekiko eromenak irauten bailuan. Estevez eta Haizemin bara-bara ari ziren, aldizka Kafe Antzokiko emanaldia eta arratsa kartzelan iraganen zuten hiru biligarroak aipagai:

– Merezi dute. Uste zuketen sosa egitea. Euskal kulturaren merkatu globala itotzea zuten asmo Bernat Etxepareren olerkiak argitaratuz. Antolaketa zehatza zuten. Hargatik, ez dut ulertzen zergatik Jean d’Amouk Amaia Ezpeldoi deitu duen. Aitaren urratsetan askiko zuen urtzea eta kito.

– Gorringorekin desafioan zebilen ene irudiko D'Amou, eta ez zuen agertzeko xederik. Horretarako detektibe adiskideaz baliatu zen. Agian, gure laguntzarik ukan ez balu, Amaia orain Gorringoren ordez hilotz zatekeen, eta penatuak ginatezkeen –erantsi zuen Haizeminek.

– Beraien *deseina* bururaino eraman zezaketen mundu ororen isilik.

– Huts bat egin dute. Gaiztagin abilenek ardura huts bat egiten dute. Krima kasik beti da perfektua. Ez beti.

Irri algara emekoiak Bilboko gaua inarrosi zuen. Haizeminena zen.

Kafe Antzokiaren karrikan bazebilen jendea. Iparraldean euskara ikasi zuten Bilboko euskaldun berri guztien *rendevua* zen zuberotar kantariekilakoa. *Brand new* euskaldun horietan aleman, ingeles, afrikar eta espainol jatorrizkoak baziren, eta denak biltzen baldin baziren ortzadar koloretsua osatzen ahal zela irudikatu nuen, euskararen onerako. Baina zer nintzen ni euskararen onaz aritzeko? Erraten zidaten aski, gaizki baino gaizkiago mintzatzen nintzela, ene Amikuzeko euskara petrala iparraldekoegia zela, eta

horrela ez zela etorkizunerako autobideetan bidesaririk ordaintzen ahal. Egia zen gurea ahultzen eta galtzen zihoala, baina bizirik ginaudeno bederen, gurekin ere egitekoa zen, euskara bere osotasunean noizbait ahoskatzeko detsea egiaztatzekotan. Bestela, Carmen gerritik netxikan, bestela errepikatzen nuen banda armatuan edo hainbat elkartetan egiten zen bezala, bazterketaz bazterketa, kanporaketaz kanporaketa, finkatuko zen euskal jendartearen hizkuntza murritza. Mintzairarekiko hertsitasunaren ondorioak ageri ziren jadanik euskal literaturan, idazleek, denek ulertzeko gisan, sintaxia gero eta *light*-agoak orrialdeetaratzen zituztela. Bazterketek eta kanporaketek umetzen gintuzten.

– Bizitza normala eta hizkuntza erraza.

– Zer derasan?

Carmenen ahotsa nuen entzun. Monologo antzuan aztoratzen nindoala, moztu ninduen:

– Zer derasan?

– Ez dinat bizitza normala eta hizkuntza erraza beste ametsik.

– Hik?

– Bai, nik –ihardetsi nion fermuki.

– Hik? Baina? Lesbiana haiz eta Iparraldekoa! Sekula ez dun amets hori beteko!

– Uste dun ez naitekeela salba?

– Su zelestiarren estiretara kondenatua haiz hi ere. Salbatua izan nahi dun benetan?

– Ez. Benetan ez.

Musu bat trukatu genuen. Herrokan sartu ginen Kafe Antzokian. Ikusgarria hasi berria zela erran zigun, Estevezek ezagutzen zuen junki aurpegiko lagun kankail batek. Kantariak estradaren pean zeuden, eta ez nintzen gutxi harritu Johaine Barkos, Maddi Oihenart, Mixel Arotze eta Joanes Xubururekin batera, Tzapelo handia, Lohidoi mitikoa eta Loustalot ezin isildua susmatu nituelarik. Hirurak hilak ziren bulta hartan, hala irakurri nuen behintzat *Le Miroir de La Soule* hamabostekarian. Betazalak apaldu nituen, besondoa zimikatu nuen, baina agerrindeak berean zirauen eta Ifernuaren sakonetik erauziriko errealitatea baino ez zela onartzekoa nuen: non zegoen nire Tiresias maitea? Bizien eta hilen batasuna ospatzeko tenorea zen Kafe Antzokiko taula gainean. Bihotza nostalgiaz hantu zitzaidan. Soa laino neukan, eurizu, Carmen, Estevez

eta Haizemini tematsuki beha nengoela: *adiskideak* murmurikatu eta istant hura nehoiz buka ez zedin desiratzen nuen.

Nork etzanen zuen denbora geldiarazteko formula?

Bizkitartean, Maddi Oihenartek *Goizian goizik jeiki nündüzün* kantorea eskaintzen zigula, gelako isiltasun sakratua basoen kliskako arinek baino ez zuten hausten. Betazalak apal ari zen beltzez apainduriko abeslaria, mendeak zuela pasatu eztei tragikoetako hilketa, bezperan gertatua bailitzan: *nik banizün maitetto bat mündü ororen isilik, mündü ororen isilik eta Jinko Jaunari ageririk...* Oraindik ere zuberotarraren entzuteak emozioz betetzen ninduen. Oroitzen nintzen, Carmeni belarrira nioenez, Atarratzeko eliza hotzean, arbelezko hegats ilunen lurralde zilarrean negua zela, Maddi Oihenarten hautemateak zenbateraino zoratzen ninduen, Niko Etxarten rock erritmoekin Basauriko plazan dantzatzeak bezainbat. Bilbon, konturatu berriro nintzen zintzurra tinkatu zitzaiola *egünian lür hotzian eta gaüaz bi... besuen artian* auhenkatzen zuela.

Lapsus tempo bat zen, opari bat.

Maddi Oihenartek belusezko ahotsa zeukan Tzapelori utzi zion lekua. *Lili arraroz eginik eta erdia pozüatürik* perpaus musikalak oraino udalatzen zidan kasko zokoa: Pierre d'Oihenart eta Manex Bergeret euskaltzainak artsenikoz *pozüaturik* zendu zirela frogatu zuten Altamira medikuaren ikerketa toxikologikoek. Halaber, leitua nuen nonbait, Joana Labrit, Nafarroako azken erregina, semearen ezkontzara joan zenean Paris aldera, *lili boketa pozüatüa* usaintzean hil zela, hil zutela, hobe erranik. Basahaire mineralak hazkurri, burutazioak zirurika zebilkizkidan. Carmeni hurbildu nintzaion. Emaztearen berotasuna gustatzen zitzaidan, horrela azaldurik, doi bat salbai egiten baldin bazuen ere.

Tzapeloren ondotik Lohidoi landatu zen argi iturriaren azpian, Etxahun Barkoxeko minberategiaren berset dolorüsak harilkatzeko. Espektro Hirukotearen ekitaldia bereziki dastatzen nuen. Haizemin trenputxartzear zegoen. Etxahunen pare, gu ere denak *josafateko sohüetan* juntatuko ginen, baina gure *sohüak* ez ziren haraindietan irudikatu zeruetakoak, larruzko laztan ere-

muak, gorputz eztien harrizko espazioak, taigabeko elkarrizketen ordokiak eta norbera serioski hartzeko garrantzitsua zen bakartasun estimatuaren lautadak baino.

Oihanbeltzetako belardietan alhan segituko genuen!

Johaine Barkosek trankalaka *Bereterretxen Kantorearen* hogeita hamabi koplak eman zituen, Joanes Xuburuk bigarren boza eskaintzen ziola. Oraindik suhar ziren ekialdeko abeslariek korua moldatzen ziotela, Haizemin taulara igo zen eta Santa Engrazia elizan argira ekarri Mosen Bernaten koplak intzirikatu zituen. Herriarentzat, inongo zartagailu, hilketa edo mendeetako debeku moralek lortu ez zuten libertate sentimendu bat hegaldatu zen, negarrarekin errimela urtzen zihoakion Haizeminen ezpainetarik.

Estevez Haizeminez maitemintzen ari zela iruditzen zitzaidan.

Bilbon nintzen, maitearekin, Maulen bezala adiskideekin orenak labur zirela murdukatzen.

# Libera me

Aste bat eskas mugaz haraindian pasaturik, Baionan nintzen berriz. Egun latz eta zoragarriak higatu nituen Iparraldeko lau euskaltzainen hatzetarik. Hiru gizon hilik suertatu ziren, beste hainbeste orain itzalpean zeuden, eta gure taldea bihurtu zen Mosen Bernaten kopla gordeen jabe. Egia osoaren errateko, Jean d'Amouk, Gexan Hiriarten seme propioak ederki manipulatu ninduen eta gintuen, Bilbotik Bardeen hegietako Santa Engrazia kaperarainoko ibilbidean. Eskerrak Haizemin izugarriaren Thunderbird zaharrak sabelean nahikoa indar zeukala, lasterka horretan garaile atera gintezen. Ezer ez zen aurretik irabazia.

Goizean hargatik, Basurtuko autobus geltokian bustirik genbiltzan Carmen eta biok.

– Baionako bestetara etorriko naun. Nobela bukatu eta banatorren!

– Hitza hitz? Hire eta neure artean nobela bat izango dea beti? Bazekin, hi gabe ezin naun bizi!

– Ez. Bai. Elkar maiteko gaitun. Eta ez hadila lotsa, lesbiana haizela erraterakoan.

– Nori nahi dun azal diezaiodan? Fidela naun ni!

– Hi?

– Hala naizela uste dinat behintzat. Agian usteak ustel ditun. Ez didan arauz krisi bat eginen... Baina hago lasai, hire maitatzeaz harro sentitzen naun.

– Hobe.

– Eta nire baitan azkenean, ongi.

Barre eztia marraztu zuen Carmenek. Amodiotik landa, presaka beztitu eta geltokira lehiatu ginela gogoratzen nintzen. Besarkadak luze iraun zuen, eta soilik abiatzear zegoen autobusaren tutuak ebaki zituen gure maitale ezin bereizi plantak.

– Maite haut.

– Nik ere bai.

Elkarrizketa mota hauek amerikar film xoxoloetan ziren kausitzen, baina batzuetan bizitza errealean. Batzuetan. Hain gutxi ordea. Baionara itzultzeko bide guztian, autopistan, Carmen neukan buruan, haren soa, haren lepo gibela, haren

ezpainak, haren bularrak, haren sabel borobila, haren soinalde leuna, haren pubis ilezua, haren sexua, haren klitoria, haren alua, haren izterrak, haren azpiak, haren, haren... haren... haren... ad libitum. Gorputz lesbiana baten aurkezpen-zerrenda puntalakakurloa molda nezakeen jada Bilboko tunelaren azpitik autobusa ilundu zenean, urrakoak min egin zidan, erdibitua nintzen bat-batean eta negarrez urtu nintzen. Auzoko jargiako andere adindua ene egoeraz kezkatu zen:

– Gaizki zaudez ala?

– Ez.

– Orduan, zergatik malko horiek?

– Lasai. Zorionezkoak dira.

Begietako uholdea jabaldu zitzaidalarik, bezperako Kafe Antzokiko emanaldiko irudiek eraso ninduten: kantari zuberotarrak ikaragarriak ziren, biziak eta hilak, ukiduraren *limes*-etaraino eroaten gintuztelako. Eta Haizeminek, zoramena haziz, airarazi zituen Bernat Etxepareren bertso haiek:

*Gizonaren probetxuko emaztia bethi da*

*Barnean sartzen zaiola hazittoa kurri da*
*Ezpata zorrotza dauka egundainoko gida*
*Eztenak baduelarik sekulakoz segida.*

Gelan metatu jendea zutitu zen txaloka. Haizeminek olerkiaren plazaratze-historia kontatu zuen mikroan. Harridura irakurtzen zen behatzaileen aurpegietan. Harridura eta poza. Euskal Herrian dena ez zen galdua, (auto)zentsuragatik, debeku moral eta ideologikoengatik. Bazen, sua hautsetan itzaltzera zihoala, suhar zirauen itxindu kraskari bat. Euskal Herriak hain zuzen, eta hori zebilkidan kolkoan ordu hartan, Iparraldearekin ere kontatzea premiazkoa zukeen, ez baitezpada politikoki, baina bai linguistikoki, hizkuntzaren aberastasuna bere zabaltasunik handienean gozatzeko. Gure mintzaira septentrionaleko elementu erranguratsuenak sartzekoak ziren alabaina, euskara batua deitzen genuen euskalki berri horretan. Kafe Antzokiko ikuslegoaren gehiengoak euskara, Iparraldekoa, Zuberoakoa hobetsiz, baserrietan ikasia zuen.

Halaz, Iparraldeko idazle apurrak, hala bota nuen behintzat Carmenen belarrira, Hegoaldeko

irakurlego nagusiak ulertzeko gisan izkiriatzera plegatzen ziren, eta jadanik bakarren batzuk nobelak erdaraz eskaintzen zituzten euskal argitaletxeetan argitara emateko. Elkarrizketa oroigarrietan, beraien postura azaltzen ziguten:

– Euskalkien problema bat bada. Batu hotzez idazten baldin baduzu, Urepeleko literaturazaleak ez zaitu ulertuko; eta nafar-lapurtar motzez ontzen baduzu zure ekimena, Bilboko leitzaile arrunta urrun geratuko zaizu. Ez dugu erdaraz beste aterabiderik.

Alainan, Iparraldean ez zen asko irakurtzen eta Hegoaldean testuak, zailtasun sobera omen zutelako, baztertzen ziren. Bernat Etxepareren zutarria bertan lerratuko zena, batzuen ezjakinkeriaren eta besteen indiferentziaren lezeko hormetan behera? Hizkuntza berdina ukan eta zergatik ginen hain arrotz? Merkatu kontu soila zena? Ez nekien nondik zula arrazoiaren belarpuloa.

Zena zela, burutazioz burutazio, ekiak Xaho kaiertzeko etxe-aitzinak distirarazten zituela Pannecau zubira heldu nintzen. Emazte lodikote

bat orroaz ari zitzaion bere senar edo gizongai mehakoilari:

– Ez, erran dautzut. Ez eta ez. Ez naiz ados.

– Kauensos. Kalma zaitez amiñi bat. Mentsa iduri duzu.

– Ni? Kalma? Bazauzu? Onartzen ez baldin baduzu, Aturrira aurtikiko zaitut.

– Aturrira?

Zainak tinki zituen andereak *Aturri* erran zuen *Errobi* erakutsiz. Irri gutizia neukan: jende hauek aspalditik bizi ziren Baiona Txikian, okindegian eta eske gurutzatzen nituen, eta ez zituzten ibaien izenak zehazki ezagutzen. Hori zen zinez arrotz izatea. Urrunago, arroztasun sozialaren ikurra zen eta *Easy Rider*-eko Billen antza handia zeukan Thierry eskaleak, ohiko zarpaila mutxituz inguratua, lurrean kukubilko, eskua atzamarratzen zuen:

– Euro bat plazer bazenu!

Agur eta irri apurra salbu, arditik ez neukan.

Txinako auzuneko ene garaietan, gizaki argalegiak, bost eguneko bizarrekin, metroan sartu eta predikuan hasten ziren, hatsaren hartzea kasik ahantziz:

– Kartzelatik jalgi naiz atzo, etxerik ez daukat, jatekorik ere ez, sei ume mukizu baditut gosez orroaz, diru edo ogi puska batekin aski nuke. Nahi ukanez gero, zuen Visa txartela uzten ahal didazue: arraileriaz ari naiz bistan dena! Mila esker eta pasatu egun on bat...

Jendeen erditik ibiltzen ziren gero, errumaniar musika talde batek bagoiak azantzez elkortzen zituelarik. Gertakaria anitzetan errepikatzen zen. Chinatown gogotik ken eta justuki Orbe kalearen izkinan, Bucarestetik etorri aita-seme soinulariak agurtu nituen. Urziceni, beraien sorterria, Karpatoetan zegoen eta gizonak Europa sartaldera zetozen uda partean, dirua irabaztera. Ez ziren musikari onak, eta doitasunean, iruditzen zitzaidan gure lurra soinurik soinu balkanizatzen zutela: bazuen euskal monolitoak beharra!

Iparraldeko Euskaltzaindiaren egoitzara abian nintzen arratsalde hartan. Santa Engrazia elizaren dorpean, gaizkile plantakoei lapurtu orrialdeen kopiak han ere uztea erabaki nuen. Ekintza sinboliko hau Bilboko adiskideekin planifikatu genuen bezperan, Kafe Antzokian. Aseak

ginen klandestinitateaz, norberakeria kulturalez, biktimismo linguistikoaz, ohore bilakuntza pribatu eta pribatizatuez. Mosen Bernaten hiru koplak munta handiko literatura aldizkarietan publikatuko ziren, dohainik. Ez, Gorringo eta D'Amouk xedetu bezala, sos ozen eta distiratsuen truke.

Gorringo, alabaina, odolez hutsarazi zuten Hiriart, bere seme eta Zokil iluminatuek. Tresnatua izan zen. Jakintsu preziatuaren ehortzetak Uztaritzen iragarri zirela aditu nuen Gure Irratian. Kazetariaren arabera, bertsio ofiziala baitzen, ikerlariak bere buruaz beste egin zuen. Nehork ez zuen Jean Rene Gorringo zenaren ukarai ebakia aipatzen. Egia zen, euskalduna deusek ez zuela harritzen eta, menturaz, mendeen mendeetan, krima domestiko franko suizidioz apaindurik pasatu ziren, den mendreneko galderarik gabe.

Herrialde bitxia zen gurea. Batzuetan ez genion ezer ulertzen.

Baionako bestak apailatzen ari ziren ostalerak. Urtetik urtera barrak handiago montatzen zituzten, jada karrikaren erdiraino hedatzen zirela. Sekula ez zuten aski. Herriko Etxearen belarriak haientzat baizik ez ziren. Egunkarietarik ja-

kiten zena zuzen baldin bazen, bost gauez egiten zuten hirurehun eta hirurogeita hamabost eguneko diru emaitza. Pleini ziren ordea, elkarte ugarien aurka haserre, hauek edangiak irekitzean mozkina murrizten zietelako. Ordaintzen zuten ber, alkohola burrustan saltzen zieten ume mukizuei eta gero, *kattalinanbroxin* etsituen pare, gazte hotzen mozkor moldeak deitoratzen zituzten, batez ere neska gazteekiko. Baionako bestak, besta ondoko bilanaren orduak zetozenean, zinezko psikodramak ziren. Hiriko arduradunek tragedia humanoak eta bortxaketak *menosten* zituzten, Koldo Izagirrek idatziko lukeen eran, ospakizunen omenaren ez histeko.

– Neskek dituzte gizonak akuilatzen! Soizue nola beztituak diren! Probokazioa da!

– Erran dute bost bortxaketa izan direla, baina ez dira gehiegi aipatzekoak.

– Telebistan hortaz ari dira terrentaz, alta hainbat gauza eder badelarik egiteko Baionako bestetan, euskal kantak entzutea adibidez.

Euskal kantei zegokienez, hiria luze eta zabal zeharkatzen ahal zen eta, mahai puntetako hordi orrogileez aparte, ez zen abeslari onik nehon

kausitzen. Oro har, ez zen edateaz beste egiteko handirik Baionako Jaietan. Monoprix magazinaren parean, Carmenen itxurak burua argiztatu zidan: aurten Bilboko nire andregaiarekin gozatuko nituen Baionako besta madarikatuok! Elkarrekin derrigorrez lortzeko helburu bakarra finkatu nuen: igande eguerditan BDM ostatuan bazkaritea. Zailetan zailena zen, mila eta milaka kideena ere zelakoan. Amodioak ninderaman eta segur nintzen erdietsiko nuela!

Esperantza bederen baneukan.

Carmenen falta sentitzen nuen jadanik, pentsakerak nahas-mahas hegaldatzen zihoazkidalako. *Geldi* edo *aitzina* erraten zidan Carmenek, eta eratorri mental likitsetan galtzetik zaintzen ninduen. Asteazkenean etorriko zen eta berantetsia neukan. Ohartzen nintzen maite nuela harekin bizitzea, haren ondoan esnatzea, harekin bekoz beko gosaltzea, harekin afaltzea eta harekin kaleetarik eskuz esku ibiltzea, mintzatzea, isiltzea, egunkariak komentatzea, *Volver* lauretan eta *Don't Come Knocking* hiruretan ikustea, Casenave txokolategian askari haguntsuaren hurrupatzea, *Edipo Errege* antzerkia komenta-

tzea, Thomas Bernharden azken nobela aztertzea, eta orenak ahitzean larrua jotzea. Maite nuen harekin bizitzea eta segur nintzen maiteko nuela, herioak separatu arte.

Hiriko ibiltariak presatuak ziren, erreus, kexu, muturra tiratzen zuten. Ez zuen irudi laster bestak zirela. Muturrak hits zeuzkaten, jendeak ez zion jendeari kasu izpirik egiten: salbaiak ziren, bakoitza karrikan aurkitzeko bere eskubidearen jabe bekaitz bailitzan. Banekien Baiona ardura oinez zapaltzen nuelako, ez nuela existentzia pilixkarik, ez nintzen ikusgai edonork kuskatzen ninduelako, barkamendurik eskatu gabe. Jendea tankearen pare aurreratzen zen, etxearen eta lantokiaren artean no man's land erraldoi batean balihoa bezala. Zergatik zeuden hain triste eta ulu beltzen moldean hain ziztakor? Frantziako futbol taldeak Italiaren aurka galdu zuelako? Floyd Landis dopatu zela susmatzen zelako hondarrean garbi fama zeraman Tourrean? Nicolas Sarkozyren promozio politikozko liburua Megadendan aurkitu ez zutelako? Urik ez zegoelako? Zoriontsu ez zirelako? Alta (euskal) gizarte ohitura hobetsien arabera, etxea eraikia zuten, igeri-

leku eta bi autoentzako garajearekin, ezkonduak ziren elizan eta bizpahiru haur pottolo zeuzkaten gartsuki bataiatuak, senarrak emazteekin zeuden eta viceversa, salbuespenak salbu.

Orduan zertako ziren leizafinak bezain gaizto?

Ene galdeak ihardespenik ez zuen. Orobat zitzaidan. Ez nintzen ederra, ez nintzen aberatsa, ez nintzen boteretsua. Noiztenka so bereziak gurutzatzen nituen *baina zer da hori* zerasatenak, aberrazio genetiko bat bainintzan, ez gizon-ez emazte arras, ez-jende bat hots, zerbait atipiko, Erikak bere sanotasun deblauaz lerrakeenez. Ezizaten saiatzen nintzen. Uhargi nahi nuen. Eta uste dut ikusezintasunaren hein horretan desagertuko nintzela, lurraren azaletik nihaur ezabatuko nintzen, Carmenek eztiki *zuzulutik iradoki* ez banindu. Alabaina Bilbon, Gasteizen eta Erriberan, barnez bederen bezain Carmenen gustuko edertzen ninduen eta berrogeita hamar urtez gorderik atxiki hitz lerroa ahoskatzen nerraikan:

– Lesbiana naun.

– Ikusten, ez dela hain neke!

– Beharbada ez.

– Erratearen erratez.

Thiers karrikan nintzen. Menturaz, nioen, gizonek eta emazteek, belaunaldiz belaunaldi *jalgihaditzean* bizitza zerotik berriz hasten zihoakiela sentitu zuten lesbiana nüzü edo gay nauzu agertzen zietenean adiskideei, gurasoei, lankideei eta maitaletzat desiratzen zituztenei. Agian, nahitara edo ezin bestez, eiharturik ez hiltzeko, hitzok ezpainetarik ihes joan zitzaizkienean, bizitza ezezagun baten atari arriskutsuan zeudela sinetsi zuten. Big-bang bat zen. Edozein adinetan agitzen zen, eta aldi oroz urgentzia gorrian, leze hegian, jauzi egitear edo behin betiko amiltzear. Zorigaitzez, behialako *euskalduna naiz eta harro nago* haren antzera, perpausak ez zuen aitorkidea lagun-taldean integratzen, alderantziz, une batez bederen baztertzen zuen, bitxiki kontsideratzen zen, homosexualitatea gaixotasun kutsakorra bailitzan, gizartearen oreka, norbera orekatzen zuen xuxurla zela medio zalantzan jarriko bailitzan.

Euskaltzaindiaren egoitzako bortan nengoen. Mugikorrak jo zuen. Paltoko sakelatik jalgi nuen bristan. Jean d’Amou zen:

– Amaia Ezpeldoi anderea?

– Baai.

– Libre nago.

– Libre?

– Bai, aita eta biok goiz honetan askatu gaituzte. Bilbotik pasatu gara aitaren 4Laren errekuperatzeko eta Baionara hurbiltzen ari gara.

– Eta Zokil?

– Atxiki dute oraino. Baina bihar bertan eguzkiaren berotasuna dastatzen ahalko du.

– Ez dut zuen agurtzeko gutiziarik.

– Zer egin duzu Bernat Etxepareren olerkiekin?

– *Maiatz* eta *Zurgai* aldizkarietan argitaratuko dira datorren astean.

– Kitorik?

– Eta bai, kitorik.

– Aferetarako dohainik ez duzu gaizo neska!

Jean d'Amouk jakinarazi zidan Albert Labruquere Bilboko ospitalean zegoela, bat-bateko zain-nahasmenduaren aurka artatua. Gizona Gasteizen atera zen gontzetarik, eta Thomasen komisaldegiko apaletan zeuden liburuak oro esku gibelaz birindika aurtiki zituen, *urde zikinak*

*urde zikinak* garrasitzen zuela. Labruquereren zorigaitza ulertzen zen, Manex Bergeret eta Pierre d'Oihenart bere adiskiderik intimoenak desagertu zitzaizkiolako, banda zozo baten diru falangaren kausaz. Hargatik, prozac pastilatxo berdeak irents eta kalmarazi zuten. Pentsatzekoa zen, hemendik zenbait egun barne, Labruquere hautsia Baionan ibiliko zela, makila eskuan, hinki-hanka René Cassin baratzetik.

Eraman nuen ikerketa ez nuen ahanzten ahal. Kaskoa kiribilkatzen zidan. Ttaka ilun batzuk geratzen zitzaizkidan. Baina, Carmenen etorrera iragarriak eta etxean atzeman nuen gutunak izpiritua lasaitu zidaten: Baiona Hiriko Garbiketa Zerbitzuetatik agorril osorako ordezkatze baten egiteko proposamena eskuratu nuen. Ametsa zen egiaztatzen. Enetzat hiri garbitzaileak langile garrantzitsuenak ziren, hemen eta han, denetan, batez ere Baionako bestetan. Karia horretara, aspalditik miresten nuen sekula aski goresten ez zen haien lana. Gaitzeko udaz gozatuko nintzen Carmenen aldamenean gauez, bigarren katean Jack Maloneren eta Arte-n Eva Maria Prohaceken serieak irensten, eta egunaz

airea hatsartzen, zakur gorotzak biltzen eta bazterrak Sarkoziren kartxerrez garbitzen.

Emazte batek amets hobea egin zezakeen, noski.

Euskaltzaindiaren egoitzako atea bultzatu nuenean seiak ziren. Ez nuen inor harrapatuko bulegoetan. Funtzionarioen ordutegiez burlatzen ziren ausarki euskaltzainak, euskaldun frankoren moldean, baina hauek nola, tenorez etortzen ziren lanera eta, oroz gainetik, tenorez partitzen, bakoitzak euskara salbatzeaz beste egiteko baitzuen. Eremuen teknikaria tituluaz eufemizatzen zen behialako erratzaren jabea baizik ez nuen atzeman. Ikusi nindunean giderra tinkatu zuen eta telefonoari hurbildu zitzaion:

– Zu? Polizia deituko dut.

– Ez du balio. Ez naiz errotuko. Paper hauek pausatzen ditut.

– Zer da? Bonba kimiko bat?

– Film amerikar soberaz galkatzen zara, anderea. Olerki baten hiru kopla dira eta...

– ...eta orain, zoaz!

– Banoa.

Itzulikatu gabe atera nintzen bulegoetarik. Inkesta bukatua zen enetzat. Iparraldeko Euskaltzaindiko kideek agian interes gutxiz hartuko zituzten, bihar goizean, ekarri nizkien dokumentuak, bazkari, afari edo herrialde exotikoetarako bidaia gonbitik ez baitzekarten. Zorigaitzez. Ikerlari baten arreta mereziko zuen agian, mendeen mendeetan morala zaintzearren saihestutako Mosen Bernaten olerki zatiak. Bost axola zitzaidan azkenean:

– Egin bezate nahi dutena bakean uzten gaituzten ber.

Kanpoan berriro pentsamendua harilkatzeari eman nintzaion. Ene biziorik handiena zen. Bizitzen lagundu nindukeen. Bizioak, noiztenka, bizitoriak ziren. Hala nioen bederen Herriko Etxearen aitzinetik lerratu nintzenean, magazinen izenekiko poltsak eskuetan nagitzen zihoazen udatiarren erditik. Batzuek izozki arrosak milikatzen zituzten, besteak urrutizkinetik oihuka ari ziren, eta azkenak oporretan eguneroko bizitzan bezain pozez zuhur.

Pannecau karrikako ene apartamentuan aurkitu nintzenean, leihoak ireki eta Sinead O’Con-

norren KDa ezarri nuen platinan. *Emma's Song* haren ahairea garatu zen samur, ene izpiritua, eta ez bakarrik izpiritua egia erran, alhara deituz:

*The first time I saw you*
*I loved you*
*I loved you*
*Your face blue*
*Your eyes too*
*Your mouth too*
*When I heard you*
*I wanted you*
*Give birth to you*
*Give birth to you*
*I made love to you*
*Made love to you*
*The great Goddess*
*Had us blessed...*

Maiteminaren sareetan gatibu nintzen eta bihotzak zioen: jalgi hadi plazara, euskara, lesbiana, euskara, lesbiana, eusleskarabianakara-lesbeusbianaka. Bizitza, sagar lodi onduaren an-

tzera ausikitzeko indarra nabaritzen nigan eta Larruni begira, ikerketa bukaturik, ohiko tristura desperatutik urrun, pozik nioen:

– Betor hurrengoa!

Tregoa zen.

ABISU:

Nobela honetan agertzen diren gertakari, aburu eta pertsonaiak oro asmatuzkoak dira. Baldin eta errealitatearekiko zerbait antza kausitzen bada, egileak zin dagi nahigabekoa dela.

Danke meiner erstleserin.
Eskerrak Gasteizko *Texturas* eta Bilboko *Zurgai* aldizkariko kideei, Bilboko Ines (oroz bat) eta Kafkari, halaber Luigi eta Txemari, Kafe Antzokiko saldo trinkoari, ahanzten ez ditudan Erriberako lagunei, Izturitzeko harpeetako arduradunei, Itoiz eta Hertzainak talde ohiei, Sinead O'Connor bezainbat Mikel Urdangarini, Kepa Junkerari eta Michel Portali,
Wolfgang Amadeus Mozart gogoan.

AB, II eta GS:
Hauetarik urrun, bizitza ez bailiteke
aperentziarik ere bizigarria.
Maite zaituztet.